

JAKIN sorta

**KULTURA**

**eta**

**F E D E A**

paulo agirrebaltzategi

peilo m. zabaleta

andoni sagarna

joan m. torrealday

iñaki bereziartua

josé m. díez-alegría

editorial franciscana  
aránzazu

E. F. A. (N.º de Registro 1692)

Depósito Legal: S. S. 1971-672

TALLERES GRAFICOS DEL SANTUARIO DE ARANZAZU  
OÑATE (GUIPUZCOA)

# *aurkibidea*

<i>Sarrera</i> .....	7
<b>KULTURA ETA FEDE</b> .....	11
<b>Gizona, kultura bidetan.</b> <i>Paulo Agirrebategi</i> .....	15
Kultura, gizabidea .....	18
Kultura eta mundugintza .....	22
Kultura eta herrigintza .....	27
Kultura eta gizagintza .....	32
Bibliografia .....	38
<b>Uste, jakin, sinetsi.</b> <i>Peilo Martin Zabaleta</i> .....	39
Uste .....	42
Jakin .....	46
Sinetsi .....	49
Norbaitek sinesten du .....	50
— <i>fedea</i> = <i>ezagumen?</i> .....	54
— <i>fedea</i> = <i>nahia?</i> .....	56
— <i>fedea</i> = <i>sentimen?</i> .....	57
Zerbait sinesten du .....	58
— <i>zer sinesten den?</i> .....	58
— <i>nola ulertu behar da sinesgaia?</i> .....	59
Amaitzeko .....	62
Bibliografia .....	64

<b>Fedea eta ideologia. Andoni Sagarna</b> .....	65
a) Marx .....	69
Gramsci .....	70
Freud .....	72
Monod .....	74
Eta beste biderik? .....	76
b) Fries .....	76
 <b>GIZARTE ETA FEDE</b> .....	 83
 <b>Fedea, erlijioa, gizartea. Joan Mari Torrealdai</b> .....	 87
Erljioa eta fedea .....	90
Teologiaren bideak .....	93
Soziologiaren egokitasuna .....	94
Erljioa eta gizartea .....	95
Zenbait ohar .....	95
Munduaren ikusera erlijiosoak .....	98
—Jainkoa “naturalki” munduan .....	98
—Jainkoa ritotan bakarrik .....	100
—Jainkoarekin mundua aldatzen .....	101
Erljio motibazioak eta mundu aldaketa .....	101
—Erljio motibazioak .....	102
Kosmologi motibazioak .....	103
Salbamen motibazioak .....	104
Mistika motibazioak .....	105
—Gizarte motibazioak .....	105
Kultur motibazio berarizkoa edo herrikoia .....	105
Sozio-kulturazko motibazioak .....	106
Sozio-erlijiozko motibazioak .....	107
Iritziak hauzitan .....	107
—Erljioa: ideologia?, gainegitura?, epifenomenua? .....	108
Marx-en iritziak .....	108
Zenbait marxisten iritziak .....	110
Fedea gizarte berri baten aurrean .....	112
Bibliografia .....	115



<b>Fedea, eginkizun. Inaki Bereziartua</b> .....	117
Egungo egoeraz .....	119
Fedea non koka? .....	120
Lehengo eta oraingo .....	121
Jainkoa ukatu .....	123
Ateismoaz ohar batzu .....	126
Ateismoa, gizona aupatuz .....	127
Ateismoa, jakituri mailan .....	128
Ateismoa, marxismoan .....	129
Ateismoa, heziketan .....	130
Eta zer pentsa? .....	130
Fedea, ekintzari begira .....	132
Giroa eta fedea .....	132
Bizitza-mailak eta fedea .....	133
“Zihur nago...” .....	135
Fedea, biziera du eskakizun .....	138
Besteentzakotasuna fededunarengan .....	142
Elkartearen ekintzaileak .....	145
Elkartea: azterketa eta pentsaketa-leku, ebanjelio- tik ekintzarako .....	145
Elkarrizketa. Horretarako baldintzak eta zailta- sunak. Baina derrigorrezko .....	147
Bibliografia .....	150
<b>HISTORIATIK ESPERANTZARA</b> .....	151
<b>Kristau itxaropena eta</b>	
<b>esperantza historikoa. José M. Diez-Alegria</b> .....	155
Esperantza historikoa .....	158
Fedea eta esperantza historikoa .....	160
Itxaropen eskatologikoa bakarrik? .....	160
Kristaua, esperantza historikora irekita? .....	163
Munduaren bila .....	166
Garaipen bidetik goaz .....	169
Azken itz .....	171

*Mundu zahar hura,, mundu berria... Gizaldi larriak, belaunaldi gazteak... Fedea ala kultura? Fedea eta kultura? Nondik jo nahi luke gizarte berriak?*

*Euskal gizartearen —beste hainitzetan bezalaxe— bideak mila dira, eta aukeratu egin beharko dugu. Baina, aukera behar honetan, ez datoz denak bat: batzuek, zabala dute zuhurtzia eta, sarriegi, hertsia irudimena; besteek, berriz, nahiago lukete irudimena mozkorra, begibista lauso bada ere...*

*Kritika. Ausnarketa behar da, denok gara pentsatu beharretan. Bortxatuak gaude asmo eta amets zaharrak aztertzeren. Gure orainaldiaren nondinorakoa jakin nahi da, egin dugun aldapari begirada bat emanaz. Aztertzeak dira, gogo berri eta zaharberrituak ere. Eta hemen ere —berriz ere— kritika beharko da.*

*JAKINEK eginbehar honetantxe lagundu nahi lioke euskal irakurleari. Oraingoan, eman zitzaigun fedearen azterkari gara. Arriskutsua, benetan, gure gain hartu dugun eginkizuna. Ausartegia, beharbada. Hala ere barkagarri gertatuko ahal zaigu ausar-*

dia hau, eduki ba daduzkagun premia gorriek, kupidarik gabe eskatzen bait digute fede haren analisi egiazko bat.

Euskal Herriak, erlijiozko fede jakin bat bizi izan du azken milakoan, Nafarroako Antso III-ak Leireko monastegia berritu zigunetik-edo. Oraindik ere, hein handi batetan, handik bizi gara, bizi da gure herria. Baina pentsamolde agerberriak ez doaz urbide bakar beretik.

Berrikuntza, ez da berrikeria. Ez eta oraingo berrikuntza ere. Baina, egiaz, berrikeria ere izan daiteke, itxaropide jator bat izan daitekeen bezalaxe. Oraingoan, bestetan bezalatsu, zer den eta nora doan jakin behar da eta jakin-nahi honetantxe finkaturik dago liburu honen ahalegina. Lehenbizi jakin, gero erabaki.

Fede zahar, eta berriak, kritikagarri dira, noski, askok bestelakorik pentsatu eta nahi badu ere. Izan ere, mitoak, ametsak, fedeak, ideologiak eta besteak bizirik daduzkagu, eta ekinean ari dira gure gizartea —gizonak— loisintzatzen, eztenkaten eta zigortzen... Bakoitzak du bere asmo ona eta zurikeria, jatoriasuna eta bekatua...

Baina nahasmenduaren nahasmendian gal ez gaitezen, behar da izar bat, argia. Bizi-beharraren senak pentsamendua ere behar du. Honegatik, zaharraren kritiko garenok berriaren kritikari ere izan behar dugu, alaxinko. Eskaintza asko egiten zaion herriak, merezi du, zer hauta dabilenean, eskaintzen zaizkion itxaropideen azterketa funtsezkorik. Mailarik apalenean izanarren, lan honixe ekiten diogu hemen.

Bi ekitalditan —bi liburutan, esan nahi da— burutzen dugu oraingo gure eginahala: Kultura eta Fedea eta Erlijioa hauzipean dira liburuok. Esku artean dadukazun honetan, Agirrebalzategi, Zabaleta, Sagarna, Torrealday eta Bereziartua lankideek ematen digute beren analisia.

*Kultura, gizabide da, mundugintzan eta herrigintzan gizonago gaitezen. Fedeak ere gizon hori bera gidatu nahi luke. Jakin beharko da, beraz, zer den kultura, zer fedea. Eta zein da kultura-fedeen arteko zerikusia? Ideologia eta fedea erabat pareko ote dira? Zertan dira antzekoak, zertan berezgarri?*

*Fedea, gizona bezalaxe, gizartean bizi da eta, bistan denez, gizarteak eta fedeak ba dute elkarrengan eragin bat. Historikoki, gizarte bakoitzak bere fede-modua eduki du, gizarte-fenomenologia desberdinak agertu ditu. Hemendik gure galderak: gizarte aldataketak zein eragimen du fedean? Eta Euskal Herrian: zein ote liteke fedearen nahiz federik ezaren etorkizuna? Etorkizunean, fededunak zein egokiera ukanen ote du gizartegintzan? Fedea, gizartearen aldatzaile eta aurreratzaille ote da? Horrela izan behar ote du?*

*Ba da galderarik, eta bakoitzak du bere itxaropena. Etsipenaren losapetik, gutiena uste denean pizten zaigu gizonoi itxaropen hura. Erorialdiz eta esperantzaz oparoa dugu giza historia, eta kondaira hori argituaz José Maria Diez-Alegria mintzatuko zaigu itxaropen historikoaz eta kristau itxarokizunaz.*

*Pozik ginake ondoren datozkizun horrialdeok guzior etorkizunean bidelagun zuzpergarri gerta balekizkizu.*

JAKIN

**kultura eta fede**

Gure gaurko eztabaida askoren azpitik bi galdera jaiotzen dira borborka: zer da kultura, zer da fedea? Gizona, nola jator eta zuzen kulturatu munduarekiko harremanetan? Eta fedea, kulturarekin bat ote dugu?

Gizonak bere burua inguruko gauzetatik berezi zuenean, baitaratu egin zen, bere buruaz jabetu, kontzientziatu. Gertakizun garrantzizkoa izan zen hura.

Harrez gero, mundugintzaren ardura bere gain hartu zuen. Eta kulturaren "teknika" jaiotzen. Erlijioa ere —ez da fedea esan nahi— kulturatze horren "tresna" bat izanzen litzake.

*Munduaren kulturatzea ez du gizonak bakarrik egiten: gizarteak, giza-elkarteak egin du beti. Eta hemen sortzen dira ulerbideak, sinboluak, honek egiten bait du posible gizartea bera ere. Kultur gizarte hori elkarte konkretu batean eratzen da, sinbolu-sistema jakinean, herri bat da. Hone-la, gizartegintza, herri jakin batean mamitzen da eta herri honen tradizioak gordetzen ditu herri-tasunaren ulerbide sinbolikoak.*

*Herrikide bakoitzaren gizagintza eginkizun dinamiko bihurtzen da gizon bakoitzagan; baina giza-kulturagintza herriaren bidez ematen bazai-gu, fedea "besteengandik" datorkigu. Fedea dohan, debalde, emana da, eta emari hori onartzean, libreki onartzen da, zu bat onartzen dugun bezalaxe, fedean norbait onartzen bait dugu. Honegatik, fedea zientzia baino harago doa, aberatsago da, ez bait du aski egia hutsarekin.*

J. I.

**GIZONA KULTURA BIDEAN**  
paulo agirrebaltzategi



Behin eta berriz gure gogoak *Kultura* hitzaren barnera itzuli beharrean gara. Izan ere, hamaika esanahi erantsi ohi zaio minutu oro gure ahotan darabilgun hitz honi. Eta eguneroko solase-tan ezezik, kultur zientzialariek edo antropologariek ere mila zen-tzu ematen diote beren jardunetako oinarri hitzari (1).

Kultur antropologiari eta soziologiari buruzko euskal goga-keta nahiko berria dela uste dut. Hala ere, *kultura* hitza batere eragozpenik gabe sartu da; euskal entzumenari egoki datorkio nunbait. Eta bestalde gaurko gizarteko eta herriarteko harreman-etan derrigorrezko hitza bilakatu da. Baina hortik aurrera, eus-keraz kultur antropologia bat egitean edo soilki euskeraz kulturaz mintzatzean, geure pentsabide bat eta geure mintzabide bat landu beharko dugu. Eta aurren-aurrenik *kultura* hitzaren beraren zen-tzua argitzen saiatu behar, euskeraz ere horren nahastua bait dabil.

Bide honetatik jo nahi dut idazki hau ematean: ez hirurehun-

---

(1) Kultur Antropologia edo Etnologia zientzia bezala zaharra izan ez arren ere, "kultura" hitzaren berrehun eta berrogeitamar mugaketa ezberdinak zenbatu ditu batenbatek. Ikus: *Dictionnaire de la Foi catholique. Les mots*, Ed. du Cerf, Paris, 1968, "Culture" artikuluan.

garren mugaketarik ateratzeko noski, kultura hitzaren inguruan argi apurtxo bat sortzeko baizik. Eta JAKIN-ek bidetu nahi izan duen liburu honek, "Kultura ta Fedea" gaitzat duelarik, Kulturaren inguruko nere azterketa hau ere Fedeari begira izanen da: hots, kulturak eta fedeak beren artean izan ditzaketen zerikusi ta loturak azalean jartzeko bideak irikiatz, edo kulturak fedeari zabaltzen dizkion leioak bereziki erakutsiaz (2).

### Kultura, gizabideak

B. Hinwood-ek, gaurko kultur antropologiari jarraiki, hiru zentzu nagusi bildu ditu kultura hitzari dagokionez: pertsonaren kultura, gizartearen kultura eta materiaren kultura (3). Sailketa hau gure erara jarrai genezake, eskema orokar bezala; hala ere, ez dugu inolaz ere ahantzi behar hiru esanahi horiek gizonagan batzen direla eta beragan mamitzen.

Bilakaera edo eboluzioa egun zientzi legea da (4), biziari eta bizidunei dagokienez: benetan bilakaera biziaren histori bidetzat zientzilari gehienek onartu dute. Eta gizonak ere, bizidun denez geroz, ezin lege honetatik ihes egin. Beraz gorputzarekiko antropologariek bilakaera lege horren hitzaletan eta neurritan azterkatzen dute giza-historia (5).

---

(2) Kulturaren eta fedearen arteko arazoa ez da, noski, gaurkoa. Itun Zaharrean maiz agertzen da problema hau; eta ezin ahantzi Kristo berbera agertu zaigula fede ta kulturaren arteko arazoaren sinbolu eta adierazpen bezala. Bere ondoren, ordea, Elizaren historia Harengan azalduko arazo horren luzapena ez ahal da izan? Ikus: NIEBUHR, H. R., *Christ and Culture*, Harper, New York, 1956. Baina arazoaren planteamendua ez da beti berdina izan, ez hitzez eta ez mamiz ere; halabeharrez, kultur ideia berak historia zehar horren joera ezberdinak izan dituelarik. Beraz, "kultura ta fedea" arazoa gaurkoa ez izanik ere, gaur bere berezitasunean agertzen zaigu, eta, hain zuzen ere, kultura hitzari Etnologiak eta Soziologiak beste zentzu zabalago ta sakonago bat eman diotelako. Zentzu hau azaltzen salatuko gara.

(3) HINWOOD, B., *Race. The Reflections of a Theologian*, Herder, Roma, 1964, 126 horr.: "personal culture", "social culture" eta "material culture".

(4) Ikus: TEILHARD DE CHARDIN, *Le Phénomène humain*, Ed. du Seuil, Paris, 1954, 242 horr.

(5) Bide hau zabal eta bikain azaltzen duen liburu bat: HULSE, F. S., *La especie humana*, E. Aguilar, Madrid, 1968.

Gizona, bada, natura legeen bideetan zuzendua ari da, eta beraz izakien histori barnean murgildua eta bidetua. Baina giza-diaren historia ez genezake bilakaera legetan muga, hesi horiek apurtu egin bait dira gizakia sortzean; eta, hain zuzen ere, bila-kaera bidea *kulturaren* bide zabalagoan barna sartu da. Beraz, ez elkar ukatuaz, elkar barneratuaz baizik. Izan ere, gizakiaren aurretiko primateek beren bilakaeran bide berezia jarraitu behar izan zuten kultura izakia eratzat gorputz egokia prestatzeko; eta bestalde, hemendik aurrera giza-gorputzaren bilakaera kulturak zuzenduko du (6). *Bilakaera* izaki bizidun guztien "aurrerabide" historikoa baldin bada, *kultura* gizakien historia zeharo "aurrerabide" bihurtu da: *gizabidea*, hain zuzen.

Non, noiz eta nola hasi zen gizadiaren kultur bidea ez dago gertaera edo egite historikoen bidez zehatz argitzerik, irudimen bero batez ezik. Fenomenu luze eta ohargaitza izanik, ezin egun batetik besterako aldakuntza agiririk ikusi. Fenomenu guztien lehen hasierak ohargaitz izaten baldin badira, areago gizabidearen edo kulturaren hasierak, horren isilak eta geldiak izan zirelarik (7). Baina historiak erantzun garbirik eman ahal ezin badigu, orduan filosofiari galdetu behar (8).

Aipaturiko gorputz egokitasunarekin batera eta gorputz bila-kaera berezi horrek eskatuta, baldintza batzuk sortzen dira primate zenbaitetan, kultura bidea zabaldu eta urratuko duten baldintzak, alegia: adimena sortzen da, hain zuzen; eta adimenarekin batera gizakia. Bizidun "berri" honentzat alboan eta aurrean di-

---

(6) HULSE, alp. lib., 434 horr.: "La evolución de la capacidad para la cultura tuvo que iniciarse como paso previo".  
435 horr.: "...La cultura evolucionó a causa de las capacidades biológicas preexistentes de ciertos primates, y de la evolución biológica de sus descendientes estuvo guiada desde entonces, por la cultura". Ikus gainera eta batez ere: 355-371 horr.

(7) FARIS, E., *The Nature of human Nature*, 22-23 horr.: "The primordial origin of human culture is a problem to the solution of which it is impossible to bring the facts".

(8) Horixe berbera egiten du Teilhard de Chardin-ek, bere zientzi datuak oinarritzat dituelarik. Ikus, batez ere, bere libururik nagusienetarikoa: *Le Phénomène*, alp. lib.

tuen izakiak ez dira senaren zuzpergarri bakarrik, beragandik bereizturiko eta aparteko errealdade baizik. Hau da, gizakiari "aurka" —ez derrigorrez etsai— jartzen zaizkio, beren zertasun eta izatasun bereziz.

Gizakiagan, bere barneko bilakaerak eraginda eta kanpoko errealdadean baldinpetu beharrak bultzatuta, dohain eta joera berriak zuzpertzten dira: *irikimena*. Bere inguruko izakiak errealdadetzat hartzen dituelarik, ez da bere baitan isten, baizik eta gauzetara bere burua zabaltzen du, horien barnea azterkatu nahian; era berean, izakien arteko isilaldi aspergarri eta luzea etetzen da, horien inguruan mintzaira sortuaz eta nolabaiteko elkarrizketa eratuaz (9). *Ekipena*, edo inizatiba. Gizakia beste izakien aurren berariz jartzen da, ekintzaren bidez bereganatzeko: hots, izakiak bere einkizuntzat hartzen ditu.

Bide honetatik *kultura* konzeptura lehen hurbilketa egin dugu: kultura, gizakiari lotuta ezezik, honen eta beste izakien arteko harreman berezia bezala azaltzen zaigu: argiago agian, gizonaren beste izakiekiko jarrera eta joera litzake kultura. Bizidunen arteko harremana senaren bidez eratzen baldin bada, gizakiaren eta beste izakien artekoa, kultur harremana bezala izandatu genezake (10). Harreman berezi honetan datza, baita ere, giza kulturaren oinarria eta berori ulertzeko lehen argia: gizabidearen hastapenak, hain zuzen ere.

Gizakia "gizagai" izan da garai batetan; bere gorputz bilakaeraren eta bere adimenaren bidez kultur jokabidea hartu baldin badu, bere inguruari erantzutearren izan da —alde batetik inguruak eragin dio gorputz bilakaera eta giza-*psichearen* sorrera—.

---

(9) Ez naiz ari hizkuntzaren sorreraz, ez eta aho-hizkerarenaz ere; hori gizartearen fruitua bait da.

(10) S. Freud-ek kultura, giza-zirkinaren (*impulso*) aurka jartzen du. Gizakiak kulturaz bere zirkin gainperatu egiten ditu hiru eratara: zirkin *txukatua* (*por consumpción*), beren ordeaz aihurri edo karakterra sortzen delarik; zirkin *goretsiaz* (*por sublimación*); zirkin *bastertuaz* eta beraz *ez baliatua* (*por supresión o renuncia de su satisfacción*) Ikus: FREUD, S., *El malestar de la cultura*, (Obras completas, III), Ed. Biblioteca Nueva, Madrid, 1968, III puntua.

Hiru hauek: inguruak, gorputz bilakaerak eta giza-psicheak, hirurak batera eta hirurak elkartuta, jarri dute gizona kultur bidean. Beraz, kultura gizonak bere inguruko izakiei ematen dien erantzun berezia litzake.

Gizonak, bada, bere inguruko izakiekin topo egin du; baina oraindik ez du bere buruarekin topo egin. Dirudenez, gizonaren baitaratzea (erreflesioa) eta kontzientzia bilakaera luze baten ondoren eta kulturagintza saiaturen bidez besterik ez dira sortu (11).

Gizonak bere buruaren aurkitze hau aurrerapen handia izan da gizabidean. Izan ere, hemendik aurrera beste izaki guztiak bere inguruan bilduaz joango da eta bere menpean ikusiko ditu, bere buruari gauza guztien nagusigoa emanaz (12). Izakiekiko bere irikimena eta ekipena erantzukizun bihurtuko zaizkio. Barnekoi (*reflexivo*) eta kontzientziadun bilakatu den gizonak, batez ere bere burura itzultzen du bere ekipenik nagusiena. Orduan, izakiekiko kultura bene-benetan giza-kultura bilakatzen da: izakiak kulturatzean bere burua kulturatzen ari da gizona; beragandik zuzpertz da kultur joera eta kultur ekipena, beragana itzultzen dira.

Eta orain kulturaren mamira heldu garela uste dut: hau da, kultura gizonaren hezipen eta hezibide... Kultura gizagintza bezala!

Baina honetan ez da giza-historia bukatu, oinarriak jarri baizik. Horien gainean giza-historia ez da bilakaeraren lege hutsez eraikiko, kulturaz baizik. Eta giza-historia kulturaren historia delarik, mami-mamian *gizabidea*... (13).

---

(11) Gizadiak gizakiaren bizi-aroen antzekoak ditu bere historia zehar: haurtzaroa, umetaroa, gaztaroa...

(12) Ikus: TEILHARD DE CHARDIN, *Le Phénomène*, aip. lib., 190 horr.

(13) TEILHARD DE CHARDIN, *ibid.*, 199 horr.: "L'homínisation, qui est d'abord, si l'on veut, le saut individuelle, instantanée, de l'instinct à la pensée. Mais l'homínisation qui est aussi, en un sens plus large, la spiritualisation phylétique, progressive de la Civilisation humaine, de toutes les forces contenues dans l'Animalité".

Orain arte gizonaz eta gizakiaz mintzatu naiz; baina gizona gizadi osoaren adierazgarri bezala —*gizadi* konzeptua kultura aurreratu baten sorkari izanen da—. Beraz gizadiaren kultur bi-deaz mintzatu gara. *Kultura* ideia horren barnean sartu beharko ditugu hasieran aipaturiko hiru zentzu nagusiak. Ederki asko bildu ditu hiru zentzuak, etnologi edo kultur antropologiaren sortzaile izan den E. Tylor-ek, kulturaren honako mugaketa hau ematean:

Kultura edo Zibilizazioa zera hau da: Gizonak gizartekide bezala bereganatzen duen jakintzaren, sinestearen, artearen, moralaren, legeen, ohituren eta beste holako ahalbide eta jokabideen osotasuna (14).

### **Kultura eta mundugintza**

Gizonak, gizon denetik, bere aurrean eta inguruan mundua aurkitu du, latz eta eder, ageri eta izkutu, miragarri eta bildur-garri, lagun eta etsai... Mundu honi bere erantzuna ematean, giza-kultura egiten saiatu da. Eta filologiaren aldetik ez ahal da izan honako hau kulturaren lehen esangura? (15). Baina batez ere, historiaren aldetik giza-kulturak alde honetatik eman ditu lehen urratsak.

Munduaren bilakaeraren legepetik nolabait ihes egin duenean, mundu horrek gizonarentzat bere absolutua galdu du. Eta gizona bera bihurtu da munduarentzat absolutu, honen izkutuak argitaratuaz, honen indarrak menperatuaz eta honen handia neurtuaz. Beraz, mundua gizonaren aurrean erlatibizatu egin da.

Mundugintza aipatzean gizonaren ekintza berezia esan nahi dut, ez munduaren berezko bilakaera hutsa. Gizonak eginkizuntzat

---

(14) TYLOR, E., *Primitive Culture*, London, 1887, I, 1 horr.

(15) Kultura hitza latinetik dator; eta bere lehen esangura lurra lantzea izan zen: Erderaz orain "cultivar la tierra" esan ohi dena, alegia.

hartu bait du bere inguruko mundua, bere premietara egokitzeko lehen-lehenik eta gero bere gogo-nahikundeak betetzeko.

Barren-barrenean kultura lan bezala aurkezten zaio gizonari. Lana gauzak *lantzeko*, hain zuzen ere (16). Izakiak lantzea da gizonaren munduarekiko eginkizuna. Bere ekonomi premiak eraginda, harriak lantzen hasi zen. Baina emeki-emeki lanketa horren zentzu eta bidea askozaz zabalagoak hartzen ditu. Lanketa gizonaren nagusigoa agertzea litzake, alde batetik, eta bestetik nagusigoa horixe gorpuztea, osotzea eta burutzea. Baina menperatuaz izakiak gizonaren neurritara egokitzen dira, eta azken-azkenik gizonaren lagun eta luzagarri bihurtzen dira (17).

*Teknika* ugariz kulturatu eta lantzen du gizonak bere inguruko mundua: honen legeak aztertuaz, zentzua irakurriaz, bere ederra jaso eta zabalduaz, bere indarrak mugatu eta menperatuaz... Jakintza, filosofia, sinesmena, artea, erlijioa, lanbidea... guztiak gizonak bere inguruko izadia bereganatzeko, menperatzeko, lantzeko eta leuntzeko asmatu dituen bideak besterik ez dira: hots, mundua kulturatzeko teknikak (18).

(16) J. M. Torrealdai-k dioen "kulturaren eta lanaren haustura" delako hori ez dut ulertzen (Ikus: *Kulturagintza eta Rikardo*, *Rikardo Arregi* liburukian (Jakin sorta 3) 1971, 20 horr.). Ez dut uste, euskeraz behintzat, kultura, lanaren bidez ezik, adieraz daitekeenik. Kultura ez da aukera bat gizonarentzat, "egin edo eduki «daitekeen» zerbait", nahi ta nahiezkoa baizik, gizonak gizon izan nahi baldin badu —eta honetan Torrealdai ta blok bat gatoz—; beraz lana-beharraren bidez kultura-beharrera jotzen dugu. Torrealdai-ren hitz horiek, bere asmoen kontra, nahasketarik sortu dezaketela uste dut.

(17) Landu eta leundu euskeran sustrai berbera dutela dirudi. Benetan harriak lantzea harriak leuntzea izan zen, eta kultura munduaren lantzea eta leuntzea dela esan genezake; bere laztasun osoan gizonaren aurka azaltzen zaion mundu hori. S. Freud-ek munduarekiko giza-kultura bi etsaien borroka bezala ikusten du: "La función capital de la cultura, su verdadera razón de ser, es defensora contra la Naturaleza" (*El porvenir de una ilusión*) (Obras completas, I), Ed. Biblioteca Nueva, Madrid, 1967, 78 horr. Beraz, kultura gizonak naturaren aurka eraturiko borroka litzake; eta bestalde, kulturak gizona naturaren erasaldietatik babestuko luke. Hala ere, ez dut uste natura-mundua beti gizonaren etsai azaltzen denik.

(18) Argi denez, hori hola delarik, ez dago kultura ta zibilizazio konzeptuen arteko eztabaida jartzerik. Eztabaida horrek inoiz irtenbiderik izan baldin badu ere, gaur garaitua dela uste dut. Hitzel buruzko eztabaida ezik, funtsean ere gaur giza-kulturagintza bat-batean ikusten da, teknika aldetikako eta izpiritu aldetikakoen artean bi sail bereiztuak eta sailkatuak egin gabe; giza-joera ez bait dago hola sailkatzerik. Beraz ez genuke Camus-en pesimismoa onartuko, mundua ikustea eta mirestea alde batetik, eta ekintza beste aldetik jarriaz, zera hau esaten duenean: "Natur, ikuskizun eta mireskizun izatea gaitzen duenean, lankizun eta materia aldagarri besterik ezin daiteke izan".



Bide edo teknika hauek gizonaren eta munduaren artean lotura berezia sortzen dute, beren harremanak gorpuztuaz. Beraz gizonak munduan duen luzapen eta bere barnearen agerpen dira. Mundua berez gizonaren "aurka" dagoelarik, mundu hori kulturatzeko teknikak ez dira gizonagandik kanpoko zera batzuk, eta gainera mundua gizonarekin hertsiki lotzen dute. Kulturaren bidez gizona munduan barneratzen da, mundu hori bere gisara moldatzen duelarik: kulturaren bidez gizakiaren eta munduaren artean sinpatia eta kidetasuna sortzen eta sakontzen dela esan genezake; gizonak bere bizi asmotan eta bere historiaren etorkidetan sartzen bait du mundua.

Areago, kulturakizun den mundua, kulturatua den neurritan, gizonaren sorkizun bihurtzen da. Beraz kulturak, gizonaren munduarekiko harreman, eginkizun eta teknika ezezik, beste esanahirik ere jasotzen du: hots, kultura-gai gorpuztuarena edo kulturagintzaren emaitzarena. Gai osotasunak gorpuzten du kultura: Zientzia mota guztitakoak, ideologia eta filosofiak, hainbeste eratako arteak, erlijio eta bere inguruko zenbait agerpenak, lan tresnak, edergailuak, sineskizunak, etab. giza-kulturaren gai dira; eta gizonaren agerpen eta emaitza direnez geroz, bere luzapen bezala.

Zer da orduan mundugintza? Beste bizidunentzat mundua egina, mugatua eta hertsia azaltzen da; giza-aberearentzat, ordea, eginkizun, bide eta etorkizun. Horregatik kultura-teknikaren bidez mundua "egiten" saiatzen da: bere neurritara egiten eta egokitzen, hain zuzen ere. Ekintza horren hegaletan, beragandik at zegoen mundu hori bere barneko agerpen eta bere inguruko luzapen bihurtzen du. Hau da mundugintza edo mundua kulturatzea; areago, mundua gizatiartzea.

Beraz mundugintza gizagintza bilakatu da. Izan ere, alde batetik mundugintza horrek giza-premia guztiei erantzun nahi die; sakon-sakonean giza-barnean eragiten du mundugintza. Eta barne horren gose-nahikundeak bete, ase nahi ditu. Horregatik kultura



gizonaren osagarri da. Bestaldetik, mundugintza gizonaren askabide da. Kultur joera, hasieran eta oinarrian, izadiaren bilakaera hutsetik askatzea baldin bazen, kulturagintza eta mundugintza beren jarraibide osoan horixe berbera dira: munduaren lege zorrotzak bidetuaz, bere indarrak menperatuaz, bere ezkutuak agertuaz, bere latza leunduaz eta bere ederra ikusi eta bereganatuaz, gizonak berak munduak ezarri dion murrontza astindu egiten du eta bere nagusigoa eta askatasuna burutu. Gainera kulturagintzaren gai eta emaitzak, kultur agerpen guziak behin eta betiko gizonarekin lotuta geratzen dira, agerpen direlako, hain zuzen ere. Eta kulturagintzaren emaitza gorpuzturiko horien bidez mundua bera gizatiarragotuz doa, gizonaren inguru eta bizi giro egoikiago bat, hots, gizatiarrago bat zabalduaz.

Zati hau bukatu baino lehen, erlijioak kultura-teknika eta kultura-gai horien tartean ze toki eta eginkizun betetzen duen ikutu nahi dut, idazki honen asmoetarako interesgarri eta bidezko dela uste dut-eta —ez da ahanzi behar ia beti erlijioa eta kultura elkarrekin bateratzen zaizkigula—.

Kultura eta erlijioa historia zehar hertsiki lotuta agertzen dira (19). Baina honek ez gaitu bide okerretik abiaerazi behar, hau da, kultura ta erlijioa, bi zera direla-ta, bien artean erabateko bereiztasuna egitera; edo, alderantziz, biak lotuta azaltzen direlata, zera bakarra egitera.

Erljioa gizonak mundua kulturatzeko teknika eta kulturaren gaien tartean sartu dugu. Hala ere, honetan ez da agortzen erlijioaren zerikusia eta eginkizuna kultura osoaren barruan. Kultur antropologia aldetik erlijioa gizonaren sorkizun bezala ikusten da. Sorkizunak ez du esan nahi, horregatik, asmazioa, besterik

---

(19) BARS, H., J. Maritain-en "Religion et culture" liburuaren hitzaurrean honela dio: "La rencontre, embrassement ou conflict, du "culturel" et du "religieux" est un fait de tous les temps et de tous les climats" (MARITAIN, J. *Religion et culture*, (Foi vivante 89) Desclée de Brouwer, 1968, 9 horr.). Beraz, ezin onartu, ez kulturaren izenean erlijioa ukatu nahi dutenak, ezta erlijioaren izenean kulturaren balioa ukatzen dutenak.

gabe; barne-barnean erlijioa gizonaren aldetiko ikerpen eta arki-  
pen bezala azaltzen zaigu, bere bizitzako zenbait gertakizunei eta  
munduari erantzun osoa eman eta bere barruko zenbait kezka eta  
nahikunde bete nahian: gizonaren nahikunde eta galdekizun sa-  
koneiak, hain zuzen ere (munduaren eta gizonaren sorrera eta  
amaia, biziaren eta izadiko indarren zentzua, heriotza, gaitza,  
etab.). Sinesteak eta sineskeriak, magia eta erlijioakizunak, dog-  
mak eta dotrinak, guztiek erlijioa kulturaren gai egiten dute.

Freud-entzat erlijioaren eginkizuna (erlijioa kulturaren alde  
bat izanik) hau da: kulturaren akatsak eta zenbait zorigaitz  
erremediatzea eta gozatzea; hain zuzen horretarako asmatu eta  
sortutakoa (20). T. S. Eliot-entzat, alderantziz, kultura da erli-  
jioaren funtzioa (21).

Bi afirmazioi gehiegikeria derizkiet. Kultur arloan erlijioak  
garrantzi handi-txiki izan dezake; baina kanpotik ezik, kultur  
barnean azaltzen zaigu (22). Eta kultura osoa egituratu eta ma-  
mitzen ez baldin badu ere (bestela erlijio-kultura batetan ginake),  
ezin ukatu giza-kulturaren historia zehar erlijioak izan duen he-  
dadura, kulturaren gai hain garrantziko den moralaren oinarri  
eta argibide bezala ere.

Non da hemen fedearantzat tokirik? Fedea oraindik urruti  
da kulturaren erlijiotasunetik edo erlijio gaitik. Fedea ez da kul-  
turakin ez eta kulturaren teknika ere; fedea zertasun eta oina-  
rria Jainkoaren goiagerpen historiko batetan bait datza, eta batez  
ere pertsonaia historiko batengan, alegia.

---

(20) Ikus: FREUD, *El porvenir*, aip. lib., 3. atala.

(21) Ikus: ELIOT, T. S., *Notes towards the definition of Culture*, Faber,  
London, 1967, 27-28 horr. J. M. Donoso Cortés-entzat ere zibilizazioa teologiaren  
distiria litzake beti.

(22) P. TILLICH-en kulturarekiko teologiaren oinarria hontantxe datza:  
hots, kultura bakoitzaren barneko erlijiotasunean; eta bera kristau denez, kul-  
tura guztien barneko Kristoren presentzian. Ikus: *Théologie de la culture*, Ed.  
Planète, Paris, 1968, J. P. Gabus-en sarrera, 32 horr.

## Kultura eta herrigintza

Orain arte gogaketaren bidean zera honetaraino heldu gara: hots, kultura gizonaren *agerpen* eta *emaitzen* osotasuna, mundua gizatiartzeko, hain zuzen ere. Baina giza-agerpen eta giza-emaitzen tartean beste tankerakorik ere ba dugu: oso gain-gaindik esanda, gizarte instituzioak... (23).

Kulturaren sorrera gizonaren sorrerari lotu badugu, giza-bakardadea gizartera ideki delako da. Inguruko munduarekin topo egitean, antzeko beste gizakiekin ere topo egin du eta kidetzat hartu behar izan. Ezinezkoa da abereen elkartetik gizarterako urratsa noiz eta nola eman zen jakitea. Baina lehen agerpena ez ote zen izan bi edo hiru gizaki, *lan* bat (kultur lana, noski) egiteko elkartu edo *gizartetu* zirenean? (24). Lehen gizartea, bada, lan-kidetzan edo kulturakidetzan agertu bide da.

Mundugintza gizartearen sorrera historikoan delarik, hala ere gizartea ez zaio mundugintza soilari mugatzen. Poliki-poliki gizartegintzaren arloa askozaz zabalagoa bilakatzen da, giza-bizi osoa, alegia. Eta beraz giza-kulturak neurribide edo dimensio berria arkitzen du: hots, gizartegintza. Mundugintza eta gizartegintza ez dira kulturagintzaren bi sail bereiztuak edo bereizgarriak, ez eta bi kultur bide ezberdinak edo paralelroak ere, giza-

---

(23) Hona hemen nola mintzatu den S. FREUD: "...«Kultura» hitzak gure bizia geure aurretiko abereengandik urrutiratu duten *produzio* eta *instituzioek* osatzen dute; beren xedea bilkoa da: Naturatik gizona babestu eta gizonen harremanak eratu", (*El malestar*, ap. lib., 21 horr.). Gainontzean, Freud-ek berak, gizartearen sorrera bi sorkari honetan jartzen du: Eros eta Ananké direlakoetan, alegia. Eros, hau da, gizonaren emaztearenganako eta emakumearen bere semeenganako sexu- eta maitasun-erakarpena. Ananké, hau da, lanegiteko gizonen elkartu beharra (Ikus: *ibid.*, 29 horr.).

(24) FREUD psikologia aldetik mintzatu zaigun bezala, TEILHARD Antropologia aldetik ari zaigu: "Grâce à l'artifice merveilleux de la socialisation en milieu réfléchi, un type nouveau d'arrangement «psychogénique» (de nature éducationnelle et collective —kulturala esango nuke nik—) est apparue dans la Nature avec l'homme..." (*Le groupe zoologique humain*, Albin Michel, Paris, 1956, 122 horr.). Elkartegintza (*asociación*) hainbeste bizidunen tasuna baldin bada ere, gizartegintza (*socialización*) gizakien bereiztasuntzat hartzen da.

kultura sail bakarraren bi koordenada elkar-barneratuak baizik: mundugintza gizartegintzan gorpuzten da eta gizartegintza mundugintzan (25).

Gizartegintzak, bada, gizonaren biologian eta psikologian bere oinarria arkitzen baldin badu ere, bere aurrerabide historikoan kultur antropologiaren gaia bilakatu da, giza-kulturagintza delako. Izan ere, familia, klana, tribua, enda... guztiak giza-elkarteak dira, eta giza-biologian oinarrituak eta giza-psikologiak eraginak. Baina giza-elkarteak direlarik, kulturak kutsatu dituela esan genezake; kulturak jazen eta mamitzen dituen neurritan elkarte horiek gizatiarrak direla esan behar: gizarteak direla, hain zuzen. Baita bizibideak ere sortu ditzake, odolaren loturetatik aparte, elkarteak, bai abereen artean bai gizakien artean; baina azken hauetan gizatiarrak direla esateko, benetan kulturak egituratuak beharko dute izan.

Geografiari lotuta arkitzen da gizona. Eta lurraldeak berak egiten ditu giza-taldeak, gizonen artean kidetza sortuz eta sarritan beste taldetatik bereiziaz. Azkenik, historiak (hau da, zenbait gertaera, borroka, etab. elkarrekin bizi izateak) elkartasuna sortzen du, eta gizonen artean gizarteak eratu, horien arteko kidetza sendotuz eta beste taldetatik banatuaz. Hala ere, oraindik geografi elkarteak edo historia edo destinu elkarteak izanen dira; eta kultur elkarteak (giza-elkarteak), kulturak ezurmamitzen dituen neurritan.

Zertan datza, orduan, elkarte guzti horiek gaintuaz —ez ukatuaz, barneratuaz eta bidetuaz baizik— gizartegintza burutzen duen kultur gizartea?

Lanerako lehen elkartze hura gizartearen oinarri ta hasiera

---

(25) C. KLUCKHOHN-ek dioenez, "une culture est... un ensemble de techniques qui doivent permettre de s'adapter à la fois au milieu extérieur et aux autres hommes" (*Initiation à l'Anthropologie*, Ed. Dessart, Bruxelles, 1966, 37 horr.). Ikus baita ere: FREUD, *El porvenir*, alp. lib., 73-74 horr.

izan baldin bazen, ez zen noski lankidetza sortu zelako bakarrik —bere aurretiko abereen artean ere ba da lankidetzarik—, lan eta errealidade horren inguruan, sen hutsak behartuak ezik, beste zerbaitek bildu eta elkar ulerrerazi zituelako batez ere: ulermen edo ulerbide berezia sortzen da eginkizun horren inguruan: hau da, *sinbolua*. Hemen da giza-elkartasunaren oinarri; eta gizarte-gintzarako idekiko diren bide guztietan sinbolua izanen da barnebarnean. Horregatik, S. Freud-ek eta Lévi-Strauss-ek, *gizonak elkartzeko sinbolu sistimen osotasun bezala* ikusten dute kultura.

—Gizonek beren artean ulertzeko sortzen duten *hizkuntzak eta edozein tankeratako mintzairak* oinarri-oinarrian du sinbolu sistema. Eta horretan bereizten da geienbat eta argienik gizona beste abereengandik.

—Edozein eginkizunetarako elkartzeko eratzten diren *gizarte instituzioak* sinbolu bidetan errotuak daude.

—Harremanak zuzentzeko gizonak jartzen dituen *legeak*, inoren joeraren sinbolu besterik ez dira.

—Azkenik, elkarte bizitzarako asmatzen dituen *balio sistimak eta moralak*, jokabide batasuna eta elkartasuna lortzeko, inguru edo giro sinboliko bezala azaltzen zaizkigu.

Beraz, gizartea lantzeko, leuntzeko eta kulturatzeko asmatu, sortu eta gorpuzten diren bide horien eta beste hainbeste, sinboluaren sustraitan errotuak daude.

Bide horietan ezurmamitzen da gizarte kultura. Ezurmamitu, bai, baina ez gizartegintza abstraktu batetan. Gizarte-kultura kultur gizarte konkretutan zertzen da; eta, agian, odol gizarte edo biologi gizartearen (klan eta enda) eta batez ere geografia gizartearen eta histori gizartearen baldintzapetan, eta beretan konkretaturik. Beraz, gizarte kultura, gizonak elkartzeko baldin bada

ere, konkretuz, geografia barna eta historia zehar, kultur gizarteen elkargarri eta bestengandik bereizgarri bilakatu da era berean: giza-mailan elkargarri eta giza-mailan bereizgarri (26).

Kultur gizarte konkretu eta berezi horiei *Herriak* deritzate. Horregatik gizartegintza kultur historiaren konkretasunean *herri-gintza* bilakatu da; eta giza-kultura, Herri kulturak: hau da, Herri bakoitzak mundugintzari eta gizartegintzari bere erantzun berezia ematen die, bere teknikak sortu eta landuaz eta bere sinbolu sistimak asmatu eta zertuaz, holan herribidea irikiaz.

Herria kulturak sortzen du, eta herriak bere kultura lantzen eta burutzen; horregatik kulturagintza herrigintza da. Kulturaren "aurka" jartzen denean bereganatzen du *Herria* hitzak bere esanahi jatorrena, giza-esanahi sakonena: gaur maiz *etnia* hitzari ematen zaiona, alegia (27). Herri baten zientzi bideak, filosofiak, era guztitako arteak, erlijioak, ekonomi bideak, gizarte instituzioak, balio sistimak, legediak, etab., eta batez ere hizkuntzak oinarritzen dute Herri kontzientzia eta sendotzen herrikideen kultur elkar-tasuna (28).

Herria ta bere kultura ez dira behin eta betiko burutuak; eta horregatik, une bakarrean mugatu beharrean, beren historia zehar ikusi behar dira. Kultura gizagintza delarik eta bere agerpen-emaitzak gizatiarrak eta gizonarekin lotuak, komunikagarri dira, komunikatu egiten dira Herri baten historia zehar, belaunaldi bategandik besteari, hizkuntza eta beste sinbolu sistimen bitartez,

---

(26) BENEDICT, R., *Patterns of culture*, Routledge, London, 1968, 11-12 horr.: "What really binds together is their culture, the ideas and the standards they have in common. If instead of selecting a symbol like common blood hereditary and making slogan of it, the nation turned its attention rather to the culture that unites its people, emphasizing its major merits and recognizing the different values which may develop in a different culture, it would substitute realistic thinking for a kind of symbolism which is dangerous because it is misleading". Ikus baita ere: FREUD, *El malestar*, aip. lib., 31 ta 46 horr.

(27) Erderazko "nación" hitzak ba du holako zentzuren bat. Baina hitz horri sarritan politika-elkartearen edo Estaduaren esanahia erasten zaio.

(28) Ez dut esan nahi gai edo elementu guzti horiek beste herrienetatik bereziak eta bereizgarriak izan behar dutenik.

eta batez ere gizarte instituzioetan herrikide bakoitzak barneratu eta edaten duelarik (29).

Beraz Herri kulturak *tradizio* zentzua hartzen du, eta ohiturak beren alde garrantzizko bilakatzen dira: belaunaldi batengandik bestearengana komunikatzen den kulturaren sorkizun eta gai guztien tradizioa, eta urteak zehar Herrian zintzoki onartu eta betetzen diren ohiturak... Ez ezer egin gabe, noski, Herri bizi bezala eta kulturagintza jarraitzeko gogotan baizik. Hitz gutxitan, herri-gintza burutzen saiatzeko.

Orain, beste ikusera honetatik, Bidney-kin era honetan muga genezake kultura:

Kultura konkretu batez ari garela (idazleak "culture", edo kultura abstraktuki ikusia, eta "a culture", edo kultura konkretuki ikusia, bereizten ditu), zera hau adierazi nahi dugu: jokabide eta pentsabide bereziak, teorigintza eta ekintza molde bereziak, gizarte xede eta erakunde bereziak, eta baita ere kultur eginkizun hauek sortzen dituzten emaitzak: zera hauetan gizarte bakoitzeko kideek osorik edo zatika eskuar dezakete (30).

Herria ez da, beraz, indibidu multzo soila, gogozko elkarte baizik. Horrentzat eta horren bidez bizi da indibidua (31). Eta kultura Herriaren "odola" eta "arnasa" bezala iruditua izan da: beraz, Herriaren bizia.

---

(29) BIDNEY, D., *Theoretical Anthropology*, Columbia University Press, New York, 1964, 125. horr.: "There is, moreover, general agreement among social scientists that culture is historically acquired by man as member of society and that it is communicated largely by language or symbolic forms and through participation in social institutions". KLUCKHOHN-ek, bere aldetik, zera hau dio: "Le phénomène culturel n'est possible qu'à la faveur de trois caractéristiques de l'animal humain: ses facultés d'apprentissage, son aptitude à communiquer au moyen d'un système des symboles appris, et sa capacité de transmettre les comportements acquis de génération en génération" (*Initiation*, aip. lib. 241. horr.).

(30) BIDNEY, *ibid.*, 127. horr.

(31) Ikus: DAWSON, CH., *Progrès et religion*, Plon, Paris, 1935, 26. horr.



## Kultura eta gizagintza (32)

Kultura herrigintza baldin bada, Herriaren eginkizun da, baina baita Herriaren bizia ere eta Herriaren tradizio, Herri bakoitzaren biziera delarik (33).

Gizaki bakoitza, jaio ordukoxe, kultura konkretu batetan murgiltzen da nahi ta nahi ez: nor bere Herriaren kulturaren, alegia. Eta bere inguruko aidea arnasten duen bezala, bere Herriaren kulturak sortu duen giroan edaten hasten da. Berak ez dauka, bere Herria ukatuaz eta baztertuaz, beste kultura batetan bere gizatasuna osotzea erabakitzerik; bere gurasoek edo gizarteak beharko lukete holako erabakirik hartu. Dena den, gizakiak derri-gorrez kultura baten —eta ez berak aukeratua— egurats barnean sartua behar du izan.

Nor bere Herrian hasten da bakoitzaren gizagintza. Lehen gizona kulturabidean eta gizabidean abiatua zen, giza-kontzientzia eta baitaratzea iritxi aurretik ere. Eta hauetara heldu zenean ez zezakeen, noski, bere bilakaera uka, bere burua ukatu nahi ez baldin bazuen. Gizakume baten gizagintza eta kulturagintza ere hasia da gizartean sartu denez geroztik. Eta kontzientziara eta baitaratzera iristen denean bere kulturabidearen hasierak eta oinarriak baztertuko balitu, bere Herria edo gizartea ukatu ezezik, bere gizagintzaren oinarriak ere ukatuko lituzke, eta hutsune batetan eroriko. Horregatik ongi deritzat J. Apalategiren pentsakizun honi:

(32) Hau irakurriko duenarentzat oso irakurgarri deritzat R. ARREGI-ren honako idazki honi: *Euskaldunen gizagintza*, Rikardo Arregi liburuan, alp. lib. 171-205 horr. Bertan Rikardo zenaren zenbait konferentzia jasoak dira.

(33) Batek baino gehiagok botako dit, agian, Herri kultura mito besterik ez dela, gizarte-maila baten kulturak ez bait luke zerikusirik beste gizarte-mailaren kulturarekin. Ez dut ukatzen gizarte-mailen borroka kultur borroka ere ba dela; baina borroka horren gainetik edo azpian edo barnean —berdin zait— Herri kultura ba dela baleztatu nahi dut nik. Zein mailakoak diren Herri kulturaren agertzaille jatorrenak edo bakarrenak? Oraingo honetan ez dut horretan sartu nahi; zera bakarrik esango dut; Herri kultura Herri "langilearena" dela, lana bait da kultura... Tautologia bat, agian!



...gizona helburu honetara iristeko (kulturatzearen helburuak, alegia), norbera gizatiarki gizon sortu dan lurrean, gizartean eta Herrian jabetki itsastez hasi behar du (34).

Zein esangura du, orduan, Herri kulturak herrikide bakoitzarentzat? Zein harreman eta joera behar du izan gizakiak bere kulturari buruz?

Funtsean Kultura eta Herria onartzea, nork bere burua onartzea da, eta diren bezala onartu, noski: beste moduzko kultura eta Herri bat amestea eta asmatzea ere nork bere burua ukatzea izango bait litzake. Errealidadea den bezala hartu behar, ez nahi genukeen bezala; berdin kulturaren historia ere. Hala ere, kultura ta Herria errealidade historikoak eta biziak direlarik, ezin fosilizatuak eta hilak bezala har. Nork bere gizagintza herrigintza barretan eta neurritan eratu behar: eginkizun bezala, hain zuzen ere.

Honako bi joera hauen bitartean iruditzen zait dagoela herrikidearena, bere Herri kulturari buruz: bat, kultura "zihurtasun-sistimatza" hartzea da (35); bestea, ordea, S. Freud-ena litzake: kultura eta gizakiaren artean etsaigoa etengabea ari da; kulturak gizakiaren senak neurtzen eta zapaltzen bait ditu; eta gizakiak, kulturaren ondasun orokarra onartu arren, horrek ezartzen dion uztarria astindu nahi du (36). Batentzat zihurtasun-sistema baldin bada, bestearentzat zapalketa sistema da kultura (37).

Egia da, kultura gizakia inguratzen duen giroa delarik,

---

(34) J. APALATEGI, *Euskal kultura nora eta nola zuzendu behar dugu*, Jakin, 34.garrenean, 50 horr. Idazleak dioen bezala, norbere kulturari lotzeak ez du esan nahi norbere kulturean mugatzea eta istea; baina nor bere kultura beste kulturekiko idekipenaren ardatza liteke.

(35) Hau da Ortega y Gasset-en kulturari buruzko burutapena. Ikus: SANTAMARIA, K. *Euskal kulturari buruz*, Jakin 33.garrenean, 31-32 horr. Baita ere J. A. Kuitura eta dogmatismoa, Jakin 34.garrenean, 56 horr.

(36) Ikus: FREUD, *El porvenir*, aip. lib., 74 horr. Baita ere: *El malestar*, aip. lib., 60-61 horr.

(37) Beste bide eta ikusera batetik, azken ideia honekin ados izango lirake, kultura, indartsuek menpekoak zapaltzeko asmatu-rikiko ideologia eta harmatzat dadukatenak.

hutsunetik libratzen duela eta bere gizagintzako bidea argitzen dioela; baina horrexegatik lotura ere ba da. Baita ere egia da, Herri kulturak urraturiko gizabideak, asmatuak eta ezarritako giza-erakundeak, gizaki-aberekiaren sen askatuak estutu, mugatu eta menperarazten dituztela; baina horiexek berberak ez ahal dute gizakia bere gizagintzan zuzentzen eta bere giza-nahikundeetan bidetzen?

Hala ere, Herri kulturak herrikidearen giza-nahikunde guztiak beteko baldin badizkio, hori ezin haren aurrean ezer egin gabe aurkeztu, kultura erabat egina eta burututakotzat harturik. Kulturak herrikidearentzat, datoa izanik ere, asmoa (asmakizun) eta eginkizun behar du izan; gizona gizagintza den bezala, Herria herrigintza bait da, eta kultura kulturagintza etengabea. Herri kultura ez da aidean dagoen zera abstraktu eta absolutua,, herrikideek historia zehar egiten ari direna baizik.

Herri kultura ez da amets eta eredu abstraktua ere, herrikide bakoitzaren interesa baizik. Harek ez du zentzurik eta irtenbiderik gizagintza, herrikide bakoitza gizonago, egiteko ez baldin bada. Beraz, gure gogaketa luze xamar hau eginda gero, hasierara itzuli gara: hau da, kultura gizabidea eta gizagintza dela.

Herrigintza eta mundugintza, kulturagintza sailean elkar zeharkatzen eta gurutzatzen baldin badira, landa bateko koordinada bezala, gizagintzara zuzenduak behar dute izan, gizona eta gizakia bait dira kulturaren iturburu eta helburu: gizona da kulturaren ikusmuga edo horizontea. Gizarte kultura batek herrigintza abstraktu eta mundugintza beste hainbeste abstraktu, helburu absolutu bezala hartzen baldin baditu, gizakia zapaldua geratzen da. Baina benetazko kulturagintzan ez dago horrelako aparteketarik egiterik, mundugintza, herrigintza eta gizagintza, gizabidearen hiru saiets besterik ez direlako. Eta edozein Herri kultura, zerbait osotu eta batua izaten da, bizitzarik eta indarririk duenean, ikuspegi guztiak egitura batetan bärneratzen dituelarik.

Hemen ez naiz geratuko kulturarekiko estrukturalismo teoriaren xehetasunak aztertzen, baina bukatu baino lehen nahi nuke zertxobait aipatu, zer esan nahi duen kulturak egitura bezala eta batez ere balio sistema bezala.

Herriak kultura berezia asmatu, bidetu eta lantzean, alde batetik inguruaren baldintzapen osoari egokitu, eta bestetik gizonaren premia eta nahikunde guztiei erantzun betegarria eman nahi izan die. Horiek dira edozein kulturaren baldintzak eta eskeak. Baina kultura bakoitzaren barnean zerbait eraginkorrik ari dela dirudi, bere indar eta egite guztiak zuzendu eta aurrera eramaten dituenena. . . L. J. Luzbetak-ek kultura, gizartearen "bizierasmo" eta "egitamu" bezala ikusten du (38). Beraz, Herri kultura azterkatzean eta bere bideak, agerpenak eta gaiak biltzean, ez gaude sorkizun eta munduko nahastu baten aurrean. Pentsamolde, biziera, jokabide, ohitura, jakintza-, erlijio-, arte-agerpen eta kulturaren beste gai guztiek batasun osotua egiten dute, barneko asmo eta egitamu zehatzari jarraiki. "Barne-gogo" (39) horrek zuzentzen du kulturagintza eta honen emaitza eta agerpen guztiei beren egitura, zentzua eta tokia ematen. Baita ere horrexek ematen dio kulturari bere berezitasun sakonena, bere barneko itxura, bere kementa eta bizitasuna.

Barne-gogo, eredu edo asmo horiei jarraiki, Herri bakoitzak bere kulturagintzan izaki guztiei zentzu eta balio bat itsasten dizkie, kultura barnean zentzu-sistema eta balio-sistema berezi bat

(38) Batean faszismoan eroriko litzake Herria edo Herriaren agintariak; eta bestean, teknizismo eta kontsumozko gizarteetan. Hala ere, bai faszismoa eta bai teknizismoa eta kontsumismoa "kulturaren" izenean sortzen dira. . . H. MARCUSE-k ba du kontsumoko gizarte eta gizakiari buruz lan interesgarriarik. Ikus, adibidez: *El individuo en la gran sociedad* saiakera. *Política y cultura* liburuan. Ariel, Barcelona, 1970, 43-86 horr. LUZBETAK L. J., *The church and Cultures*, Divine Word Publications, Techny, 1963, 60 horr.: "Culture is a design for living. It is a plan according to which society adapts itself to its physical, social and ideational environment".

(39) "Elan du fond", deitzen dio Teilhard-ek; beste batzuek, "arima", "burubidea", "gogo", "filosofia", "indar-idea", etab. deituko diote, beren ikusera aldetik. Bide honetatik kulturaren azterketa egin duen antropologaririk aipatuena R. BENEDICT da, batez ere, bere *Patterns of culture* (hau da, "kulturren eredu-jarraitibideak") liburua bidez.

eratuaz (40). Eta sistema hauen arauera, neurtzen eta zuzentzen ditu bere biziera eta jokabideak.

Baina kultura aurren-aurretik bizia eta historia delako, ez daiteke izan behin eta betiko eraturiko sistema edo egitura hertsia. Egitura berbera moldatzen eta eratzen ari da etengabe, kultura gizartearen gainetiko zera absolutu bat ez delako, Herriaren eguneroko biziera eta gizonaren une oroko gizagintza baizik. Gizonak eta gizakiak, kulturaren egituran eta balio-sistiman barneratuta, barnetik eragiten dute kulturaren aldaketa, kulturaren dendun zahartua hausiaz eta beste dendun berri bat bilatuaz, balio eta gizanahikunde berri-indartsuen ohoretan. Hemen datza kulturaren krisia: bere egituraren aldagintzaren eta gizarte-gizakiak eragindako aldakortasunaren arteko borroka bezala, alegia. Esan ohienez, krisia biziaren ezaugarri ona da —ez ahantz kultura bizia dela— (41). Herri kultura kritikatu, erlatibizatu eta historia-barneratu beharra dago etengabe, bere absolutuaren zamaz zapal ez gaitzan; baina bere “barne-gogoarekin” zintzo jokatuaz, bere asmo eta ereduaren jatorriasunean, eta ideal, amets eta indar gizatiarragoen hegaletan: beti gizagintza helburuaren argitan, giza-oinarri eta helbururik gabe kulturak zentzurik ez bait du.

Gogaketa hau zehar, kulturaren esanahi ugari agertu dira, baina dena gizonagan, gizagintzan eta gizabidean bilduta. Fedeak gizaki kulturatu eta kulturadun honekin zerikusirik beharko du izan. Fedea *personala* delarik —gizakiaren eta Jainkoaren harreman zuzena, alegia—, giza-kulturagintzaren barne-barnean sartzen da. Hala ere, kultura herrigintzan eta mundugintzan gorpuzten da. Beraz fedea fededunaren Herriari eta gizarteari baldindurik gertatzen ote da? Eta gizonak munduari ematen dion kultura erantzunak,

(40) Kultura balio-eraketatzat bereziki ikusten dutenek ere ba dira. Ikus: MARROU, H. I., *Théologie de l'histoire*, Ed. Seuil, Paris, 1968, 138-141. hor. Baita ere: MOHAN, R. P., *A. Thomistic Philosophy of civilization and culture*, The Catholic University Press, Washington, 1948.

(41) Delako fede krisia, bai pertsonaren bai gizartearena, eta batez ere gizarte aldaketen garaitan zuzperten dena, ez ote da maiz erlijio krisia besterik izanen, eta erlijio krisia kultura osoaren krisia?

batez ere erlijioaren bidezkoa, fedeari ateak idekitzen ote dizkio? Dena den, kultura, bere osotasunean, fedearentzat oztopo, idekimen edo zuzpergarri ahal da?

Kulturak gizabideari erantzun osoa eman behar baldin badio, eta benetan kultura gizakiaren osokuntza bezala ikusten baldin badugu, fedearentzat tokirik edo hutsunerik geratzen ahal da? Fedeak ez ahal du gizaki kulturadunentzat zeresanik?

Fedea ez da kultur emaitza edo agerpena; kulturak bere egitura gizatiarra duelarik, eta bere barnetik dendunaren bila ari delarik, fedea ez ote zaio etengabeko krisiaren zuzpertzaille gertatuko —kulturabidetik at sorturiko krisia, alegia—? Hemen ote dago, beraz, fedearen eta kulturaren harreman eta loturarik biziena? Fedea, kultur balioa ez delarik, ba ahal du balio horiekin zerikusirik?

Planteamendu eta galdera hauek eta beste mila egin daitezke, agian, kulturaren “aurka” fedea jartzean...

## BIBLIOGRAFIA

- DAVENSON, M. H.: **Fondements d'une culture chrétienne**. "Cahiers de la nouvelle journée", 27. Blond en Guy, Paris, 1924.
- DAWSON, CH.: **Enquiries into Religion and Culture**. Sheed and Ward, London, 1953.
- DAWSON, CH.: **Progress and Religion, an historical Enquiry**. New York, 1938.
- DONDEYNE, A.: "Révélation et culture", **Au service de la Parole de Dieu**. Mélanges offerts à Monseigneur André-Marie Charue. Ed. J. Duculot, Gembloux, 305-335 horr.
- FABREGUES, J. DE: **Christianisme et Civilisation**. Ed. Gigord, Paris, 1966.
- GUARDINI, R.: **Christianisme et culture**. Ed. Casterman, Tournai, 1967.
- MARITAIN, J.: **Religion et culture**. Desclée de Brouwer, Paris, 1968.
- MARITAIN, J.: **Humanismo integral**. Ed. Ercilla, Santiago de Chile, 1947, 3gn. ed.
- MOELLER, CH.: **Fede e cultura contemporanea**. Ikus "La Chiesa e cultura moderna". Ed. Dominicane Italiane, Napoli, 1967, 134-169 horr.
- MOUNIER, E.: "Foi chrétienne et Civilisation", **Foi en J. C. et monde d'aujourd'hui**. 1949.
- NIEBUHR, H. R.: **Christ and Culture**. Harper, New York, 1956.
- NIEBUHR, H. R.: **Religion and Culture. Essays in honor of Paul Tillich**. Harper, New York, 1959.
- PARDINAS, FELIPE: **Cristianizar las culturas**. Ikus "Esquila misionarial", 10 zenb., 1966, 10-14 horr.
- SCIACCA, M. F.: **Cultura e anticultura**. Ed. Borla, Torino, 1969.
- SPIAZZI, R. M.: **Culture intellectuelle et sens chrétien**. Ikus "Actes du VI Congrès Catholique de Malines".
- SPIAZZI, R. M.: **La civiltà cerca Cristo**. Vita e Pensiero, Milano, 1949.
- TILLICH, P.: **Théologie de la culture**. Ed. Planète, Paris, 1968.

**USTE, JAKIN, SINETSI**  
peilo m. zabaleta

Gure egunotan berriro betiko problemen gogarte berria egia behar dugularik, fedeari buruz hitzegitean beriziki, komeni da puntuak mugatu eta zertzea. Berriro ere fedea zer den galdetzen diogu gure buruari. Sinestea eta sinestekeriak bata besteren ondoan dabilten une honetan, komeni da berriro zenbait puntu gertuagotik ikustea, Beti esan izan da, federik gabe —nolanahiko federik gabe, alegia— gizonaren bizitza inposiblea dela. Baina sineste eta uste eta sentimendu bata bestearengandik gertutxo daude bata bestearekin ez nahasteko. Gizonak bere segurantzia bilatzen du, absolutuaren edo absolutu delakoren baten aurrean: eta orduan zenbait puntu onartzen ditu, haietan bere bidea ikusten duelako, edo bere zihurtasuna. Halakorik balitz fedea, orduan ere izango luke bere balioa, gizonen egite edozein bezala. Baina, beste zerbait da fedea, beste konzeptu batzuek erabili behar dira fedez hitzegitean. Gizona gaur ere fenomeno horren aurrean topatzen da. Eta edonork ikusten du ez dela fenomeno hori beste edozein fenomeno bezalako bat: pertsona osoa konprenitzen duen zerbait dela, eta haren aurrean begiratu eta pasa egiterik ez da-



goela. Baiezkoa edo ezezkoa, fenomeno honen aurrean, erantzun esitentziala da.

Bestalde, baita ere, ikusten ari gara gaur fedeak duen problematika. Jakintzaren aurrean, zientifiko den edo ez den. Nola den zientifiko, etab.. Problema gehiegi ditu fedeak horrialde hauetan kabitzeko. Horregatik, lantxo honen xedea hauxe da: fedeaz gaur dagoen problematika aurkeztea, noizbehinka, hemen eta han soluziobide batzuek erakutsi, sarri problema bereberean utzi.

Izenburuak berak dioenez, lantxo hau hiru ataletan partitua joango da. Lehena, *usteari* emanen diot. Bigarrenean *jakin* zer den aditzera ematen saiatuko naiz. Eta hirugarrenean, *fede*a izanen da nere jarduna. Hau da nagusiena, neretzat. Baina ez tratadu bezala: perspektiba bezala soilik, eta muga horietan geratuko da.

## I. USTE

Uste dut... Iruditzen zait... Zehaztasun handiagorik ezin eman genezake. Hala ikusten du, bederen, herriak, eta haren ahotik osoki ezezagunaren ideia dator.

Uste, halere, uste mota asko dago. Zientzian usteak bere balioa du. Gauza zenbaiten adigarri, ustea azaltzen da: erlatibitatearen ustea, adibidez, edo beste zenbait uste edo teoria. Zenbait fenomenuen adigarri, haiek esplikatzen dituelako teoria bat eraikitzen da. Ez du horrek esan nahi, teoria hori egia frogatu bat denik: esan nahi du, esan nahi duen huraxe xuxenki eta bakarrik: agertzen diren fenomeno haiek esplikatzen dituela. Teoriari ez zaio besterik eskatu behar. Gaur egun, zientzia lanean, lana burutzeko derrigorrezko dira teoriak edo ustariak.

Gerta ohi da bestela ere: Kultura batean daudelako, harekin

kateaturik datozen zenbait gauza onartzea, edo agian kultura hartakoen begietan fenomenuen aditzaile legez azaltzen direlako. Orduan ere uste, iritzi dira.

Zenbait aldiz galdegin izan diodan nire buruari Jainkoaren problemaz aritzean, ez ote dugun maiz Jainkoaren problema, zientzia eta ustearen arteko hesietan zintzilik utzi. Alegia, Jainkoa ustari gertatu dela, uste dut —ez nago, beraz, zihur— Jainkoa gauzen esplikabide ipini izan dugula. Ta Jainkoaren Probidentzia batez ere, Aduaren kaketik esegiaz. Izan ere, Jainkoa ba dela frogatzeraino hel gintezkeala diote dogmak, Vaticano I kontzilioak bereiziki, eta gainera gauzen bidez ager daitekela Jainko bat ba dena. Baina nola? Gauzen esplikazio bezala ipintzen badugu, teoria bihurtzen dugu Jainkoa, nahiz eta haren ondoan metafisika egin. Hala, gaur ere zenbaitek zientzia eta fedearen arteko problemaz hitzegin nahirik, Jainkoa “atzeraka” doala esaten digute, eta jakintza binbitartean tokatzen zitzaion tokia hartzen ari dela (hemen jakintza fisikoa hartzen da oinarri, besterik ez legoken bezala). Jainkoarekin esplikatzen zituenak, zientziarekin esplikatzen ditu orain gizonak. Baina, ez digute honekin ezertxo ere esan. Apriori bezala, ba dirudi honen ostean triunfalismo apur bat ere izatea, alegia: zientziak ez ditu fenomenu guztiak esplika ahal izango, eta geratuko da oraindik beti zirristoren bat Jainkoarentzako. Orduan, Jainkoa ideologia bilakatu da. Orduan Feuerbach-ek arrazoi zuen. Fenomenuen esplikatzaile, Jainkoa bera fenomenu bilakatzen da. Jainkoa Jainko ez, baizik gauza hauen gaindiko *gauza* edo zerbait da. Fenomenua azaletik doana da, mamia ere zertzen duelarik, noski, baina fenomenua beti izanen da izatearen gaindiko azal bat. Iruditzen zait Jainkoa derrigorrezkoa dela, baina ez Jainko esplikatzailea, aditzera ematen ari den norbait edo zerbait, Feuerbach-ena ez dudalako onartzen, ez dudalako uste Jainkoa gizonaren beharrak —edo sufrimenduak, edo gerobeharrak, edo agian gauzen esplikatzeak— sortu duen zer-

bait dela. Horregatik Kant-i arrazoi emango nioke San Tomas-en kontra, San Tomas zenbait tomistek esplikatzen duenera ekartzen badugu, alegia —eta Kant-en garaietan Cajetano zen hemen nagusi—: mugatutik ezin daiteke mugarikezera igaro. Pauso faltso bat da. Baina San Tomas-ek beti ere, lehenengo kuestiotik hasita, analogiaz dihardu, eta Jainkoa ezagutze positibuaren ezinaz; eta ez zait hain erreza iruditzen San Tomasen urrengo kuestioan ezin hau alde batera uztea. Irtenbide bakarra, nere iritzian, izan eta izatearen arteko bereizkuntza garbian dago, izan eta esistentziaren arteko bereizkuntza garbian. Izana berberean dena da, besteren beharrik gabea. Esistentzia edo izatea alderantziz beste batekin lotua dago. Izana eta izatea alde batetik ipintzen ditu, ez bait dut hemen esistentziaren aipatu nahi. Izatetik izatera joatean dago koska, nola joan daitekeen, edo nola joaten den, metafisikaren bidez hala fedearen bidez, edo agian zientziaren bidez.

Ustea, iduri impersonala da. Jeneralizatua, azterketarik gabea. Esana da ustearen oinarria. Azientifikoa da. Baina era berean onartua. Ustari hauek kentzen ari geralakoan, berriak altxatu ditugu egun mitologia berri baten atarian. Gauzak argi ta garbi baileudelakoan, zientzia azientifikoki onartzen dakigu, hitz lodien artean egi melarra ezin gorderik. Hau ere ustari da. Izan ere, handik edo hemendik zihurtasuna eta seguridadea eskuratu nahi ditu gizonak. Lehen oinaztarrean Yahweh ikusten bazuen, edo Santa Barbara zaindari ipintzen, orain zientziak erakutsi nahi liguke guztia, oro gizonaren eskuetan ipiniaz. Hiru jakitun maila onar genezake: jakintsua alde batetik; ezjakina bestetik; eta bata eta bestearen bitarteko bulgarizatzailea. Gizartean zehar doaz ideiak hedatuaz, eta gizon ezjakinak ikasi duenari damaio arrazoi, harek jakin behar duela. Ez dakien hartaz hitzegitean, zehaztasunik gabe hitzegiten du ezjakinak. Baina, orduan ere bere jakintza jeneralidadetan zehar doalarik, uste osoa dakienaren sorbaldan

ezarriko du, harek argi ditzan jeneralidade honen mugak, joskerak eta konponketak.

Halaz ere, ustea gauza intelektuala da. Buruari zuzendua da ustea. Edo buruak esana. Intelektual mailan geratzen da, berez; nahiz eta egitan handiko ta hemendiko indarrekin josia egon —gizona *dagoen* horretatik sortzen dire usteak, gizona ere mundu batean, herri zehatz batean bizi delako; bere aroko seme delako—. Ustea gizarte batean sortzen da jeneralean, nahiz jakintsuen artean usteak ere izan —uste baino, iritzi nahiago nuke, ze iritzi hauek, egiak desberdinak, edo hareago kontrakoak, fenomenuen esplikabide bat ipintzen direlako, baina fenomenua bere berean onartuaz gero—. Usteak osoa eskuetan hartzeko kemena du, hots, osoari esplikazioa eman nahi dio, zihurtasun osoarekin, ez koskarik ez zirriztorik utzi gabe. Zeren, ustea eta utopia bata bestea-gandik oso gertu daude.

Ustea, hareago, sentimenduarekin korapilatua dago. Ez da bakarrik burutapen bat, gogo bat, amets bat. Hareago instintu antzeko zerbait da. Ta usteak ere segurantzia eman nahi luke. Osotasunaren susmo indeterminatua, zehaztasunik gabea daduka bere. Ez du galderarik egiten, zihur denak galdetzen ez duenez; Aberatsak ez du inoiz galdetzen: izanen ahal dut bihar bazkari-rik? Aseta geratzen da usteduna. Baina erraz alda daiteke ustea, modaren arauera. Pertsonalitate baten itzalpean sortzen delarik, pertsonalitatearen esana akritikoki onartzen da, beti ere bulgarizatzaileen bidez. Eta munduak halako asko sortzen ditu urtero. Halaz ere, herri baten hizkuntza uste batez jabetzen denean, atso-titz bihurtzen duenean, usteak urte luzeak izango ditu. Eta uste berri bat sortu orduko, izugarrizko etsai bolarak, eztabaidak, agian, borrokaldiak ekarriko ditu. Zeren, ustea kulturaren muinarekin kateaturik egin daiteke. Eta uste berriaren aurkako reazioa fanatikoa izango da: ustea buru ta bihotz delako.

## II. JAKIN

Jakintza mota asko dago, eta segun ze jakintza, halako metodologia erabiltzen du. Ez dute jakintza guzietan metodo berdina erabiltzen. Batzuek zehaztasun osora jotzen dute, gauzak argi ta garbi ikusiaz, oharikasi edo esperiantziaren bidez; beste batzuek zehaztasun handiena nahirik ere, urreratu bakarrik egiten dira, egia osoa ezin lor bait dezakete. Lehenengoan artean teknikoak sartu ohi dira, nahiz eta haien artean hainbeste postuladu eta teoria izan. Bigarrenen artean "espiritu zientziak" ipintzen dira, hala literatura, filosofia, soziologia, psikologia, etab. Hoen artean teologia bera ere. Hoek ez dute egia osoki hesitzen. Beti urreratu bakarrik egiten dira. Gaur oraindik, gizona hertsu ez bitartean. Ze gizonaren adimenak ez du beste gizon baten edo egoera edozein edo gertaeraren sakon agortezina beretzen. Ezin duelako. Psikologian, esaterako, "Behaviour" eskolako freudianoei horixe botatzen die aurpegira: azientifiko direla, eta apriorikoak, estadistikarik gabe lanegiten dutenez gero. Baina freudianoak zientifiko ez direneik ez luke gaur ia nehork ukatuko. Baina, non da jakintzak bilatu nahi lukeen zehaztasun oso hori? Pawlow zientifikoagoa zen. Baina txakurrekin.

Jakintza argi ta garbia eskatzen dio *J. A. Robinson*-ek bere "Honest to God" liburuan teologiari ere. Metafisika ukatzearen garai honetan filosofia berria erabili dezala teologiak ere. Arrazoizkoa da, egitan, gaurko filosofiaz baliatzeko eskabide hau, zeren eta joandako gizaldian "neoeskolastika" hasi zelarik nominalismoaren aldia teologiak utzirik, hari atxiki zitzaion, eta hantxe ere geratu sarri. Gerora beste mogimendu batzuek erne ziren, eta gaur astiro nagusitzen doaz. Baina eguneko pentsamoldea jarrai ezinean ibili ohi da teologuen pentsamendua, filosofia ibili den eta dabilen bezala.

Eguneko zientziak zihurtasuna nahi du. Horregatik, positibu hutsa bihurtu da, maiz astraziorako ardurarik gabea —astrazio ez da alienazio—. Ta egungo gizonen artean sarri idoro daiteke tekniko oso onarekin pentsalari oso txarra batera. Torniloak ondo ipintzen dakienari ere, beste guztiei bezala, noski, nunbaitean tornilo bat galdu zaio. Ta hala, “espiritu jakintza” hobby bilakatu da, norberaren ardura, edo beharbada premia. Ta orduan, lotan zeuden problema berri zenbait agertzen dira; jakintza esperimantalaren zihurtasuna bera aurkitu nahiko litzake beste era bateko den jakintza horretan ere. Eta ez dago halakorik aurkitzerik, ez bait dira egiak edo fenomenuak manejatzen: aitzitik, topatu ala interpretatu egin behar dira.

Interpretatu diot. Baina interpretatzeko zerekin edo nolabaiteko arauari begira interpretatu ohi dira gauza eta fenomenuak. Hau da, aurrez presupostu batzuek onartu dira —kritikatuz gero edo kritikatu gabe— eta haien arauera saiatzten da gizona, agian, intelektuala, fenomenuak interpretatzen. Interpretazio hau zientzia bat da. Baina beste tipo batekoa. Interpretazio hau ez da hitz berriak erabiltzean soilik geratzen: gaurko problemen aukerako soluzio berarizko bat ematekotan, mamiraino bertaraino doa, edo joan behar luke interpretazioak. Bestela lehengo liburu argitaratzen bezelatsu jardungo genuke: hitzaurre berria ipini, han eta hemen horrialde batzuek aldatu, edo inprentako tipoak berritu. Baina liburu berdina izango litzake beti. Interpretatu berritu da, eta ez azal berria ipini bakarrik, edo adabakiak han eta hemen josi: pentsamolde bera aldatzea, eraberritzea da, zimentarri beraren gainean etxe berria jasotzea, gaurkoa, gaurko galderenganako bide aproposa idekitzea. Edo hareago, galderentzako erantzun bilaketa lehiatsua da intelektual lana, ez aurretik erantzunak paratuta edukitzea, galdera artifizial batzuentzako erantzun aspaldi-koak izanik halako erantzunak.

Jakin buruak daki, eta arguimenduen bidez egin ohi da.

Edozein logika mota erabili arren, nahiz logika dialektikoa, nahiz silogismoa, nahiz kontradiktorioen bidez jokatu, nahiz kontrarioekin jardun, zenbait puntu akritiko, edo behintzat onartu, erabiltzen ditu jakintsuak; oraindik orain puntu bakar batetik jaioko den sistema amets bakarrik bait da. Logika hori eguneko hitzetan erabiltzen du jakintsuak. Beti dabil, ordea, hitz bila, non ote dagoen hitz aproposa asma ezinik. Eta azkenengo pontua idatzi orduko jakintsua saminez dago, erran nahi zuena hitz haietan kabitu ez zaiolako: hitz haiek bide erakusle gertatu dira. Egia da, horregatik, lerroen artean irakurtzen ikasi beharra, esan nahi lukeena asmatzeko, ez bait dezake inork argi ta garbi pentsatzen duena osoki eman. Hitzak pentsamendu bera lotu egiten du, eta hain zuzen lokarri motz batekin. Eta beti nabariko du jakintsuak bere eskua lotzen duen hitz hori. Ta hiztegi osoa aztertu ondoren, total geratuko da, ezin bait dezake bere pentsamendua lerrotara irauli. Eta azken finean, umeak bezala, hitzak eta eskuak eta aurpegia eta oinak agian erabili beharko ditu bere pentsamendua ahalik eta zehatzen emateko.

Gizaldi bakoitza bere erataz baliatu izan da. Eta gaur ere guretz baliatzen saiatzen da. Izan ere bakoitzak bere albokoari esan ohi dizkio dakizkienak. Ez da iragan garaietarako idazten. Agian, ilusio eta amets, geroarentzako. Baina berariz herri bantentzako. Horregatik ezin harritu gintezke Herodoto batek kondaira zelakoan hamaika ipuin sartzen badizkigu; ez Platonek Sokratesen ahoan hainbeste txatxukeria ipintzen baditu; ez San Tomasek hegohaizeari hainbesteko garrantzia ematen badio; ez Marxek ikazkinen begiak ere komunismoaren bidez aldatuko direla esaten badigu. Mitoaz, ametsetaz, usteaz, iritziaz, hitzez baliatzen da jakintsua dakiena izateko. Honetaz edo haretaz baliatzen delako, ez da horregatik txikiagoa bere jakintza. Izan ere, hitz dagien edonor teatrogile da, zerbait esan nahi badu clown bihurtu behar du, munduko teatro honetan.



Jakitsuak argitu egin nahi du. Bere arrazoiak buruari zuzentzen dizkio, gauzak esan nahi ditu. Berariz, ez dio bihotzari garrantzirik ematen. Berariz arguimenduak azaldu nahi ditu, besteek ere ikus dezaten. Ez du ideologiarik egin nahi. Ezagunetik ezezagunera abiatzen da, ezagun horren bidez —ezaguna delarik, onartua ere, premisa bezala ipiniaz— ezagun ez den haretara doa hura argitu nahiez. Hala dabil bila jakintsua. Bere jakintza ez da, halaz ere, osorik beretzakoa: gizartean hedatuko du. Eta nahiz jakintsu hura izan gai haietzaz gehien dakiena, beste batzuek ere zerbait jakin dezateke. Besteen esanak, haren esanetan topatuko dute orduan oinarri. Ta hauek ere jakintsu izanen dira. Eta herria bera jakintsuago izanen da. Neurri batetan, noski. Baina jakintsu.

### III. SINETSI

Hasiera-hasieratik erran behar dut fedea beste ideiak, beste usteak, beste bizi moldeak bezalaxe hedatu dela. Komunismoa zabaldu den bezalatsu. Indarrez, sozial erakundez, gizonen influentziatziaz baliatu dela. Gudu egin duela. Nagusiekin uztartu dela. Jendea zapaldu egin duela. Beste edozein ideologiak bezalaxe. Sinesteaz balia izan dela jendea zenbait alukeria zuritzeko. Ameriketara ere, ezpatarekin eta gurutzearekin joan zirela, ezpatarekin ezinean gurutzearekin burua zanpatuaz. Sinismenaren izenean Galileoren eguzkiak lurrari bueltak ematen jarraitu zuen, sinismena irakurtzen zekitenek antieju berriak erosi zituzten arte. Fedearen makinak makina bat gauza esan omen ditu, esaten omen ditu, esango omen ditu, entxufatu orduko. Halaxe ibili da, edo ibili gara fededunok, ideologia eta komenientzia guztiakin nahasturik, gure fedearen testigutza ematen. Beste edozein ideologiak bezala. Eta sekula guztietan halaxe izanen da, fedearekin eta ideologiekin, azkenengo sekulorunaren atzetik amen esan arte.



Baina ez da sinismena bere testiguekin nahastu behar, nahiz eta testiguaren tokia garrantzitsua izan, nahiz eta testigurik gabe federik izateko modurik ez izan. Fedearen sasi testiguak izan dira maiz fede hori bera xahutu dutenak. Atzo, gaur, eta bihar. Beste edozein gauzatan legez, testigua ankazgora doanean, ankazgora doa baita ere sarri haren hitza, ta haren hitza baieztu nahi zuena. Sinismenaren lokarri huts zirenak, sinismen horren sostengatzaile bihurtu izan dira: latina, misterioaren aho beltza bilakatu zen, eta latina zekitenak misterio horren jaun. Latina ankazgora joan zenean —otarre bait zen, eta ez lore— askok lore eta guzti jaurti zuten beren otarrea. Testiguak fedearen barnean garrantzirik badu, ez du gutiago fedearen alboan, sozial aldetik alegia. Ez litzake halere, inoiz nahastu behar fedea fedearen testiguarekin.

Baina fedearen oihalaz ari naiz oraindik, ta fedea zer den azaltzea da nere lanaren xedea. Sinismenaren soziologia garrantzizkoa bada, fedea zer den oraindik garrantzizkoago da.

Bi atal ditu fedea: Norbaitek Zerbait sinesten du. Beraz, Norbait horren jokaera, eta egoera aztertzea, premiazkoa da. Ta gero, zer sinesten duen ere, edo sinesten duenaren balioaz hitzegitea ere.

### **Norbaitek sinesten du**

Fedearen definizio bezala haxe jarri ohi da jeneralean: Norbaitek esan duelako, zerbait egiazkotzat onartzea. Norbaitek esatean, lehen pausoa Norbait hori onartzea izanen da. Eta Norbait hori ez fedearen bidez, arrazoiaren bidez baino. Horregatik testigu bat behar du fedea. Baina nor da testigu hori? Eta gaur, oraindik, nola dakigu testigu horren berri?

Jainkoa bera bere buruaren testigu ipini ohi da. Jainkoa ba dela dakigulako eta froga genezakeelako. Izan dela bakarrik ez: zer izan den, eta gurekin harremanik ez duen personaia edo gau-

zarik ez zaigu interesatzen. Nahiz personaia hori Jainkoa bera izan. Horregatik, aurren pausoa, filosofiaren bidez eman ohi da. Filosofia hutsaren bidez? Ala, hemen ere ez ahal du fedea zer ikusirik?

Fedea persona bat onartzen du. *Zu* bat, *Zu* horretan norberaren konfiantza ipiniaz. *Zu* hori onartzerakoan bertan, sinesten ari dena, bestearen eskuetan geratzen da, baina beti haren testigutza onartzen duelako. Horregatik, erlijioso bizitzan *Zu* hori onartzean, *Zu* hori testigu ipintzean, harek esan duen oro sinesten du fedea, esaten dituenen arteko lokarria norberak ez ikusi arren, edo esaten duenaren muina ez ikusi arren: Testiguaren gain dator orduan erantzukizuna. Baina haretarako, ez da edozein testigu egokia: testiguaren sinesgarritza bera aztertu behar da lehenik, gero harek esaten duenari baietz osoa eman ahal izateko. Testiguak bere burua zuritu behar du, sinesgarri gerta dadin. Baina halaz ere, testigutza osoa izanik ere, beti izanen da arrisku testiguak dionari baietz osoa ematea. Arrisku, zeren, ez bait da esaten duenaren arrazoi osoa ulertzen: Konfiantza problema da.

Sinesten ari denaren baitan fedea apriori bezala gertatzen da. Apriori, zeren haren arauera ikusiko bait ditu gertakizun guztiak. Hala esango du Bibliak: sarri eta era askotan hitzegizien Jainkoak gure arbasoei (Heb. 1, 1). Baina era eta gertaera horiek interpretatu egin behar ziren. Interpretatzekoan, bada, zegoen koska. Batzuek era batera eta besteek bestetara ulertuko zituzten gertaera haiek. Jesukristo berarekin gertatu zen eta gertatzen den bezala. Batzuek Jesukristoren egiteetan eta bizimoduan Jainkotasuna antzeman zuten; beste batzuek, alderantziz, gizon bat ikusi zuten, agian erlijio kontrako bat, ateo bat, biraoka ari zen bat, eta haregatik hilko zuten. Izan ere, ez da erraza testiguaren joeran bertan haren hitza onartzea, haren eskuetan erortzea. Era eta aldi horiek ulertzean, apriori batzuek sartzen dira, eta leialtasunik haundienarekin jokatu nahirik ere, ezin libra daiteke

gizakumea, bere kondizioetatik. Bere historiarekin, bere hitzekin onartzen du edo ezesten du beti gizakumeak. Eta testiguak berak ere hitzeging behar du, hau da, zer nahi duen aditzera eman behar du. Eta hau berau, gizakideek ulertzeko moduan. Testamentu Zaharrean Jaungoikoak berak hitzeging zuen, era eta aldi bereizietan; baina hitz hura ulertu egin behar zen: salbazio kondaira da Jainkoaren hitza, Profetak dira bereiziki interpreteak. Ta egite horiek burutu zituen Harengan ipini behar zuen Israelek bere konfiantza osoa.

Fedea ez da, beraz, soilki intelektuala. Ez da halaz ere irrazionala. Testiguaren indarra eta egititasuna onartzeko buruak eta borondateak beren tokia dute. Baina fedea bestalde, *emana* denez, doia bait da, bizitza osoa lotzen du. Ez da jakitea soilik, ez eta ere ustea: sinesteak bizitza bera ere zuzendu behar du eta. Ez fedearen indarrez berez gizatiar diren gauzak hobeto egiteko argia ematen duelako, baizik eta joera bera aldatzen duelako. Gizonaren zergati ontologikoak aldatzen dituelako. Beraz, egiazko fedea ez luke gizona alienatu behar, hau da, beste arrazoi eta esperantzak ematen dizkiolako, edo Jainko guztiahalduna onartzen duelako, ez lituzke erabaki guztiak haren eskuetan utzi behar. Fedea indarra da, baina indar hau mundu honetarako da, beste munduan ez bait da federik izango, ikusi eta jakitea etorriko bait zaio gizonari. Baina, EGIA bakarrik izanen balitz fedearen gaia, orduan jakitearekin desagertuko litzake fedea. Sinestea EGIA baino luzeago da: beste munduan lortu duelako, hau da, itxaron zuenaren osokizuna idoro duelako desagertuko da fedea, eta ez bakarrik ikusi edo jakin duelako.

Testamendu berrian Jesus izango da fedearen testigua eta bera ulertu dutenak ondoren. Baina Jesus testigu osoa izanik ere, bikoitza da. Bere garaiko jendearen reazioak ikusten baditugu, eta gaur oraino bikoitz da. Jesus nola ulertzean, oraindik kulturak bere garrantzi ikaragarria du. Beste ideologia edozein legez hedatu

delarik, batzuek onartzen dutelarik, haien anparoan beste askok ere onartuko du. Eta era berean, haren kontra daudenak beste asko komentzituko dute. Beharbada haxe da fedea zer den adizera emateko hitzik egokiena: *gomenzimendua*. Ez bait da gomenzimendua arguimenduetatik bakarrik sortzen, beste arrazoien bidez ere sor daiteke gomenzimendu hori. Arguimenduekin ere. Baina frogatzeak ez du sarri gomenzitzen. Maitasunak ere gomenzitzen du. Beharrak ere gomenzi dezake. Ohiturak ere bai. Eta zergatik ez gurasoen esanak? Baina azken puntu hauek nola gomenzi dezakeen esaten dute, ez nolakoa den gomenzimendu hori.

Pertsona osoaren muina hartzen du fedea. Gizonarentzat absolutu den horrek pertsonaren izatea bera arduratzen du. Mila arduren artean, ardura absolutu batek darama gizona, azken eta absolutuaren antsiak lotzen du gizona. Pertsona osoaren muinaren egite bat da, beraz, fedea. Ez da pertsonaren atal baten, edo aldi baten eginkizuna: gizonaren ahalmen guztiak hartzen dute parte fedean.. Hobe: izate beraren egitea da. Noski, gizonaren ahalmenak ere parte hartzen dute, baina funtzio hoiek gainditzen dituen osotasunaren eginkizun, edo agian, hobe, izate da, eta izatearen arauera, berak zuzentzen ditu beste egite guztiak. Baina, pertsona osoaren izate delarik, pertsonaren indarrak oro ari dira han lanean: horregatik ezin esan daiteke zehatz honegatik edo haregatik sinesten den: kultura, azpi-indar, influentzia mota guztiak dute parte ta marte sinesteko unean. Baina fedean ere hainbeste influentziek parte hartzen dutelarik, non da libertatea? Problema hau, nere iritzian, problema faltso bat da: fedea pertsonalitate muinaren izate bada, askatasun kondizionatuarekin bat egiten du. Kondizionatua, esan dut: hain zuzen, gizona bera nolabaiteko neurrian kondizionatua dago, eta gehiago eta gehiago kondizona daiteke, Pawlow-en teorien arauera. Baina fedea, pertsona osoa besarkatzen duen egite muina izanik, baldintza hauek denak gainditzen ditu, pertsonaren egiteak oro gainditzen

dituen eran, edo pertsonaren ideiak eta hitzak gainditzen dituen bezala. Inkosziente ere ba da, baina ez da erabat inkosziente: ekstatikoa da, hau da, norbere gaindik dago, edo norberegandik at, norbera izaten irautuz beti. Pertsonaren izate osoa, ohartua, ezohartua, non eta noiz, ari da sinesten. Pertsonaren ahalmen guztiak parte hartzen dute, haietako batera hertsu ezinik: izan ere, orduan pertsona bera moztuko genuke. Eta fedea berez, pertsonaren bizitza eta izatea bezain zabala da, agian, pertsona beraren mugagabetasun mugatua.

### **Fedea = ezagumen?**

Beti ere, fedea ezagumenarekin nahastu izan da. Gizonaren izatea bera ahalmenetako batera hesitzen bada, ez da gaizki esana. Horixe bera hain zuzen, ez da zilegi: pertsona bere ahalmenen suma baino ere gehiago da. Fedea ezagumen bihurtzean berehala beste problema bat sortzen da, alegia: fedea eta jakitea, nolatan konpon daitezke bi hauek? Jakiteak argi osoa nahi du. Eta orduan bi ebidentzia tipo agertzen dira: jakiteak osoa ematen digu; fedea ordea tipiagoa. Hau da, fedearen definizioa bezala "zerbait egizkotzat onartzea" ipintzen da, eta *egizkotzat* hori, "*egia bailitzan*" esan nahiarekin nahasten. Izan ere, ebidentzia osorik gabea delarik, ustearen pare jartzen da fedea, edo teoria argitzaile bezala. Edo agian, hala agintzen digutelako. Eta orduan fedea agindu hoienganako obedientzia bihurtzen da. Eta orduan, fedea konfiantza da bakarrik. Atal bat den hori, konfiantza alegia, muin bihurtzen da. Halaz ere, ba du agintek bere zeregina: gure konfiantza dakitenen gain uzten dugunean, ez dugu zentzugabekeria bat egiten, zeren horrela ez eginik gure lanaren posibilidadeak urritu egingo lirake; alderantziz, gure jakintza hedatzen da, haiek esaten digutena onartuaz. Baina hau ez da fedea, fedearen sostengu bat baizik. Horregatik, sinesmen eta jakintza

eta konfiantza ez dira nahastu behar, sinesmena ez bait da ezagumen mota bat, nahiz ezagumen hori apriori edo jakintza ebidentzietan oinarritua egon; ez eta ere aginte batenganako konfiantza bezala ulertu. Hoiiek atalak eta sostenguak izan daitezke, baina ez fedea bera. Jakintza eta fedearen arteko problemarik gehientsuenak hemendik sortu dira: jakintzaren zihurtasun osoaren aurrean, fedearen iluntasuna aurkezten zen, baina iluntasun horri zihurtasuna aginte edo autoridade batek ematen zion. Eta orduan razionalismo arrazional baten bidez, honela frogatu nahi izaten zen: jakintzan gizona mugatua dabil, eta mugatua denez gero, atzipe daiteke. Fedean, ordea, Jainkoaren argia eta zihurtasuna dabil. Beraz, nahiz eta jakintza aldetik gizonak argi nabariagoa izan, fedearen aldetik zihurtasun objetibu absolutua du. Jainkoaren hitza bait dabil bitarteko, eta Jainkoaren hitzaren ulertzaile eta gordeleku (*depositum* hitza erabili ohi da teologian) Eliza da, eta Elizan oraindik bereiziki hierarkia. Azken puntu hau faltsoa ez bada ere, ez da osoki egia: hemen ere fedea eta jakintza erabateko bezala onartzen direlako (hau da, sinonimukide bezala behinik behin), eta jakintzaren ebidentziaz (hau da, nabaritasun argi ta garbiaz) hitzegiten delako. Ta horri ematen zaio garrantzirik handiena, fedeko trataduetan beste gaiez ere hitzegin izan arren. Oraindik argiago: fedearen eta jakintzaren arteko bereizkuntza zihurtasunetik atera daiteke. Jakintzak zihurtasun osoa ematen du, guk sentitzen dugula zihur izanen da. Edo hareago logikak ematen duen zihurtasun osoa da. Baina zihurtasun hori konkretuarena da, "honena"; osotasuna, osotasunean-aren ebidentzia osoa ikus eta uler dezakeenak du, Jainkoak alegia. Fedearen zihurtasuna, alderantziz, esistentziala da, bizitzazkoa, hau da, fedearen zihurtasunean gizon osoak du parte. Eta hemen ez dago ebidentziaren problemarik: problema, izan edo ez izanaren oharikasian dago. Fedea ez da, *egizkotzat* hartze hutsa, edo ebidentzi maila desberdinen artean nahasmahas dabilen sasijakintza.

## Fedea=nahia?

Beste problema bat izan du fedea nahiarekin uztartua izan denean. Fedea zerbait "egizkotzat" onartze bezala zertzen denean, argi faltaren osagarri nahia ibili ohi da. Boluntarismo honek bide luzea egin du teologian, fede obedientziaz hitzegiten denean, maiz aginduari jaramon egitea esan ohi da, aginduaren indarrak ulergaitzaren ezina kenduko balu bezala. Fede obedientzia diof: izan ere, bi esanahi izan ditzazke kontzeptu honek, alegia: Fedezko obedientzia, hau da, goitik sinesteko agindua sinestea; edo Fedearenganako obedientzia, hau da, zerbait fedezko ikusten dugunean, haren esana jarraitzea, nahiz eta haretarako gogorik ez izan. Lehenengoak gizona alienatzeraino eramane dezake. Bigarrenak, alderantziz, berariz gizatiar dena, hau da, gizonaren egiazko izateari dagokiona betetzera, egiztatzera behartzen du gizona. Behartu, agian nahiaren bidez; eta orduan bai, ba du zereginik nahiak, eta gizonak, gizon izan nahi badu behinikbehin, obedientzia osoa zor izango dio fedeari. Hareago, beti esan ohi izan denez, ezin inork behar dezake nehor sinestera, ez aginduak, ez beste norbaitek, edo edozerk. Norberak erabaki beharko du, egiazko errealidadearen aurrean, edo egiazko errealidadearen bidez berak sinesten duen edo ez. Horregatik, baita, edozein pekatu, esan ohi da, sinesgabekeriatzat jotzen da, errealidadean bertan bere sinestea ezezten delako.

Nahiak ere ba du, ordea, bere lekua: baina gizonaren izatearen atal (atal izendatuko ote dugu?) bezala, eta ez ezagumena ezinaren daitekentasunaren zuritzaile bezala. Teologiak, halere, sinestea graziaren egintza eta dohain dela esan du beti. Baina graziaren beraren fenomenologia egin behar litzake hau zuzenki ulertzeko: graziak bakarrik ez bait dezake ezer egin gizonaren prestutasunik gabe; beste hitzetan, grazia bera ere (halako gertaera bereziak alde batera) gizonaren egiteen bidez,



egitetan, izatean, jardunean dabil, eta grazia bera ere kondizionatua dago, gizonaren erantzuna kondizionatua dagoen era berean, indibidualismo itxi bat onartu nahi ez badugu bederen. Ta indibidualismo absolutu hau romantizismoarekin igaro zen neurri luze batean. Entzuketik badator, hitzaren kondizionamentuarekin eta entzunaren tasunen mugetan kokatua aurkitzen da fedea. Entzun, arrazoiduna dela ikusi, beharrezko dela nabari, konpromisoa sentitu, baiezkoa eman . . . fedearen atal dira, graziarekin batean, eta grazia dira, baina gizonaren tamainan.

Ezagumen edo nahia bihurtu den fedea fanatista da, egiazko ez delako, apala ez delako. Gizonaren bizitzan, azal geratuko da, eta ikaragarritzko indar kixkalgarria izanen du. Baina, horrexegatik, hain zuzen, pertsona bera ere, sinesten ari den pertsona erre dezake.

### **Fedea = sentimen?**

Hareago, fedea sentimen gerta daiteke. Ezagumen edo nahia-  
ren problema ikusirik, erlijio, kultura eta politikaren arteko borro-  
karen ondorio, "sentimenaren" konzeptua sartu zen teologian. Irtenbide bezala, eta hain zuzen, soluzio bezala. Sentimen hau ez da beste sentimenak bezalakoa, hasieran behinikbehin, edo ez du herri-psikologiak eman ohi dioen esanahia: ez da bihozkada huts bat, zertu ezinekkoa, gogoia antzeko zerbait. Alderantziz, absolutuaren desioa litzake, derrigorrezkoaren irrikia. Baina, gerora, sentimen hau herri-psikologiaren pare hartua izan zen, eta haren arauera, erlijio eta fede, norberaren zeregin partikular bihurtu ziren, zeren eta norberak bere sentimenak izateko eskubide osoa du. Ta hantxe egin zituzten bakeak kultura-politikak etab. erlijioarekin. Ez ordea luzarorako. Eginkizun nagusietan absolutuaren ametsa nabaria izan zen arteino, bakarrik.

Ba du fedea sentimenturik ere. Baina ez da sentimen huts



bat. Fedeak zerbait onartzen du, hau da, ba du sinesteko bat, gai bat, eta gai horrek pertsona osoa lokarritzen, arduratzen, indartzen, zertzen du. Berez iraunkorra da, eta beti berria. Sentimena ordea herri-psikologiaren ustez, axalekoago, fanatikoago, istanteko. Fedea joera, izaera bat da, eta mami bat du, absolutua, baina konkretuan azaltzen denez.

### **Zerbait sinesten du**

Sinesteak zerbaitera jotzen du. Ez da pertsonaren barruan geratzen den sentimen bat. Baina zerbait hori gizonaren osotasunari dagokiona izango da, pertsonarentzat garrantzitsuena dena, barren ikara moduzko zerbait. Baina, hala ere, fedeak fedegairen bat ba du beti. Gai hori ez da indiferentea: pertsonaren izate guttia konprometitzen du, jakintza batek egiten ez duen moduan.

### **Zer sinesten den**

Teologiaren arabera, sinesteak bere gaia rebelazioan topatzen du. Batez ere, dokumentuetan. Kristau sineste osoaren muinari *Kerigma* deitzen diogu, hau da, Ebanjelioaren beraren muina. Hainbesteko diskusioetan korapilatua egonik ere, Ebanjelioaren sinesgaia honela adierazi genezake: Kristo hil eta Aitak berpiztu zuela, eta gaur Aitaren eskualdean dagoela. Hau da, sinesgaia Kristo bera da, bere izaera osoan. Beste batzuek ordea honela esan nahi lukete: Kristogan azaltzen den Jainkoa da muina. Baina bata edo beste hartzen ditugula, misterio bat gure hitzen bidez azaltzen dugu, eta hitz hauek ere tradizio luze bat dadukate. Sinesgaiak gerora kredoan bilduak izan ziren, eta kredo hau jasoko zuten katekumenoek bataiorako paratzean. Kredo hori oraindik zabaldua izan zen, tradizioaren bidez, hau da, aldi bakoitzak

beretzeko modua egin zuen, eta hitz eta konzeptu berrietan irauli zuen gai hura, eta areago, zehaztu egin zuen egi hura bera.

Jainkoak rebelatua, agertua bada fedea, Jainkoaren rebelazioak berak problema berriak planteatzen ditu: Trazendentearen hitza konkretuaren bidez nola azaltzen den da problema. Laburki esanik: sortzearen eta rebelatzearen problemak problema bera dira, trazendente eta inmanentearen arteko harremanena, alegia. Eta bataren posibilitadea onartzean, bestearena ere onartu behar litzake. Baina, halaz ere, hemen ere testiguaren problema azaltzen da: Jesukristok berak eman bere testigutza, eta bere egitetan azaldu nor zen. Testigutza hau, ordea, testigutza oro bezala, bikoitza da: Batzuek testigutza hura onartu egin zuten eta beste batzuek ezetsi. Zergatik? Fedea subjektibu hutsa delako, edo, agian, graziaren bidez sortzen delako? Nolanahi ere, Jesukristogan, bere gorputzaren bidez zetorren trazendentearen rebelatzea. Horregatik da bikoitza Jesukristoren testigutza bera, mugatuan mugagabea igarri behar zelako. Dena dela, oraino ere, grazia bera gizonen moduan ari den zerbait da: hitzetan, egiteetan, ulertzean, gomentzitzean, bizitzean, eta dohain legez hartzean ere. Eta grazia honek egingo du, alegia, testigutza bikoitz hura testigutza garbi. Baina, gizonen moduan, hau da, gizonek ulertzeko moduan.

### **Nola ulertu behar den sinesgaia**

Sinesgaia misterio da. Eta misterio denez izutu egiten du, eta era berean harenganako irrikia sortzen. Biak batera. Gizona urbiltzen zaionean, misterioa misterioago bihurtzen da, ez bait da gizonaren buruan kabitzen. Jakintzaren bidez misterioa bera menderatzea nahi izan du gizonak, esplikazioak eman ditu, honela edo hala aditzera eman nahi izan du. Eta orduan sinboloaz baliatu da, edo mitoaz, edo konzeptuez. Bat dena, mila eratan esan.

Gizonaren hitza hesi bat da. Eta ezin esan dezake nahi

duen guztia. Ezin duelako. Horregatik sinesten duena aditzera emateko sinboluetara jotzen du. Beste erremediorik ez duelako hain zuzen. Fede profesioa ez da inoiz "garbia": pentsaera batekin lokarritua dago, eta pentsaera horrekin sinesten du gizonak. Hitz bakoitzak bere esanahi soila baino gehiago esan nahi du. Aditzera eman nahi du, hau da, gure hizkuntza intenzionala da, norako edo zertarako den (joera) aurkezten du, baina ez du aditzera ematen osoki ta ondo, osoki ta ondo esan nahi lukeena. Ezin bestean, gizonak hitz haietara jotzen, baina hitz hori, gauza ta gertaera guztiak, hizkuntza eta estruktura guztiak trszenditzen dituen aditzera eman nahi den egiaren toki bilakatzen da. Horregatik, fedean ere, gizonak hitz horiek erabiltzen ditu, baina esan nahi duena, sinboluetan dagoela ere, bide baten erakustea da, ez egia osoa. Ez bait da egia hitz horietan kabitzen. Hitz bakoitzak bere historia du, eta horretaz gainera, kultura eta situazio bereizi batean konkretuki esana izan da. Idazleak zer esan nahi duen ulertzeko hitz horren "orain eta hemen" konkretua bilatu behar da. Hitzarena eta idaztiarena, eta idazti-atal bakoitzarena. Mila gauza esateko ipuiak erabili dituzte gure aurretikoek, mitora jo dute. Baina ipuinak eta mitoak ulertu egin behar dira, esplikazio beharra dute. Arrisku bi topa genitzake hemen: edo mitoa bereberean egia bezala onartzea (Ebaren sagar sonatuarekin bezala), edo mitoarekin batera han kokatua dagoen egia baztertzea. Mitoren bidez ere, trszendentziaganaino jo nahi zuen gizonak. Horregatik esan genezake, gaurko intelektualek eta garai bateko mitogileek, sineste berera jotzen dutela (Biblia barrenean alegia), eta haiek eta hauek beren ahalegina egiten dute *trszendentzia gizonaren moduz aditzera emateko*. Mitoa eta logika modernoa eza-gunbide dira, gaia zertzeko ahalegin samingarria, eta biak saiatzen dira, hitzaren, gizonaren neurri mugatua gaintitzen. Mitoa beste, gaurko intelektual hitzak eta kontzeptuak ere ulertu egin behar dira.

Teologia analogiaz baliatu da sinesgaiak aditzera emateko. Baina aurrenik analogia berak mila problema sortu ditu. Batzuek analogia honela zertu dute: bi gauza desberdinen artean atal bat berdina denean, kontzeptua berdina erabil daiteke. Adibidez: aita hitza Jainkoaren eta gizonarentzat erabiltzean Jaungoikoagan eta gizonagan zerbait berdina dagoela aditzera ematen dugu. Beste batzuek, alderantziz, analogia erlazio bezala zertzen dute, eta, orduan, analogia intentzionala gertatzen da, hau da, bide adierazle bezala, hau da, "halako zerbait" esan nahiko luke. Adibidez, Janko Aita eta gizon aita: gizonarentzako erabiltzen dugun hitz hau, gizonaren tamainarako sortua den hitz bat da, eta gizonarentzat bakarrik. Orduan, gizonaren esperientzia honen mugak ere onartuaz, Jainkoarentzat ere erabiltzen da, baina nahiz eta hitz bera erabili, hitz horrek esanahiaren susmoa bakarrik ematen digu: aita bezalako zerbait ba dela Jainkoagan. Izan ere, Jankoa dela esateko norbaitek noizbait esperientzia bat izan du, eta esperientzia hori gizonen hitzetan iraultzeko gizonen arteko esperientzietan aitarena iruditu zaio erlazio hori aditzera emateko egokiena. Baina egokiena izateak ez du esan nahi, erlazio hori horrela denik, eta horrela bakarrik zehazki. Berdin, mistikoek beren esperientziak aditzera emateko ezkonduen bizitzara jotzen badute, eta Edesti Eder liburuak gordin eta zehaztasun osoarekin aurkeztuko digun ezkonberrien maitasuna, Jainkoak gizonari dioen maitasuna nolabait aditzera emateko erabiliko du. Baina ezin esango dugu Jainkoaren maitasuna halako denik. Hala ere, esperientzia hauetaz baliatu beharko da gizona bere sinestea aditzera emateko. Baina ezin geratu daiteke haretan, hitz horiek behin eta berriz esate hutsean: orduan mitologia gerta daitekeelako. Esperientzia berrietara irauli beharko luke bere sinesgaia, sinesmena bizirik eduki nahi badu. Horregatik halako esperientziaz baliatzen garenean, esperientzia horren mugak ukatu behar ditugu, sines-

gaia mugagabea delako. Baina esperientzia horien bidez bakarrik uler genezake sinesgaia.

Hareago, esperientzia hauek egia-  
tiak eta positibuak. Gizonaren izatea eta hura adierazten duen hizkuntza erlatibuak badira ere, esanahiak muga horiek haustera jotzen du, eta sinboluen bidez aurkezten du bere mamia. Izan ere, ezegoki gertatzen da edozein gai traszendentzia agertzeko. Beste era batean esateko: Jainkoak bere izena bera traszenditzen du, eta horregatik da pekatu, Jainkoaren hitza aintzakotzat ez hartzea. Baina sinboluekin ere, mitoekin bezala gerta daiteke: sinbolu huts bezala onartzea, hau da, sinbolua sinbolu bezala onarturik, haren gaindik dagoenaren susmoa ez ikustea; eta sinbolua bide gerta daiteke. Eta hau da, hain zuzen, sinboluaren zeregina. Sinbolu hori ulertu egin behar da. Eta ulertzeko gai, sinboluaren bizitza eta indarra ezagutzen duena da: beste guztiek begira egongo zaizkio, baina ezin parte hartuko dute. Sinbolua interpretatzeko kategoriak falta zaizkielako, alegia. Honetarako ez ahal da fedea behar? Sinesgabea ikusi eta harri egin daiteke bakarrik, ez ulertu. Sinesdunak ulertzen du sinboluaren esanahia.

## AMAITZEKO

Izan ere, Hebertarren epistolan agertzen denez (Hebr. 11, 1), fedea baldin bada: "Itxaroten dugunaren mamia, ikusten ez direnen erakusbidea", orduan uler genezake geroari begira gaur egunez indar gertatzen den zerbait dela fedea, eta ez bereiziki adimenarekin, ez bereiziki nahiarekin, ez bereiziki gogoarekin edo sentimenarekin lokarritzen dela; baizik gizonari dagokion izatearekin gehiago lokarritua dagoela, traszendenteari begira dagoela sinestea, baina, konkretuarekin korapilatua eta konkretu horretan egizatzen dela. Sinesteak ba du ustearekin zer ikusirik, batez ere soziologia aldetik. Hemen ere batzuentzat jakintza dena, beste

batzuentzat onartua da. San Tomasen teorian jakin Jainkoak eta Kristok eta salbatuek dakite, eta Elizak orain lurrean onartu egiten du. Eta jakintza horren konklusioak zehatz ikusten ez baditu ere, *ba daki* konklusio horiek zihurrak direla, eta bata bestearekin lotzen dituen lokarria ere, guretzat izkutu, haientzat argi dagoela. Baina gizonen arteko izanik, gizonak gizon bezala sinesten du, bere sineste hau Jainkoak emana bada ere. Nola? Ez ahal dio gizartearen bidez ematen? Horrela bait dabil Jainkoaren grazia. Eta orduan fededunak gizonaren izatean eta egitean ikusiko du grazia, eta ez da norabaitera joango grazia horren bila, edo besoak tolestatuta geratuko begira-begira zaldi gainetik noiz jausi ote den, lurrera aurretik besoak luzatzeko. Baina jakintzatik ere ba du fedea, muin bat ere ba duelarik. Eta hura onartzean, arrazoibideak bilatu beharko ditu, maiz gainera, arrazoidun ez diren arrazoiak. Baina hemen ere, maitemintzean legez ez da jeneralean kolpetik gertatzen, nahiz azkenengo kolpea izan gehien sentitzen dena, Frossard edo Paul Claudel batengan bezala. Fedearen muina aztertu beharko luke kristauak. Eta, agian, egiten du.

Halaz ere bizitzarekin egiztatzen da fedea, egiazko gizon-bizitzarekin. Baina ohar dezagun, fedea gizonaren jakitea, nahia, ulertzea, baldintzak, asmoak, gogoak, hitzak, sinboluak jo ta gainetik pasatzen dituela, baina guzti hauen beharra duela egitan gizonaren eta Jainkoaren arteko bizitza izateko (\*).

---

(\*) Fedea hitzegitean beste mila problema azaltzen dira. Baina ezin ukitu izan ditut ezineko zelako: hala otoitza, lana, egiteak, pekatuak, konfiantza, politika-jokabideak, etab.

## **ERABILITAKO LIBURUAK**

- P. TILLICH, **Wesen und Wandel des Glaubens**, WestBerlin, 1961.
- M. LEGAUT, **L'homme à la recherche de son humanité**, Aubier, Paris 1971.
- F. JEANSON, **La foi d'un incroyant**, Ed. du Seuil, Paris 1963.
- K. HÖRMANN, **Lexikön der christlichen Moral**, Innsbruck, 1969.
- F. TRIGAUD, **Vérité, langage, tradition et structures. Initiation à quelques débats actuelles**, Lumière et Vie 88 (1968).
- L. MALEVEZ, **Foi existentielle et foi doctrinale**, Nouvelle Revue Théologique 90 (1968) 137-154.

FEDEA ETA IDEOLOGIA  
andoni sagarna



Horrelako gai bati buruzko ideiak, ugariak eta desberdinak izan behar nahi eta nahi ez, ez bait da berdin fedearen barrenetik ala kanpotik pentsatzea, ez bait da berdín, fededunen artean ere, teologo izatea ala ez izatea.

Guretzat interesik handiena, ugaritasun eta desberdintasun horren berri izateak eta ezagutzeak duela uste izan dudanez, hango eta hemengo pentsalarien iritziak biltzen saiatu natzaizue.

Hastapenetatik bertatik du gai honek zailtasuna, ez bait gaude ados hitzen esanguratan ere. Horixe gertatzen zaigu hain zuzen *ideologia* hitzarekin; mila gauzatan eta mila eratan erabiltzen dugula: filosofian, eguneroko hizkuntzan, politikan eta abar. Batzutan mundua ikusteko era bat adierazi nahi izaten da, programa eta helburu sail bat bestetan, esangura gaiztoa erastea zaio maiz: teoria hutsa, abstrakzioa, dogmakeria adierazi nahiz.

Ideologia eta errealidadea, batez ere errealidadea eta zientzia, haserre bezala ikusten dira eta are gehiago: ideologia, epaitzeko askatasuna mugatzen duen gauzat hartzen da.

Antzinako pentsalariak alde batera utzirik, nahiago dut azken mende bi hauetakoak zuzen zuzenean hartzea, gure iritzietatik edo ta besterengan aurkituko ditugunetatik, hurbilago egonen direlako. Gainera, gaurko pentsalariak ideologiatzat dadukatena eta Platon batek adibidez zedukana, ez bait dira gauza berdina, konparagaitzak dira haren pentsamentua eta gaurkoa. Harentzat, ideiak dira izatearen oinarrizko forma, gauzak baino lehen dena.

Ideien munduan, denboraz kanpo, benetan denaren kopia besterik ez liriteke gauzak. Gaurko pentsamentuarentzat ordea, ideiak eta beren ondorioek: zientziek, arteek, kulturak, moralak, deretxoak eta erlijioak, ez dute beren baitan izateko arrazoia eta balioa, aitzitik beste helburu batzuen menpean daude.

Ideologiak, ideologiako pentsamentuak, ez dute benetan dena, errealidadea, ikusarazten; nahi, egin, espero behar dena azaltzen saiatzen dira.

Enziklopediaren garaitako pentsalarietatik jaiotzen da ideologiaren konzepzio honetan erroturik erlijioaren interpretazio bat. Erlijioa eta dogmak agintea dutenek (ez agintariek bakarrik, bai eta agintea sostengatzen dutenek ere) menperatzeko indar bezala, dagoen egoera justifikatu edo ontzat emateko, hau Jainkoaren borondateak bidali duena dela sinestarazteko medioak dirateke. aldaketak, gizadiaren aurrerapena, eragozteko medioak dirateke.

Urrats labur batez pasatzen da konzepzio honetatik lehenbizi Feuerbach-en iritzietara, Marx eta Engels-enetara gero. *Ludwig Feuerbach*-en tesia hauxe da: gizonak bere bizitzan falta duen guztia lortu nahiz, bere irudimenaren eta boronda-

tearen bidez sortzen duena da erlijioa, norberaren segurantza bilatzen duelarik.

## Marx

*Marx*-entzat erlijioa alienazio bat da, beste edozein alienazio bezala, gizarteko injustiziak gainditzen direnean deuseztuko dena.

Kontutan izan behar da Marxek Prusian erlijioz kutsatutako Estatu bat ezagutu zuela eta kontserbadoreek aginteari eta egoera sozialari bere hartan eusteko, erlijioaz baliatzen zirela hain zuzen. Estatuaren teoriko nagusiaren oinarritzko proposamendua hauxe zen: Estatua, gizon bekatariak beste gizonak ez ditzan desegin eta honda, sortua izan da. Estatuaren izateko arrazoa teologiazko bezala azaltzen zuen, gizonaren bekataritasuna hartzen bait zuen oinarritzat.

Giro hartan batzuk hori gaizki ikusirik Estatua eta erlijioa elkarrengandik apartatzea proposatzen zuten, baina Marxek postura hau ere ez zuen onartzen, horrela pentsatzen bait zuen: Erlijioa dagoen bitartean, nahiz eta pertsona bakoitzaren baitan bakarrik egon, alienazioaren erroak bizirik daude.

Estatua erlijioarekin nahasturik egotea ez da gaitz osoa. Gizon bakoitzak bere bizitza pribatuan erlijioa praktikatzea ere alienazioa da. Erlijioa ez da beste alienazioen iturburu, ondorio baizik. Erlijioa deusezteko, lehenbizi problema politikoak zuzendu behar dira.

Estatu kristauaren kritika egiten hasirik, heltzen da Marx puntu honetara. Erlijioari berari lotzen zaionean, gizonak bere baitan sentitzen duen bikoiztasunagatik bere burua mundu honetatik kanpo proiektatzean datzala dio. Urruntze hori ere bitara egiten omen du gizonak: etsipenaren bidez, mundu honetatik kanpo bere baitako etendura deseginen delakoan edo ta bere garaiko

egoera politiko eta sozialari egia traszendente batek eman lekiokeen justifikazioaren bidez. Bigarren puntu honi helduko diogu lan honen gaiak hala eskatzen duelako.

Kristautasunaren printzipio sozialek antzinako esklabismoa justifikatzen dute, Erdi Haroko serbutza goraldu eta proletargoaren zapalketa ontzat eman, behar denean, kontrako itxurak eginik bada ere. Kristautasunaren printzipio sozialek klase menperatzaile eta klase menperatu baten beharra aldarrikatzen dute eta azkenengo honentzat lehenbizikoari karidatea eskatzearekin kontentatzen da. Kristautasunaren printzipio sozialek zerurako uzten dute injustizia guztien erremediatzea eta injustizia horietxen irautea justifikatzen dute (1).

Gure menpean sartzen garelarik *Gramsci* da ideologia eta fedearen arteko harremanez mintzatu denetako bat.

### Gramsci

*Antonio Gramsci*, Sardegna-ko herri ttipi batean jaio zen 1891an. Pentsalari bezala lan handia egin zuen eta alderdi askotatik: faszismoaren iturburuak eta izateko arrazoiak aztertzen, gaurko munduko teknika, literaturaren kritika, kulturaren antolamendua, filosofia, e. a. Kazetari gartsua izana dugu Italian.

1926an hogeitertarako sartu zuten faszistek gartzelara. 1937an hil zen Erroman.

Erljioa, mundua ikusteko era baten eta arauerako jokabide baten arteko fede-batasunari deitzen dio eta guk lan honetan zehar ukitu dugun gaia hartuz horrela galdetzen du: fede batasun honi zergatik deitu *erlijioa* eta ez *ideologia* edo kupidarik gabe *politika*?

---

(1) MEGA I, VI 271 horr.

Filosofia ez dago abstraktuki; *filosofiak* daude edo ta mundua ikusteko erak eta beti aukeratu egiten da horien artean. Nola egiten da aukeramen hau? Ekintza intelektual huts bat ahal da ala gauza konplejuagoa da? Gainera pentsamoldea eta jokabidea ez dira ados egoten maiz. Zein da horretaz mundua ikusteko benetako era, intelektual hutsaren bidez aukeratzen dena ala bakoitzaren jokabidetan azaltzen dena?

Edozein ekintza politikoa da; beraz ez ahal daiteke esan bakoitzaren benetako filosofia bere politikan dagoela? Desberdintasun hau Gramsciren iritziz, mundua ikusteko era bat eta jokabide bat duen giza multzo batek, intelektualki beste giza multzo baten mundua ikusteko era hartzen duenean sortzen da.

Hemendik irtenda planteatzen du Gramscik kultura mugimendu, erlijio, fede, ekintza bihurtutako filosofia eta honen teoriatzko sostengu ororen oinarritzko problema bat; beste hitz batzutan esateko, ideologia ororen gakoa; artean, deretxoan, ekonomian, bakoitzaren eta gizartearen bititza osoan azaltzen den mundua ikusteko erari deitzen badiogu ideologia. Problema hau, ideologia hori oinarritzat hartzen duen giza-multzoaren ideologia-batasuna da.

Erlijioen indarra eta batez ere Eliza Katolikoarena, erlijiodunen arteko dotrina batasunaren premia, indartsu sentitzean dagoela dio eta borrokan dihardutela intelektualak eta herri xehea ez daitezen aparta. Herri xehea intelektualen mailara eramate lan astunegia bailitzateke, Eliza Katolikoak intelektualei diziplina gogor bat ezarriz konpondu nahi izan du.

Pentsalariek eta zientzi gizonak autoridade handia dute herriaren aurrean, gizon arrunt bat erraz menperatzen du arrazoituz intelektual batek, baina gizon arrunt honek bera baino ikasiago den norbaitekin topatzen den bakoitzean, aldatu beharko luke bere pentsamoldea, arrazoizki ikusten duena onartuko balu. Zertan oinarritzen da beraz, herri xeheko pertsona bere pentsamoldea

osatzeko? Arrazoiz zerbaitetan, fede batetan esaten digu Gramscik. Baina fedea norengan, zertan?

Bere giza multzoarengan batez ere. Hainbeste jende ez daitekeela oker egon pentsatzen du eta, baditu zehazki gogoan ere, inoiz bere multzokoren batek emandako arrazoiak, berari pisuzkoak iruditu zitzaizkionak, duen fedea justifikatzeko aski ditu, fedeari eusteko.

Erljio batek, edo eliza batek fidelen komunitadea apologetikazko arrazoi batzuek birresaten dituen neurrian eta pentsamentu serioaren itxura fedeari ematen dion intelektual sail bat duen neurrian, mantentzen du.

Gu aztertzen ari garen gaia zuzen zuzenean ukitzen du Gramscik honako hau esaten duenean: ideologia hitzaren lehen esangura *ideien azterketa* zen. Ideiak aztertzeko beren funtsezko elementuetan zatitu behar ziren eta zati hauk ez zitezkeen sensazioak baizik izan; ideiak sensazio ziren. Baina sensismoa erlijiozko fedeari lotzea ez zen gauza zaila.

Ideologia hitzak izan ditzakeen esangura guztien artean guk hemen zenbat helbururen funtzioan dagoen pentsamolde eta jokatibide bezala definitzen duena hartu dugu.

## Freud

*Freud*-ek erlijioaz (ez dakit zenbaiteraino bereziko zituen Freudek fedea eta erlijioa) zuen iritziak ere esangura horriekin zerikusirik bai bait du, interesgarria deritzat hemen azaltzeari.

Interpretazio hori Psikoanalisaren barrenetik egiten du noski eta gizonaren baitan dauden indarrak ezkuturenekin lotuz.

Bere hasierako hipotesia gure bizitza gogorregia gertatzen zaigula da, astunegia eta sufrimenturen iturri dugula.

Jasan ahal izateko ahazkarriren beharra sentitzen dugu. Hiru motatakoak lirateke Freudentzat ahazkarri horiek: denbora pasa

egiten diran lanak, gure mixeria den baino xipiagoa dela ustea-  
razten digutenak; gure sufrimentuak xipitzen dituzten atseginak  
eta sentimena nagitzen diguten drogak. Erljioa ere hemen tartean  
sartuko luke baina zein sailetan egonen lizatekeen ez zuen hain  
garbi ikusten. Pontu hori garbi utzi nahiz beste alderdi batetatik  
ekiten dio galdera nagusi bat eginez: zer helburu eta asmo azal-  
tzen dituzte gizonak beren jokabidetan, zer espero dute bizitzaren-  
gandik, zer nahi lukete erdietsi? Hori garbi dago, zoriona bilatzen  
dute. Asmo hori bilatzeko ekinaldiak maila bi du: oinazeari ihes  
egitea eta atsegin sakonak dastatzea. Zoriona, hortatixe dator-  
kigu; premia bat handiagoa egiten joan ala larritasuna sortu eta  
asetzetik, baina hori horrela izateak noizpehinkako gauza egiten du.

Sufrimentua, ordea, sarriago izaten dugu eta hiru aldetatik  
egiten digu eraso: gure gorputzetik bertatik, kanpoko mundutik  
eta beste gizakiekiko harremanetatik. Horregatik gehienetan atse-  
gina bilatzera ere ez gara heltzen, sufrimentuari ihesegite hutsare-  
kin etsitzen dugu.

Besterekiko harremanek ekartzen dizkiguten sufrimentuei ba-  
kardadearen bidez erantzun izan diete batzuk, kanpoko mundua-  
ren mehatxuari ere ihes eginez erantzun ohi zaio edo ta bestere-  
kin batera zientzia eta teknikaz baliatuz, mundu hori menpera-  
tzeko.

Bestetan, droga izaten da sufrimentua itzaltzeko bidea. Irri-  
ken asetzea, atsegina dakarrelako hain zuzen, sufrimentu handi  
baten oinarri izaten da kanpoko munduak eragozten digunean.  
Horrentzako erremedioa, gure premien barne-iturburuak berak  
menperatzea izan da ekialdeko kulturatan eta yogaren bitartez  
lortu dute. Beste era bat, berriz, irrika horiek beste bide batetatik  
zuzentzea izaten da, sublimazioaren bidez, lan psikiko eta intelek-  
tualetan atsegina bilatuz.

Oinazeari ihes egin eta atsegina bilatzeko era-sail honen on-  
doan, Freudek beste sail bat aipatzen du: gizaki askok, elkarrekin



errealidadearen ameskeriazko irudi bat egiten duenean, sortzen duena atsegin-segurantza eta oinazearengandiko babesa bilatuz.

Sail honetan sartzen ditu Freudek erlijioak ere.

Zoriona libidoaren ekonomia kontu bat delako, bakoitzak bere bidea aukeratu behar duela esaten duenean, erlijioak, gizon guztiei bide bakar bat inposatzen dietelako, askatasunarentzat muga bat direla dio. Ameskerian parte harraraziz, erlijioak neurositik libratzen omen ditu asko baina ez omen du besterik lortzen.

### Monod

Gaur bertako pentsalarien artean, Jacques Monod izanen da, gu ikusten ari garen gaiaren aldetik, interesgarrienetako bat. Berez biokimikoa da (1965ean Nobel Saria eman zioten eta aurten *Institut Pasteur*-eko zuzendari izendatu dute), baina bere zientziazatik atera ditu filosofia mailako ondorioak ere.

*Le hasard et la nécessité* izeneko liburuan azaldu berriak ditu bere pentsamentuak. Haien artean, bizitza eta izadiaren sentidu, sorrera eta helburuari buruzko teoriak kritikatzeko ditu.

Zientzia gizona denez, ez da harritzekoa gauza guztien gainetik objetibutasuna ipintzea. Liburu horretan, hain zuzen, "erlijiozko ideologiek" eta filosofia-sistema handi gehienek, eboluzioa, bere hasieratik, printzipioen batek zuzenduta dagoela duten ustea, objetibutasun faltaz salatzen du.

Ideologia hitza erlijio hitzarekin nahasturik azaltzen da, edo alboan, eta salakuntza ere alderdi horretatik doala uste dut; alegia, gauza guztien esplikazio lizatekeen absolutu bat onartzea, ez duela Monodek oso ondo ikusten, gizonak izadian bere lekua duela eta aurrerapenean oinarriturik dagoela munduaren joera nagusi bat sinetsiz, gure buruari lasaitu bat emateko, hutsunearen zorbiorik ez sentitzeko eraikitako ideologia bat lizateke fedearen muina.



Baina, ez uste izan erlijioa bakarrik salatzen duenik objetibotasun falta horretaz, marxismoari ere salakuntza berdina ezartzen dio. Monodek klasifikazio bat egiten du horrelako pentsamoldeez.

Lehenengo sail batean, printzipio zuzendaria materia bizian ipintzen duten teoriak aipatzen ditu. Bigarrenengoan, printzipio hori izadi osoaren zuzendari dela esaten duten teoriak sartzen ditu. Hautentzat, bizidunak izakirik egokienak eta bukatuenak omen dira eta gizona, eboluzio horren azken ekoizpena "hala izan behar zuelako".

Bigarrenengo sail honetan sartzen ditu Teilhard de Chardin-en teoriak. Hauk, dakizuenetz, zientziaren eta fedearen arteko sintesi bat dirateke eta eboluzioa, gizonaren sorrera bitartean biologiazkoa izan dena, hemendik aurrera espirituzkoa izanen omen dela, omega pontuan Jainkoarekin elkartzea gerta dadin arte, esaten digute.

Teilhardentzat, eboluzioa horrela zuzentzen duen indarra "gorunzkako energia" da, edo espirituzkoa bestela esateko.

Monodentzat Teilharden gorunzkako energia, Spencer-en "indar ezagugaitza" eta marxismoaren materialismoa, funtsez antzekoak lirateke.

Bere iritziz materialismoak horrela osatzen du izadiari buruzko teoria: Materia izateko era higitzean datza eta izadia materia guztiak osatzen duenez, eta materiak bakarrik, bilakatze etengabe batetan dabil. Izadiaren egiazko ezaguera orok bilakatze hau ulergarriago egiten du, baina, ezaguera gizonaren eta gainerontzeko materiaren arteko harremanetatik bakarrik atera daiteke. Egiazko ezaguera praktikoa da beraz.

Pentsamentua izadiaren higikeraren zati eta azalpen da; gainera dialektikoa denez, eboluzioaren legeak ere dialektikoa izan beharko du. Dialektika, batez ere sintesiaren mailan, sortzaile da eta izadiaren bilakatzea ere sortzaile eta aurreratzaile da. Bide

hau Monodentzat erabat zientziaren kontrakoa da eta, izadia justifikatzeko, aurrez hartzen den jokabide bat.

Teoria hauek danek, Monodek dioenez, gizona hartzen dute izadi osoaren ekoizpen nagusi bezala, betidanik espero bailitz harren etorrera. Materialismoa bera, Jainkorik gabeko fede bat lizateke eta bai hau (fedea) eta bai hura, izadia helburu batetara zuzendutako zerbaitekin konsideratzen duten ideologiak.

### **Eta beste biderik?**

Orain arte aztertu ditugun pentsalari guztiek fedearen kanpotik egin dituzte beren kritikak, baina ba dira noski gai honetaz hitzegiz duten fededunak ere.

Oso gaitza da ordea batzuk eta besteak gonbaratzea, teologoen saioek fedea oinarri bezala bait dute eta lehen ikusi ditugun pentsalariet berriz hasieratik ukatzen dute fedea.

Bi jokabide horien artean, dirudienez, hutsune handi bat dago eta ez da aski arrazoiket hutsa alderdi batean ala bestean egoi behar den erabakitzeke. Fedegabeek ergelkeria dela uste izanen dute; teologoek berriz gizonaren arrazoiak gainera, Jainkoaren grazia behar dela esanen digute.

Ez da harriztekoa beraz, orain irakurriko duzenaren eta irakurria duzenaren artean etadura bat aurkitzea, nire lumaren baldarraz gainera, errealidadean dagoen hutsune hori azaltzen bait du.

### **Fries**

Pentsalari fededunen artean Heinrich Fries-en iritzia jasoko dut. Heinrich Friesek Munich-eko Unibersidadean, oinarritzko teologia irakasten du eta hiri honetantxe, Estudio Ekumenikoen Institutoko zuzendari da. Friesek hau dio fedeari eta ideologiari buruz:

Ideologia eta ideologiazko pentsamentua, errealidadean aurki daitezkeen fenomenoak direla esaten digu lehenbizi, eta beren funtsezko ezagugarriak bilatzen saiatzen da. Hauk dira beretzat ezagugarri horiek:

1.—Ideologiazko pentsamentuaren egiteak eta mamia ez dira loturarik gabeko, libre, balio nagusiko; erabatekotzat hartu behar. Ekoizpen mugatu, menpeko eta ondorio dira, beren sortzeaz geroztik, beren iturburuaren aldetik eta beren mamiaren aldetik, pentsamentuarengan indarra duten eraginek zertuak dira.

2.—Ideologiazko pentsamentua, ez da egiarekiko maitasunez saiatzen bere burua zer den jakiten, hura agertzen, ulerrarazten eta adierazten. Interesek eta asmoek gidatzen dute gehiago ideologiazko pentsamentua; pentsamentua mugiarazten eta beren serbitzuan hartzen duten helburuek zertzen dute.

Ideologiazko pentsamentuak ez du egiaren muina baieztatu beharrik, bilatzen duen helburuaren zergatia baizik. Ekintzak era honetan eragindako pentsamentu hau ez daiteke, beraz, bide erakusle eta arau emaile izan; berau efikaziak erregelatzen du eta bere gaitasun praktikoak justifikatzen.

Horrelako pentsamentu batetan zuzen zer den ez du ideiak erabakitzen, ez eta justiziaren arauak edo balioak ere, helburuak eta gaitasunak baizik. Zerbaitetarako gai dena da zuzen.

3.—Ideologiazko pentsamentuaren ezagugarria dagoen egoera bat, ordena bat, justifikatzeko eta legezkoetzeko erabilia izatea da: politika eta sozial erakundeak, finkatutako formak, politikazko erregelak, tradizio espiritualak osatzen duten egoera, historiaren bortxaz etor dakizkeen aldaketez babesteko eta premiak eta beharrak ematen duten ohoreaz koroatzeko.

Ikuspegi honen barrenetik dagoena, ez da bestela izan zitezkeen baina historiak horrelako egin duen gauzat hartzen. Ondorio bezala, ez da onartzen alda litekeenik, nahi eta nahi ezkotzat

hartzen da, aldaezintzat. Pentsamentuak onetsi egin behar du premiaskotasun hori eta fedea eta erlijioak maiz abiatzen dira bide honetatik. Historian zehar gertatzen diren aldaketetan eta politikan ere ideologiazko pentsamentuaren xedea garden azaltzen da. Gertatu denari posible zen irtenbide bakarraren itxura mirezgarria ematen zaio eta are Jainkoak nahi izandako gauzarena. Haatik iraultza etengabearen ideologia bat ere ba da.

4.—Ideologiazko pentsamentuan giza errealitatea eta inguruaren errealitatea batez ere, ez da onartzen. Ideologia bat dutenak beren ideien menpeko izanik, beste izakirengandik aldenturik eta haienganako itxirik egoteak erakusten digute hori hala dela.

Honen ondorio da hain zuzen, horrelako ideologiazko pentsamentuak inguruari eta hurbil dagoenari baino gehiago, bigarren mailan eta at dagoen helburuari behatzea, azaleko gauzei pertsonaren dintasun sakratuari baino gehiago.

5.—Ideologiarentzat, pentsamentua ekintza pertsonal eta bakoitzaren espirituaren ihardukizun baino gehiago, onartutako aurreiritzi sozial eta sortzaile ezezaguneko pentsamentu, bakoitzaren menperatzaile eta bortxatzaile da eta pertsonak ez du haren menpean jarri eta hura jasan beharra besterik.

Horregatixe, goitik datozkion agindu horiek, moztu egiten diote bakoitzaren kontzientziari etika aldeko erabakiak hartzeko hautamena. "Kontzientzia" kolektiboaren aginduak eta nahiak betetzen dituenean jokatzeko du zuzen gizonak. Bakoitzaren baitari kanpoak, urrunak eta ezezagunak lapurtzen diote nortasuna.

6.—Ideologiak errealitatea lausotzen du edo ta ez du errealitatearen parte bat besterik haintzakotzat hartzen. Eta halere denaren zuzendari eta taxutzaile izan nahi du. Ideologiazko pentsamentuak edozein gauza esplikatu dezake: historia, iragana eta etorkizuna sistema baten eta honek dukeen dialektikaren saretan

sartzen du, dena aurrez pentsatuta, neurtuta eta prestatuta bailego, akatsik ez dezan izan eta inongo eragozpenik ez dezan sor.

7.—Osotasun uste honek egiten ditu ideologia eta ideologiazko pentsamentua hain oldarti, itxi eta temati.

Elkarrizketa ez dator ondo, pentsamentu klase honekin. Oinarriko printzipio mugiezinen bitartez; slogan, esaldi-klitxe eta topiko direla medio, egia bilatzeko ordez, gogaikarri zaizkion arrazoiei ihes egiten zaiatzen da.

Ideologiarentzat, egin behar dena ez da errealitatea aztertuz espiritua esnatzea, ez arrazoituz ikusaraztea; aurka dagoena kutsatzea, plott eginda uztea, harritzea, lur jota uztea eta menderatzea baizik. Horretarako mediorik nagusia bildurra sartzea da.

Pentsamentu hau ez da egiaren eta gezurraren mailan ibiltzen, adiskidearen eta arerioaren burrukarenean baino. Diferentziak etsaigo bilakatzen dira itsu-itsu dagoenarengan. Bestea aguro bihurtzen da "kontestatzaile".

Helmut *Thielicke*-k horrela azaldu du hau: sinestea denari dagokio, ideologia nahi lukeenari. Sinesteak pertsonari irtenbide zabalak uzten dizkio, ideologiak desnortasundu egiten du. Sinesteak besteri bere helburu izan dadin uzten dio; ideologiak medio eta menderakizun bihurtzen du. Zerbaitengan uste osoa duenak *zer da egia?* galdetzen du. Ideologiadunak berriz: nola nago ni kutsatuta eta nola kutsa dezaket nik? Sloganak hitzetan nabarrentzen du desnortasuntze hori. Sloganak ez du egia azaltzeko asmorik, nagusitze gose bat darama berekin. Ez da besteren nortasunaren bila joaten, bere kirio eta sentimentutara baizik.

8.—Horregatik ideologiazko pentsamentuak ez du bere buruaren kritikarik egiten. Ez du bere burua zalantzan jartzen. Bere sistimaren ezin hobeagotasunaren akats gabetasunaren ustetan dago. Besteak ideologo bezala kritikatzeko, epaitzen eta kondenatzen ditu eta pentsakera desberdinak ideologiak dira beretzat.

Ideologia izatearen susmo bakarra aski da ezinbestean gaiztakeria bezala kondena dezan.

Oldarti, itxi eta temati bait da, arerio bat sortu behar du beti oker guztien kulpak harengan bota ahal izateko. Horrela ideologiazko pentsamentuak, oposizioa ere bere sistimaren barrenean sartzten du. Ideologiaren ezagugarriak zorrozki aztertu ondoren Friesek ondorio hau ateratzen du, ikusiko dugun bezala: fedea ez da ideologia bat. Esan digu garbi asko ideologia esaten duenean zer ulertu behar dugun. Horretan oinarriturik, fedea, batez ere kristau fedea, eta ideologia konparatzen ditu.

Fedeak ba du noski bere historia eta fedearen interpretazioak ere bai. Friesek esaten digunez, historian zehar fedearen interpretazio oker bat eman izan da, ideologiazkoa.

Arriskua hor omen dago, fedea zenbait interes eta helbururen serbitzuan ipintzen denean, bere muinetik jokabideak ateratzeko ordezturik aurpegia garbi ez azaltzean.

Nahastearen arriskua beti dago, fedeak gorputz hartu behar bait du munduan eta historian, baina bide batez beste galdera bat ere egin beharrean dago: historiaren une batetan dagoen zerbait, erakunde bat adibidez, fedearen gorputz hartzeko forma bakarra eta ezinbestekoa ahal da? ala ohikeriak utzi eta garaiek eskatzen duten izateko era berria bilatu behar da?

Friesentzat fedeak ez du berez ideologiaren izaera. Ongi ulertzen bada eta behar bezala bizitzen bada; Jainkoa, bere aintza, borondatea, promesak, hitzak eta ekintzak onartzea da norbere-koikeriarik gabe eta gizonen serbitzuan ipintzea da.

Alderdi honetatik Friesek azaltzen duen teoriaren muina esaldi hauetan dago:

Kristau fedea ez da ideologia bat, ez bait dute helburu batzuek zertzen, errealidadeek eta esanahiek baizik, bere sinesgaitasunaren arazoiek ezagutzen bait dute, bizitza eta aukeramen izanik, pertso naren askatasunean eta arduran finkatuta dagoelako, gizonaren

kontzientzia errespetatzen duelako eta gizonari deitzen diolako, baina pertsona bezala harturik eta ez bereganatu nahi duen gauza bezala.

Fedea ez da ideologia bat, ez delako gizonak standarizatzetik bizi eta bakoitzaren nortasuna gogoan duelako. Gizona ez du bere kanpoan dagoen helburu bat lortzeko mediotzat hartzen. Ez du ideia baten jabe egiten, osotasun baten zati, ez eta gizartean eginkizun huts bihurtzen edo ta etorkizun hobeago baten menpe dagoen langile ezezagun.

Aitzitik gizona bera du helburu eta ardatz kristau fedearen muinean oinarriturik: Jainkoaren gizon egitean alegia. Fedearentzat "ismo" eta teorema guztien gainerik eta aurretik gizona dago.

Fedearen oinarriak ez daude gizona menperatzen duten indarren serbitzuan, garaipenaren edo norbaiten interesen serbitzuan —garaipena ez da fedearen kategoria bat—, oinarri horiek maitasunaren adierazpen dira eta bide horren eredia Jainkoa Jesukristoren gan deuseztean datza. Horixe diote hitz hauek: "Zuen artean handiena, zuen serbitzari eginen zaizue" (Mt. 23, 11). Jainkoak gizonei eskatzen dien maitasun orokorrean, gizon guztiak maitatuak izateko gai egiten dituenean, ideologia guztitan azaltzen den lagun-etsai eskema, gairiturik gelditzen da erabat. Irekitzeko, bilatzeko eta elkarrizkeratako gai bait da, fedea ez da ideologia bat. Fedeak onartzen ditu galderak eta zalantzan jar dezaten. Alor guztitan dena jakiteko asmorik eta usterik ez du. Bere ezagugarri bezala, muin-muinean darama galdera, ez jakitea, betirako berdin ez irautea, akasdu izatea, mugatua izatea.

Edozein egoera sozial, politiko edo kulturaletan eta historia-  
ren edozein garaitan izan bait liteke, ez da ideologia bat. Gizarte-  
ren egitura bat suntsitzen denean ez du nahi eta nahi ez galdu  
behar, egoera berritan har ditzake forma berriak eta jokabide  
berriak bere buruari uko egin gabe. Fedea ez da ideologia bat, ez



du errealdadea lausotzen, harengandik ihes egiten; ez du gizona alienatzen.

Aitzitik, gauzen izatea eta giza errealdadea beren sakontasunik handienetan bilatzen ditu, fedearen oinarritan hauxe bait dago: gizonak bere burua zenbat eta gehiago ezagutu Jainkoa gehiago ezagutzen du eta alderantziz. Friesek bere teoriaren bukaera bezala hauxe esaten digu: ez dezatela fededunek hau gaizki konpreni eta triunfalismo ustelkor batetan jaus. Fedearen ikuspegi honek, fedeak kristauari eta kristau komunidadeari zer eskatzen dien bakarrik azaltzen du.

Filosofo fededunen artean Leslie *Dewart*-en iritziari ere jaikingarria deritzat. Gaurko gizonaren eta batez ere gaurko fededunaren kezka ongi ezagutzen ditu, marxistekin elkarrizketak izan ditu —Garaudy-rekin batez ere— eta berak uste duenez, kezka horien argitasuna teoria mailan bilatu behar da.

Gaurko gizonari fedeak zer eskaini diezakeon bilatu nahiz, bere iritziz okerra den ideia zahar bat suntsierazi nahi du; alegia Elizaren zeregina beretzat ez da ideia bat zabaltzea, kristautasunak ez dakar mezu bat, misio edo xede bat baizik. Bere erealdadea eta izatea eskaintzen ditu eta ez ideia bat.



**gizarte eta fede**

## GIZARTE ETA FEDE

*Argi dago: fedeak bere baitan dakar trazen-  
dentziaren deia. Fedeak onartu du "Bestea",  
"handikaldea".*

*Baina gizon fededunak hemen du bizitokia,  
hemendarra da, nahiz eta beregan ukan aingeru-  
gogoaren printza dizdizaria. Gizona, hemengo  
erantzun da eta hango galdera. Izan-modu honek  
dakarkien ajeak nahiko argi agertzen dira egungo  
fededun eta marxista kritikoengan: zimentarrieta-  
tik bakoitzak onartu duenaren ondoren besteare-  
na nahi du. Gizartegintzarako moldatu den mar-  
xismo pentsamenduak "hangotasuna" du gose;  
jainkogintzarako jaio den fedeak, "hemengotasu-  
na" du egarri. Giza-izatearen betiko sokatira,  
azkenean.*

*Honegatik, gaur egun ez da onartzen bizi-*

*ekintzatik apartekotasun apartenean egin nahiko litzakeen mundu sagaratu hura. Ez da onargarri sagaratu/profano haren dikotomia.*

*Orain —inoiz baino areago— fedea ekintzazale agertzen zaie fededunei. “Sagaratuaren” hesparrua hautsi egin nahi da, erlijiozikuna bizitza osoaren barnetik bizi da. Fedea dinamikoki agertzen da bereziki erlijiodunen kontzientzietan. Fedea, bizieraren aldatzaile da.*

*Fedea, eginkizun gertatzen da eta gizonen serbitzu bide: besteentzakotasuna ezartzen dio fedeak gizonari, salbabidea eskaintzen dion bitartean.*

*Fedearen gizarte-ekintza behar da. Iraultza?*

J. I.

FEDEA, ERLIJIOA, GIZARTEA

j. m. torrealday

Praktikan eta obratzean katoliko ez den Maurice Druon frantses akademikoak artikulua publikatu du abuztuaren 7an, "Le Monde"-en Frantziako eguneroko ezagunean. "Kanpotikako ikusle baten antzera" juzgatzen du Eliza katolikoaren gaurko aldakuntza. Ez du konprenitzen, hain bake gozatsuan zegoelarik, zergatik sartu den Eliza oraingo gatazka honetan. Ez du onartzen Elizaren kanbiamendu hau, herriari, nazioari, kalte asko etor dakizkiokeelako hemendik.

Maurice Druon-ek zenbait galdera egiten dio bere buruari:

Zer gertatzen zaio Eliza katolikoari? Arrenguraz egiten dio bakoitzak bere buruari galdera hau, Elizakoa izan ala ez, bere barnean hezia izan ala ez, Elizarekiko lokarriak sendoak izan ala ez. Zeren-eta jite eta goitasun honen jabe den Instituzgo bat, hainbeste urtetan herri baten izpiritu-erakunde nagusia izan denean, eta nazio bateko moral indar nabarmenena denean, gisa da denean eragina izatea, dena kutsatzea, dena markatzea: pentsamendu-eskemak, memoria-aipamenak, bizi-ohiturak, gizabakoen eta multzoen bizi-moduak, arte-agerpenak; dena; Deretxoa ere bai; pertsonaren Estatuarekiko harremana

ere bai. Horregatik, Elizak horren krisis zabala bizi duenean, problema horrek ez du bera bakarrik ukitzen; nazio-bizitza osoa kutsatzen du; herri baten nortasuna bera da alda daitekeena.

“Le Monde”-ko Zuzendaritzak, iritzien garrantziaz jabeturik, Daniélou kardenalari erantzun osagarri bat eman dezan erregutzen dio. Druon jaunak Elizari eskatzen diona bigarren mailako eginkizuna da, sekundarioa, dio Daniélouk. Baina ez dator bat gaurko tendentzia askorekin: erligorik gabeko kristianismorik ez dago, des-sagaratzea eta sekulargintza mende baten atzerapenez datozen mogimenduak dira. Hain zuzen, gaur, gizonak sagaratuaren behar handiagoa du, inoiz baino.

Iritziak iritzi. Ustekizun hauetan, aurera egin baino lehen, garbitu behar dugun zenbait iritzi dago. Batez ere erlijioa zer den, edo nola hartua, bere usuarioa zein den, ikusi beharra dago.

## A) ERLIJIOA ETA FEDEA

Sekulargintzaren Teologiak maiz darabil gai hau. Gauza bat dago garbi: fedea eta erlijioa, nahiz-eta historian eta teorietan askotan nahasi, ez direla izatez eta berez bat.

Fedeari buruzko iritzietan, guti edo asko, batasun bat lortu dela esan bide daiteke. Gutienez, dohaina dela, eta Kristianismoak ekarritako Jainkoaren misterioari bakarrik lotua dela.

Erljioa, ordea, askoz ere zabalagoa da, betidanik-edo eza-gutzen dena, etnologiak dioskunez. Baina, gaur, nola ulertzen dugu erlijio hitza eta erlijio fenomenua? Hor dago koska, “erlijioa” gaurko hiztegian ez da-ta hitz unibokoa, sentidu bakarrekoa. Honentzat, erlijioa, fedea kultura-forma bilakatua da.

A. Liégé-ntzat (1), fedea, Jainkoagandik gizonarenganako

---

(1) P. A. LIEGE: *La religion qui n'est pas la foi*, in *Parole et Mission*, 31, oct. 1965, 560-566 horr.

mogimendua da. Erlijioa, ostera, gizonarengandik Jainkoarengana doa.

Paul Ricoeur (2) jaunak erlijio eta fedearen erlazioa dialektika gisa presentatzen du, alegia, fedea erlijioa gainditzen eta momentu berean erlijioaz baliatzen. J. Friese jaunaren ustez (3), erlijio dimensiotik kanpora ez dago inolaz ere Jainkoa bilatzerik.

Autore guziak baltsan harturik, bi joera nagusi nabarmentzen dira:

—batzuk, *erlijio hitza arbuizatzen eta erdeinatzen dutenak*. Hauek, guti gora behera Klemente Alejandriakoaren bereizkuntza egin ohi dute:

“Jainkoa guztiahaltsua dela sinesten duena eta jainkotiar misterioez Seme Bakarraren dotrina jaso duena, nola izan liteke ateo? Dudarik gabe, atea Jainkorik dagoenik pentsatzen ez duena da; erlijiosoa, ostera, deabrueri bildur diena, dena jainkotiartzten duena: ohola, harria, izpiritua, honela esklabutza mugatuaz izaki arrazional hau, gizona alegia”.

—Beste batzuk, *erlijio hitza ez lukete desterratu nahi*. Fedearen eta erlijioaren arteko diferentzia ongi zulatuz gero, bakoitzari bere terrena ematen zaio. Zer esan nahi du, horretaz, erlijioak? Erlijioarekin, Jainkoaren eta gizakumearen arteko erlazioa, naturalezaren eta gainizadiaren erlazioa ulertuko dugu, harreman hori fedeak gidatua, zuzendua eta garbitua.

Ohar gisa aurrera dezaioket irakurleari, erlijio hitza mila sentidutan azalduko dela artikuluan, autore desberdinen hiztegiak erabiltzen bait ditut. Baina nik neuk positibuki hitza erabiltzen dudanean, goian aipatu bezala egingen dut, beste esan-nahiekin koloreztatu gabe. K. Rahner jaunak (Paulusgesellschaft-ek Salzburgen 1965-eko apirilaren 29-tik maiatzaren 2-ra egin bilkuran)

---

(2) PAUL RICOEUR: *Sciences humaines et conditionnements de la foi* (Semaine des intellectuels catholiques 1965), in Dieu aujourd'hui, Desclée de Brouwer, Paris.

(3) Ikus *Les deux visages de la théologie de la sécularisation*, Casterman 1970, 63. horr.

emandako sentiduan uste dut beharrezkoa dela erlijio hitza gordetzea eta beharrezkoa zaiola gizonari erlijioa. R. Garaudy jaunak proposatu zuen: "zuek erlijioa **gizonari** beharrezko zaiola frogatzen baduzue, orduen mintza gaitzke gure artean". Rahner-ek baietz uste du, bada, eta berarentzako erlijio zer den azaltzen du (erantzunaren zatitxo bat hautatu dut bakarrik):

**Geroaren, etorkizun absolutu eta definitibuaren arazoa planteatzen duena, denaren sentiduarena, osotasunean. Ez adierazpena, gutiago esplikazio bakarra. Geroa misterioan uzten dute gizon "erlijiodun" horiek. Ez da galdekizunaren erantzuna, eta bai galdekizunaren erabakia.**

Beste puntu bat, honekin zerikusi hestuan dagoena. Eman dezagun erlijio dela gainizadiak okupatzen dena, esan bezala. Baina nola egiten da harreman hori?

González Ruiz jaunak (4) dio, historian erlijioak naturazgaindiarekin bi lokera izan dituela:

—lotura "eskatologikoa" edo errealidadeaz haraindikoa (Jainkoa hutsezkoa da, doharikoa, debaldekoa, mundu barneko arazoak zuzenki konpontzeko balio ez duena —baina kasu: ez alferrekoa!—).

—lotura inmanentea (esan nahi bait da, mundu honen engranajeaz sartzen dena, mundu barneko esplikabide dena, gizarte-estruktura zenbaitetan eginkizun zuzen bat duena, Elisabeth Nottingham-ek aztertu duen bezala (5)).

Bi lotura-mota horietatik, lehendabizikoa da ontzat ematen duguna. Bigarren zentzu honetan, arik-eta zientzia hazi eta handitu arte eta giza-eboluzioa bere heldutasunera iritxi arte, bai, bere betebeharra izan duela uste dugu, eginkizun "subsidiario" gisa. Baina ez du gehiago. Horregatik ez gagoz Maurice Druon jau-

(4) GONZÁLEZ RUIZ, José María: *Dios es gratuito, pero no superfluo*, Marova, Madrid 1970, 101 horr.

(5) NOTTINGHAM, Elisabeth: *Sociología de la religión*, E. Paidós, Buenos Aires 1964. 42ss.



narekin, bigarren eginkizun hau ematen dio-ta kristianismoari, erlijioari.

#### a) Teologiaren bideak

Teologia, egun, ez dago lo. European nagusitu den saierarik printzipalenari Sekulargintzaren Teologia deitzen zaio. Teologia honen asmoa hau liteke, alegia, gizon helduari, modernuari, gaurkoari, dagokiokoen kristautasun jator bat eskaintzea. Teologiaren eremuan aintzin-urrats bat denik ezin uka. Baina —batzuk diote— XVII edo XIX (XVean ere!) mendetan eskaini behar ziren soluziobideak direla, eta ez gaur. Izan ere, alde askotatik, Renazimendu garaian hasitako bidearen gailurra da egungo arazoketa hau.

Bestalde, Teologiagintza honen geografia ez da ahantzi behar. Europearra da, edo hobe, sartaldetarra. Hori dela-ta, anbibalentzia batetan eroria dela salatzen diote. Zergatik? Teologia honen joera baitipat mundu hau justifikatzea, bedekinatzea (?) eta onartzea izan delako. Eta mundu hauxe da kontsumoko zibilizazioarena!

J. B. Metz jaunak zubi egiten duelarik (ene ustez), beste zenbaitek Iraultzaren Teologia presentatzen digu. Eta hain zuzen, esandako horregatik, Sekulargintzarenaren superazio eta gainditze bezala. Kristianismoaren profetismoak eta eskatologia deiek eta indarrek maitemintzen dituzte teologo hauek. Batez ere borroka lurraldeetan hasi eta hazi da Teologia hau.

Honen joerazko arriskua ere ezaguna da. Teologialari hauek kritikatzeko dutena bera, baina orain ezker aldetik emana: fedearen eta beste dinamiken arteko diferentzia txautzea. Fedearen eta munduaren arteko aldea ezabatzean etorri zen, Gogarteren gardiz, **Kristianismo ezarria**. Berdin liteke hemen ere, ezartzeko beste modu bat izan arren. Kontrakoez elkar ukitzen dutela esan ohi da. Ikusten da baietz.

Teologiaren objektuari eta eginkizunari gagozkiela ederki nabari da Teologiaren eboluzio luzea.

Teologia "sapientia" zenean (teologorik onena santua zen) izpiritu-gogoetetarako erabili ohi zen.

Erdi Haroan jakintza bezala azaldu eta erakutsi zen, eta bere eginkizun nagusia Gizadiaren eta gizakumearen izate sustriak, helburuak, arrazoiak —eta Arrazoiak!— bilatzea zen, osotasun galant batetan.

Renazimendu Haroko krisis bortitz haretan egindako ahalegin prometagarri batzuk aparte eta hauen ondoren, Elizaren bide ofiziala laister itxi zen, itxikeria horretan Protestanteen kontra jarraituz eta Trentoko Kontziliokoan finkatuz.

Honela, oraintsu arte, neo-eskolastika edo etorri zaigu, eginkizun gisa Hierarkiari laguntzea duela, (bereziki dogmak xehetuz eta mugatuz eta esplikatuz).

Kontzilioaz geroztik gure artean (Kontzilio aintzin Europa Erdian) Teologiaren eginkizuna zuzen-zuzenean ipini da mundu biziarekin, giza-problemekin, harremanetan: mundu *honen* beharrrak, eskakizunak, aurkikundeak, bilaketak, izuak, garraixiak, pozak... aztertu, aupatu, onartu, kritikatu, gaitzetsi... FEDEAREN ARGITAN.

## b) Soziologiaren egokitasuna

Bere oraingo eginbeharrari zuzenki dagokionez gero, errealdadea hurbildik ezagutu beharra du teologoak. Teologiagintzarako Soziologiaren beharra inoiz baino bizikiago sentitzen da (6).

Eta Vatikanoko II-aren metoduari begiratu bat emanaz, bide

---

(6) Soziologiaren Teologiarekiko laguntza alpatzen dugu. Laguntza, ez zerbizatzea. Soziologia esatean, errealdadearen ezagupen zehatz eta konkretuaz diharduen jakintza esan nahi da. Baina kasu!: Soziologiaren eta Teologiaren arteko lotura ez dugu Erdi Haroan bezala jartzen, hots, jakintzak oro Teologiaren zerbitzari eta morroin. Soziologia ez da "ancilla Theologiae". Zientzia bakoitzak bere ken-ezinezko nortasuna eta autonomia du.

horretatik jarraitzeko deretxo osoa dugu, batzuk eskubide hori ukatu arren, Kontzilioa bera horrexegatik kritikatuaz, alegia, Jainkoaren hitzetik hasi beharrean munduaren "denbora-seinaleetatik" hasi zela salatuz.

Dakigunez, Soziologiaren adar bat da, Soziologia erlijiosoa. Honen azter-gaia, konportamendu eta sineste erlijiosoak. Bere eginkizuna, errealidadea atxurtuz, handik datoak atera, analizatu eta ezdudiatzea. Baina bilaketa horien erlijiotasun-baliogoa neurtea eta horretaz azken hitza, teologoari dagokio. Alderantzira ikusita, berdin da: honek edo harek, holako edo halako erlijiotasun-datoak eskutan harturik, jokabide bat kondenatzen edo goraitpatzen duenean, esaterako alienaziotzat jotzen duenean, teologoarena egiten ari da. Hori Marx bera bada ere.

Erljio-soziologian, estudio asko egin da. Aspaldi honetan, holako gaiek haizea alde izan dute. Ni, hemen, batez ere Hervé Carrier eta Emile Pin soziologoek egindako lanetaz baliatuko naiz, ia denbora guzian. Eta lana amaigabe ez luzatzeagatik haiek erabilitako datoak barik, haien konklusioak eta (hipo)tesiak erabiliko ditut (7).

## B) ERLJIOA ETA GIZARTEA

### Zenbait ohar

- a)—Soziologoen ondorio hauetan, hautatutako gaiari bereiziki dagozkiolako, bi fenomenu azpimarkatu nahi nituzke:
- Erljio hitza (berdin fedearekin, kristianismoarekin) erabili arren, usu, hitz horiek estaltzen eta babesten duten errealdadea unibokoa ez dela. Hitz ekibokoekin jokutzen ari gara,

(7) *Ikus Essais de Sociologie religieuse*, Spes, Paris 1967. Liburu mardul honetan (593 horrialde), autoreen nahiaren arabera, eboluzioan ari den mundu barnean fenomenu erlijiosoen azterketa soziologikoak ematen zaizkigu. Muga batzuekin: Kristianismoaz eta Eliza katolikoaz bakarrik mintzo dira.

bada. Egiten zaizkigun, eta egiten ditugun kritika guzietan, ezin ahaztuzko gertakizun bat da hauxe. Zeren-eta, guzior joera da, bestearen erlijiotasuna mezipretxatzea, zokoragarritzat hartzea, alienaziotzat. Aherentzi egin ohi zaigu beste hau: garai bakoitzak, giro bakoitzak, kultura guziek ba dutela propio zaien erlijiotasuna, bere sinbolu, forma, eredu eta guzti.

—**Gizarteak** (zein neurritan erabaki gabe!) pertsonaren pentsaera eta izaera kondizionatu egiten duela. Erlijio arazoan, berdin; eskuindarrek uste duten baino askoz gehiago, gainera.

Sail honetan hirutan bananduko ditugun ikusera eta motibazio-modu horiek edonun eta edozeinengan aurki ditzakegula egia da. Bina Soziologiak biziki ongi seinalaturiko eta katalogatutako leku eta pertsona jakin batzuegan topatzen ditugu bereiziki.

Esate baterako, hiru puntuetako:

—lehenengo joera, nekazari girotan desarroitatu da.

—bigarrena, hirigotan eta jende landu tradiziozaleen artean.

—hirugarrena, berriz, mundua hobetoagotzeko eta gantziatzeko borrokan ari direnen artean.

b)—Lanaren luze-zabalean, hirigintza eta kaletartzea, denen gaintetik, gogoan ditugulako, gizarteak fedearen gain duen eragina aztertzen dugu.

Baina berdin ikus daiteke, beste puntatik ere, hots, fedetikusera desberdina izateak zein gizarte-dinamika desberdin sor dezakeen.

Hervé Carrier (8) jaunak Vogt eta O'Dea soziologoek Ameriketako Hegomendebaleko bi herritan egindako azterketa bat bakar bere liburuan. Baliogo-sistemek (kasu honetan erlijiozkoak) gizarte-estruktura antolamenduan duten eragina eta ondorioa frogatu nahi da.

Estudiorako, bi herri berdintsu hautatu dira. Berdintsu, lurrez, itxuraz, biztanlez; bizimoduz: biak nekazariak. Diferentzia bakarra, erlijioa zela esan genezake.

Lehenengo herria, **Rimrock**, Mormon erlijioerakoa da. Hauek Jainkoak hautatuak direlakoan dagoz. Eta horregatixe bata-

---

(8) Ikus aip. lib., 52-54 horr.

sunean eta erlijioaren gidaritzapean lanegin behar dutela. Bakoitzaren lanak, gainera, Jainkoaren etorrera prestatu egiten du.

Baina erlijio-baliogo hauek nola egiztazen dira gizarte-eginkizunetan? Lurlantzara pozik lotzen dira, bere erlijioa arbasoengandikoa delako, patriarka girokoa. Komunitate-erantzukizun handia dute, eta hauzo-lanetarako aisa biltzen da jendea; honela eginak dira ikastetxe bat, zenbait lur-erosketa... Elkarrekin bizitzea maite dute, eta horregatixe etxeak batabestearen ondoan pilatuak dagoz.

Bigarren herria, **Homestead** izenekoa da. Hemengo gizarte-egoera erabat kontrakoa da. Hamar erlijio-mota dagoz herri honetan. Psikologiaren aldetik, erlijio askatasunaren printzipioa da nagusi, gisa denez. Bideabar, bakoitzaren independentzia eta indibidualismorik handiena azpimarkatu dira. Lanaren bidez nork bere buruaren ugazaba izatera iristea du jomuga.

Konprenitzen da, beraz, elkar-lanak oso nekosoak izatea. Komunitatearekiko harreman hori lortzea, batasuna ardiestea, zaila baino zailagoa izatea aisa ulertzen da.

Adibide beretsuak ikus ditzakegu filosofia eta dinamika desberdinetako bi erlijio aztertuz ere, esaterako, judeguena eta mahometiarrena.

Baita ere, baliogoen aldetik orain ikusi dugun bezalaxe, beste hainbeste motibazioak eztertuko bagenu.

d)—Lanaren hastapenean, erlijioaren eta fedearen arteko hauzia aztertzen saiatu gara. Fedea eta erlijioa bi dira, ez bat. Esanik utzi dugu ere erlijio hitzaren azpian mota askotako usteak ezkutatzen direla. Hauxe bera ikusiko dugu oraintxe bertan garbi asko, jarraiko hiru ikusera erlijiosoak azaltzean.

Hiru joerok juzgatu behar baldin badira, kristau fedearen izenean, etorkizuneko hiru garrena bakarrik dela uste dut, eta jatorra ere bera. Zeren-eta lehenengoaren joerazko arriskua, sentidu txarean "erlijioa" bilakatzea da; eta bigarrenarena, "sagaratua" bilakatzea.

e)—Sail honetan, erlijioa eta gizartearekin gagoz. Erlijioaren fenomeno hau bi eratara emango dugu. Modu estatikoan lehenengo, eta dinamikoan gero. Lehendabizi, beraz, erlijioerak bere

horretan aztertuz. Bigarren, mogimenduan, gizarte-aldaira ardatzat harturik.

Zergatik hori? Lehen ere zertxobait aipatu dugu. Izan ere, lehenengo momentutik konturatuko gara fedea gizartearekin eta denborarekin zerikusi handiena duela (lehen marxismoaren kritika dut gogoan). Gizarteak fedea kondizionatu egin ohi du.

Bestalde, gaurko gertakizun nagusia, aldaira da. Zibilizazioa aldatzen-aldatzen doa, mundua aldatzen doa, gizartea aldatzen doa. Eta aldaketa mogimendu barnean bertan, industriagirora, hirigirora egin ohi dena da nabarmenena. Eta ez da geldituko gehiago. "Population Bulletin" delakoak dakarrenez (1960, iraila), 2.000gn. urte aldera munduaren erdia 20.000-tik gorako hirietan biziko da; eta 2050gnean, %90 hirigizonak izango dira.

Gauzak honela, nola funtzionatuko du gerora erlijioak? Ba ahal dago jakiterik? Gaurko nekazarien hiritartzeak zer erakusten du? Zergatik gertatu ohi da hori hola?

## **α) MUNDUAREN IKUSERA ERLIJIOSOAK**

Ba dakigu munduaren partiketa nahi den modura egin litekela. Erlijioaren arauera egiten dugu guk orain. Horrela presentatzen dugu: ikusmolde bat erlijioso bezala, eta beste bat, ezerlijioso. Zein da bien arteko aldea? Buru-arazoen antolamenduan, munduari buruzko pentsa- eta ikus-moldetan absolutu bezala Jainkoa sartzea. Hori da, eta horixe bekarrik. Harreman horiek (Jainkoaren eta munduaren artekoak) nola antolatzen diren... erlijio-mota desberdinak dira.

### **1.—Jainkoa "naturalki" munduan**

Hiru erataria gerta liteke Jainkoa naturalki egotea munduan: bat, mundua bera Jainko eginaz; bi, zenbait izakik Jainkoarena

eginaz (eguzkia, hilargia...); eta hiru, Jainkoa mundu honen egituran eta martxan normaltasun guziarekin egonaz.

Lehenengo eta bigarren moduak, gure artean, ezin daitezke orain bila, Kristianismoa, bere monoteismo eta guzti, gure lurretan sartu zenez geroztik. Gainera, lodiegiak dira ortodoxiaren orratz-zulotik pasa ahal izateko. Baina, hirugarrena, nola kristauki harturik ere nolabait zentzu zuzena izan dezakeen, onar daiteke. Halere, bere *joerazko arriskua* agertu beharra dago.

Jainkoa gauza guzietan eta beti presente ikusteak, kausa hurbilaren edo urkoaren lekua jan egiten du. Gizonak ez du mundugintzan garrantzirik, funtsean. Jainkoa da dena. Gizonaren jokatibidea: Jainkoaren borondatea, haren bedeinkapena eta zigorra, datorrena, etorri-ahala, onartzea izanen da. Obedientzia eta burumakurtzea dira gorenako bertuteak. Bekaturik beltzena, beraz, bertute hauei kontrajartzen zaiena, bistan da.

Bestalde, gizona familiatasun osoan bizi da Jainkoarekin, honen borondate honartzea aski da-ta horretarako. Inmanentzia aupatuz-aupatuz, azkenean Jainkoa mundu egin da. Gainizaditik izadira lerratzen da Jainkoa. Eta orduan zer? Dagoena ontzat ematen da; gertatzen dena da ona, ez gerta daitekeena; aldatzea ez da, horrela, Jainkoaren obra, baizik eta Jainkoaren kontra joatea. Estatismoa, geldikeria, dakar honek. Iniziatiba guzia Jainkoaren eskutan dago; hori dela-ta basa-egoera batetatik ateratzeko eta arrisku batetatik libratzeko, ahal dena egin baino lehen Jainkoari erreguka jartzen da gizona.

Ikusmolde honetan, gizartea eta erlijioa elkarren eusle dira. Izadiak Jainkoari arrazoia ematen dio, eta erlijioak izadia esplikatu egiten du. Indar naturalekin nahasturik dago Jainkoa. Jainkoa irabazi behar du gizonak, bere alde jar dadin, bestela ekaitza eta naturalezaren gainontzeko indar eskergak gainera etorriko bait zaizkio.

Non eman ohi da erlijioera hau?



Naturalezakin harremanetan diren lekutan aurkitzen da gehienik ikuspegi hau. Gure nekazarien artean, esate baterako. Ez diogu baserritarren artean horren xinpleki bila dezakegunik, beste mila influentzia osagarri ere izan bait dute. Baina giro horretako arrisku tendentziala hori da.

## 2.—Jainkoa ritotan bakarrik

Jainkoa, Izpiritu gisa kontsideratzen da, munduz bestelakoa. Mundutik arras apartekoa. Jainkoaren trazendentzia goraiatzen da, haren urrutia. Lekua, pertsona, denbora, dena, bitan zatikatzen du ikuspegi honek: *sagaratua* eta *profanoa*. Zorioneko bereizketa honek dena kutsatzen eta kondizionatzen du, goitik beheraino. Dualismo hau ikaragarri kaltegarri da.

Jainkoa handiegia da kreaturretan, izakietan, aurkitu ahal izateko. Eguneroko bizimodua, arrunta, arruntegia. Non, bada, bila? Rito sagaratueta, hauetan soil soilki aurki liteke.

Arrisku tendentziala? Ritualismoa, bere ondorio guziekin: Jainkoa ez da bizitzan sartzen; Elizak eta apaizek erlijioez eta gauza sagaratueta okupatu beharko dute, ez beste ezertan; etabar luze bat.

Ikusten da: bizitza bi zatitan dago, elkarraitzeko posibletasunik gabe.

Ez da lehengo giro berean aurkitzen erlijioera hau, zibilizazio jantziago, tekniko eta industrialetan baizik; herri aurreratuetan. Denok ezagutzen dugun liberalismo horrek sortua da, hein batetan, eta horrek sortu du liberalismo mota hori ere, bietara. Joera hau, herri xehean gutiago sartu da. Gizartea mailaka bereiziz gero, mailarik gorenekoetan nagusitu da pentsaera hau.



### 3.—Jainkoarekin mundua aldatzen

Jainkoak sortu eta gizonari eman zion mundua, honek goza eta osa dezan. Beste era batera esanda, mundua ez dago bere horretan osatua; eginkizun bezala jaso du gizonak, bere funtsa eta legeak ikas eta erabil ditzan.

Mundugintza, gizonari dagokio. Bere terrenoa da, enkarguz hartua gainera. Aldakuntza-dinamika aupatu behar da, eta gaurko aurrerakuntza eta aintzinamenduetan diren alderdi onez jabetu, dela ekonomia desarroiloan, dela kultura ekintzan, berdin zorte berdintzean, bake ahaleginetan...

Joera honetako Jainkoa ez da zulotapatzaile, ez eta munduko gorabeheratan kausa urkoa, gizona aski handi eta heldua bait da; ez munduko fenomenuen esplikabide ere, hori zientziaren eginkizuna da-ta.

Ikuspegi hau nagusitzen doa, kristau herrian. Ebanjelioaren argiarekin mundua hobeagotzen, mundu hau aldatzen saiatzen direnak... joera horretakoak dira. Gaurko gizonari dagokion kristianismo-era bat eskaintzen ahalegintzen direnak, nik uste, alde honetatik jotzen dute. Joera hau, beraz, *gaur bizi diren kontzientzia* duten talde kristauena dela esan daiteke.

### b) ERLIGIO MOTIBAZIOAK ETA GIZARTE ALDAKETA

Gaia esplikatzeko eta mugatzeko, bi ohar:

**Motibazioez mintzo gara.** Emile Pin soziologoak aditzera ematen duenez, erlijioari buruzko inkesta bat bi eratara egin liteke: edo instituzioei begiraturaz edo motibazioak aztertuz. Motibazioen edo barne-arrazoi eragileen metodo hau hautatu du berak. Eta egia esan, gure gaiarentzako, askok ere hobea dela bide hau uste dugu, horrela azalean barik zuzenean sakonera jotzen bait dugu. Zeren-eta instituzgo berean motibazio-mota asko kabitzen da.

Erljio mogimendu baten egiturak analizatzea ez litzake aski,

gure eginkizunerako, Ez eta ere (Gabriel Le Bras jaunak dioenez) ez da nahikoa, dela fedearen dela erlijio mogimenduaren filosofia eta dotrina aztertzea; erlijio-kideen motibazioak, sinesteak eta barne-jokabideak ondo gogoan eduki eta ondo zehatz arakatu behar dira.

**Gizarte aldakuntzaz mintzo gara ere.** Aldakuntza hau mila modutakoa da. Baina denok gatoz bat, gaurko aldairarik nabarmenena, baserri girotik hiri girorako hori dela juzgatzean, industria-aurretik gizarte industriar eta teknikora kanbiatzean gertatzen dena. Zibilizazioa (beraz, gizartea, pertsona) "kaletartzen", indus-triatzen, hiritartzen ari da. Herri gibelatu (eta ez hain gibelatu) guzian problema larria, konprenitzen denez, honetantxe dago: es-truktura berri hauek gizakumearen pentsa- eta bizi-moldea beste era batera taxutzen eta moldatzen dutenez... lehenago biziera zaharretik, zer den baliagarri eta zer arbuiagarri erabaki eta orduan, baliagarritzat eman dena, gaurkotu. Hau da, nere ustez, fedear ere Euskal Herrian dugun premiarik handiena. Su-katiluaren beharretan gagoz, gure fedea garbitzeko: fedearen alde gagozelakoan, ohitura eta egitura zahartuak defenditzen ez gaitezten ibil. Horretarako, erabili ohi den Jainko hori hil egin behar dugula esan da. Eta arrazoiz.

## 1.—Erljio motibazioak

Oinarrizko motibazio hauek munduaren ikusmolde oso bati lotuak datoz. Ba dakigu: ikusmoldeak kondizionatu egiten du bizi-modua, eta, berebat, bizierak ikusmodua. Betiko zirkuloa.

Pontu honetan, *zergatik eta zertarako* erlijio-eginkizunak bete ohi dituen gizonak aztertzen da. Erljio-kizunak konplitzea, gauza bat da; eta oso diferentea zergatia, arrazoia jakitea. Eta gu, horren atzetik gabiltza. Arrazoi eta era horiek, erlijioaren aldetik esaminatzen ditugu orain, gero gizartearen, taldearen, aldetik egiteko asmotan.

## Kosmologia motibazioak

Munduaren historian lehendabizi agertu bide den erlijioera, kosmologikoa edo biologikoa da. Aisa ulertzen da horrela izatea, gizon haren lehen beharrak eta eskakizunak gogoan hartzen baiditugu. Inguratzen zuen izadi hura dena, adiskide eta etsai, etsai eta adiskide zitzaion antzinateko gizonari.

Gizona izadiak menderatzen zuen. Gizona indarge, bilutsik, desarmaturik aurkitzen zen, naturaleza ustez ahalguztidun haren aintzinean. Indar guzien kabia, gizonarengandik at dago. Eta indar horiak, misteriotsu, izkutu, eskerga, ikaragarri presentatzen zaizkio. Eta, handik bizi zenez, bere beharra zuen denerako.

Zer egingo? Eskatu. Euria, eguzkia, uzta ona, osasuna, zorientasuna, oparotasuna, trumoiak urruntzea, legortetik eta uholdetatik libratzea. Eskatu eta eskaini. Indar kapritxoso horiek baretu beharra dago. Sakrifizioak eskainiaz noski. Politeismoaren garaian, pertsonifikatzearen bidez indar bakoitza jainko denez gero, beharkizun bakoitzerako jainkotxo bati. Monoteismoarekin, Jainko bakarra izanik ere, motibazioek berdintsu iraun dezakete.

Gizakumearen erlijio praktikaren helburua naturaleza adiskidetzea da, eta, egia esan, naturalezaren kontra joaterik ez du (esaterako, nekazariak, arraintzaleak), bere biziaren truke ez baldin bada.

Erljioera honetan, etika, moralak, oso bigarren mailan gelditzen da. Norberaren bizitzak, onak ala txarrak, ez du halako inportantziarik.

Nola iraun dezake erlijio kosmologiko honek, hirira, herri industriatsutara jeisten denean?

Jainkoarengana edo jainkoengana joteko gizonak zuen mila arrazoi, kolpe batez, irrazionalkeriaren amildegian erortzen zaio. Euria eta eguzkia ez dira lantegian hain beharrezkoak. Osasunerako, midikua dago. Makinaren bat ez dabilenean, teknikariari

deitzen zaio. Lehengo otoitzen eta sakrifizioen arrazoiek ez buru eta ez buztanik dutela iruditzen zaio.

Uri girotan sartzean, motibazio honek bultzaturik bizi izan diren nekazariak, hauetxek dira erlijio arazoa lehenik baztertzen, arbuiatzen eta gorrotatzen dutenak. Uri askotan eginikako inkesten dudagabeko ondorioa da hau.

### Salbamen motibazioak

Esan bezala, kosmologiari eta biologiari zuzenki lotzen zaion erlijioera lurlantzako gizonarena da bereiziki.

Baina erlijioaren beharra ez da nekazaritza abandonatzearekin galtzen. Gizonaren barrena, giro honetatik kanpora ere, industriagintzako lanean ere, beti zula dezake etengabeko galderaren batek, edo geroari buruzkoak, edo heriotzarenak, edo bizitzaren sentiduarenak... ez dakit.

Galde horietaz, *segurtasun bat*, *garantia bat*, ikusiaren gaitetik eta geroztik dagokeana nahi dute askok. Geroak, salbamenak... larritzen ditu. Orduan, erlijioa, salbamen-bide da. Eta horixe eskatuko zaio erlijio horri, zeru-bide izatea.

Geroko eta goiko mundu horretan hainbeste aldiz begiak jarriaz, beheko eta oraingoarekin duen lokarria hautsi egin da. Hona lehen ere aipatu dugun dualismoa. Eta hain zuzen dualismo honek bultzaturik, mutur bati neurrizgaineko inportantzia eman ez beste aldea ukatzeraino ailegatzen da joera hau, dela aszetismoan, dela laizismoan.

Zer gertatuko ote hiritartzean?

Erljioera honen funtsari hiriak ez dio zirkinik egiten. Industria giroak ez bide dio deus kentzen (eta agian eman bai!), zeren- eta, teknikaren bidez mundua menderatu nahi duenak, horretxek dakizki hoberen teknika horren ahultasunak eta neurriak ere. Eta muga hurbildik ikusten duenak erneago du mugaz harain-

dikoaren irrikia. Horregatik gertatzen da, anitzetan, elizkoiak, injineru, midiku eta holakoak direla, alegia, bai teknikaz eta bai gizakulturaz (biak batean) ongi jantzitako jendea.

### **Mistika motibazioak**

Maitasuna, lagunurkoa, Kristoren agindua...: hona hirugarren erlijioerako indar eragileak. Huts-hutsean Jainkoaren mezuari darraizkionak dira holakoak. Jainkoa, pertsona gisa hartuaz, berari hertsiki atxikiak.

Erljioera hau ez doa "abantailen" bila, ez oraingoan, ez gerokoan. Jokabide honen ikertzapena egitea ez da batere erreza, motibazio hau berezkoa ez da-ta. Eta, gainera, gizarte-mota bati loturik ere ez dago. Nola ezagutarazi? Negatibuki, hau da, (Kristoren mezu jatorraren izenean) oraintsu ikusi ditugun bi ikusmodu horiek salatu eta ukatu egiten dituztelako joera honetakoek. Gizarte batetan bai, baina bere fedea gizarte horren gainetik (denboraz eta lekuz) dagoen zihurtasun osoa dute.

Elizkizun eta ritoak onartzen dituzte, baina ez gizakumearen berarizko zenbait beharkizuni "erantzuna" ematearren, baizik-eta mezu baten eskabideagatik. Horregatik beragatik dira hain gogor kulturazko, ohiturazko, kristianismo baten aurka.

### **2.—Gizarte motibazioak**

Bigarren mailako eragimenduak dira hauek. Erljioaren terrenoa ngabiltzanez gero, arrazoi erlijiosoak dira inportanteenak, zalantzarik gabe. Haatik, oinarri soziala duten atxikimendu hauei ezingo zaie oneski bere garantzia kendu.

### **Kultur-motibazio berarizkoa edo herrikoa**

Industria aurreko gizarteak, zibilizazio sagaratuak dira. Ohi-

turen eta usarioen hesparru berean sartzen da erlijioa ere, legearenean sartzen ez denean.

Herri hauek ohituraren eta tradizioaren gidaritzapean bizi dira. Erlijioa, hemen, herri kulturatik ez da kontrabereizten. Erlijio bizitza herri bizitzaren alderdi bat da. Erlijioakizunak, denek kultura patrimonio dira. Honi deritzaio, gure kasuan, delako kulturazko katolizismoa. Baina Kristianismoan gertatu ohi den fenomeno hau, nahasmendu askoz ere handiagoarekin ikusten da zenbait musulman herritan. Judeguen erlijio-problemaren Akilesean orpoa ere hortxe dago.

Bestalde, gizarte era hauek batasun osokoak dira, monolitikoak. Baina gizarte monolitiko hau urtu egiten denean, plural bilakatzen denean, zer? Bere erlijio arazoak lur jotzen dute aktoan, holako kasutan Elizan soziedadearen bidez parte hartu ohi delako. Eta jakina, soziedadez aldatzean, lehengo soziedade horrek bitartekotasun hori ez du gehiago egiten, eta berria (industria harokoa) pluralista denez... kitto erlijioa.

### **Sozio-kulturazko motibazioak**

Erlijioa gizarteko elementu bat da. Ez da esan nahi beste zerbaiterekin nahasten denik. Ez nahasten, baina bai bere lehen eginkizunetik kanpo erabiltzen: gizartea osatzeko, biltzeko, integratzeko. Askorentzat, erlijioa herri bakearen garantia da, eta *status* soziala ankaraz gora jarri nahi liguketen iraultzen kontrako babesa.

Hortik hauen gaurko dramaren latza, erlijioak zenbait lekutan hartu duen jokabidea ez bait da integrazioarena, nazioaren edo taldearen sostenguarena egitea. Joera honetakoak, zuzen zuzenean Elizaren profezia-eginkizunaren kontra dagoz. Gizarte aldaketak gaixorik jartzen ditu, zer esanik ez Eliza hor badabil animatzaile.

Erljio estruktura barnean jarraitzen badute hainbeste sofri-tuarren, bi arrazoigatik izan daiteke:

- edo erlijioari betiere ezin utzizko herri funtzionaltasun bat bilatzen eta aurkitzen diotelako,
- edo motibazio primarioagatik, hots, salbazioa lortzeko Eli-za edo Instituzgo baten gerizapean egotea beharrezkoa dela sinesturik dagozelako.

### **Sozio-erlijiozko motibazioak**

Erljio-gizarteari edo talde erlijiosoari zuzenki lotzen zaizkio motibazio honetako pertsonak. Gizarte erlijiosoa gizarte osoarekin baturik ala bereizturik azaldu, beti, hautapen pertsonal baten bidez, ez oharkabeen edo ohituraz, hartua da.

Teknikazko zibilizaziora aldatuarren, bere erlijio-pentsaerak ez du zertan kilikolorik egin, ez du ganbiatu beharrik. Motibazio klase hau ez da gizarte maila jakin batetan, ez giro batetan, ez haro batetan, kokatzen ahal.

Mistikazko motibazio primarioarekin uztarturik agertu ohi da. Motibazio mota hau, kristau hezi eta landuen artean aurkitzen da, eta talde espezializatuetan ere: AC, JOC, eta holatsuko mogi-mendutan baitipait. Eta ondotxo dakigunez, hauek ez dira, aldakuntzak, zirkinik gabe, irauten dituztenak bakarrik, baizik eta, anitzetan, teknikaren sartzailerik eta eragilerik amorratuenak.

### **d) IRITZIAK HAUZITAN**

Erljioari buruzko ustekizunak, arras bitaratzen dira.

Marxismoak uste du erlijioak, fedea, kristianismoak ukitzen eta tratatzen duten arazo horren oinarria, ekonomikoa dela. Eta uste, iritzi, sineste eta fede, hori dena sortu bada, Gizadiaren

eta ekonomiaren atzerapenagatik izan dela. Erlijioak ez du etorkizunik, beraz.

Kristianismoak ez du hola pentsatzen. Guk, fedea iraungo duela uste dugu, bere autonomia duela. Ez, noski, lehengo kondiziotan, lehengo hiztegiarekin, etab. Fedea, gaurkotu beharra dago.

Gizarteak fedearen gain duen eragina estudiatzen dutenez gero, bi iritzi nagusi hauek ikusiko ditugu orain.

### **Erljioa: ideologia?, gainegitura?, epifenomenua?**

#### **Marxen iritziak**

Alessandro Russo eta Riccardo Lanzoni jaunek egindako azterketan (9), Marxen erlijio-ikuseran hiru etapa dagoz:

- 1835-etik 1842-ra, Aufklärung-en dizipulu den Marxentzat, erlijioa gezur hutsa da, arrazoizko oinarririk gabeko jokabidea, zientziaren kontrakoa, gizonak autokontzientzia har dezan traba, eta norbere buruaren eta autonomia osoaren kontrakoa.
- 1843-tik 1845-era da bigarren ikustaroa. Bolada honetan, erlijioa gizonaren benetako izatasunaren (esentzia soziala, noski!) alienazioa bezala kritikatzten du.
- Hirugarren epea, 1845-ean hasten da. Materialismo historikoa zertzen ari den momentu honetan, erlijioa (materialismoaren “reflejo” edo ispilutze) bezala agertzen zaio.

Erljioa, gainegitura da, hots, estruktura artifizial eta sekundarioa, epifenomenua, eta burgesiaren eskutan dagoenez gero, errealidadea izkutatzeko eta engainatzeko asmoarekin sortua eta erabilia.

Zer kritikatzten du hemen Marxek? Erljio-forma batzuk? Erli-

---

(9) Ikus *Sociologie marxiste de la religion dans les pays de l'Est*, in *Idoc*, n° 34.



jioaren gizarte-erabilkera gehiegia, usuario politikoa? Ez al du erlijioa sustraitik ukatzen, bere izate-arrazoiak, agerpenak eta guzi? (10).

Nere ustez (aitortzen dut Marxen pentsamentua sakonki ez dudala ezagutzen), alde guzietarik aztertzen du eta ukatzen Marxek erlijio fenomenua:

—Jakintzaren aldetik, munduaren kontzientzia aldrebestua ilusiozkoa eta faltsoa delako, eta burgesiak atzekoz-aurrera itzultitako giza-balioekin mantentzen delako.

Gainera, zientzia mundua esplikatzen doan neurri berean, eguzkiarekin goizeko lainoaren desagertzearen antzera, Jainkoaren hipotesia, izaturik, lekuz tipitzen eta galtzen doa.

—Etikaren aldetik, herriaren opioa delako erlijioa, gizonak desalienaziogintzan eta gizartegintzan esku-har dezan uzten ez duena. Renazimendu haroan ereindako hazia da ustekizun honek funtsean daramakien dilema: Jainkoa **ala** gizona; geroago, Polonian, Kaminski-k esango duena: Jainkoarekin harremana **gizonarenganako etsaigoan** oinarritzen da.

—Historiaren eta politikaren aldetik, kontserbakorra delako eta klase menderatzailearen eskutan zapalketa-tresna.

Zergatik Marxen halako joera?

Marxek historiak duen pentsamoldea ezaguturik, aise ulertzen da zergatikoa. Historia (linea bat) beti aurrera doa. Beti aurrera. Baina aurrerapen hau ez da bapatean eta zuzenean egiten, baizik eta haustura eta etendura batzuen bidez.

Historiaren periodu bat beste bategandik bereizten duen mugaharria, haustura edo ebaki kalitatibu hauxe izan ohi da, erreboluzioaren bidez lortzen dena. Periodu bakoitza, denboraldi horiek, kolore, kalitate, giza-balio berekoak dira.

Gure gaurko historia-une hau nolakoa ote da? Gaurko ebo-luzio-maila honetan gizonaren drama, hau da: bere baitan zatika-

---

(10) Hala uste du Charles Waskenheim jaunak (ikus "Dieu aujourd'hui.", 104-105), eta dio, alde batetik, Marxek egindako kritikatik libratzearen egin ohi ditugun bereizketa (erlijio-fede, etab.) horietan ez dugula beti garbi jokutzen, fedeak berak ere erlijoiakizun zenbait daramakiela ondo gogoan eduki behar delako. Eta bestetik, bere ustez, Marxek fedearen objektu eta sujetu, bien oinarriak jan egiten dituelako, konponbide bat inondik ere eskaini gabe.

turik dagoela. Zergatik? Lanak, gaurko sistema honetan, gizonortasuna osatzeko eta asetzeko ez duelako balio, lana gizonarengandik kanpo dago-ta, kapitalaren zerbitzuko. Lana ez da egun kreatibidade-iturria. Eta gizona kreatzailea izaki.

Hemen datza sustraia. Eta sustraia usteldurik dago. Dena dago, beraz, orain kutsatua. Eta bizimoduak determinatzen duenez gero kontzientzia, alienaturik dago, hain zuzen Erljioaren eta Filosofiaren oinarria den, kontzientzia hori. Zirrikiturik gabeko logika, Erljioa, superstrukturari dagokio, ez da dudarik.

Historiaren konzeptu honekin, sinesturik dago Marx, historiaren epe berria den sozialismoaren sartzearrekin, (periodu zaharrekoa delako) erlijioa erabat hondatuko dela. Nola ez, bata nagusitu-ahala... bestea hil. Konbentziturik dago Marx erlijioaren ezingeratuzko galera automatikoaz. Noiz gertatuko? Esana da: aurre-historia igarota gero, sozialismoa, historian, hezurramitzen denean.

### **Zenbait marxisten iritziak**

Ez dago hain segur gaurko zenbait marxista, erlijioaren etorkizunaz.

Erljioaren fenomenua, marxista askok erabat diferente epaitzen dute gaur. Aldaketa hau, gehienbat, analisia enpirikoetatik etorri da. Teoriak eginen arauera neurtu behar direla pentsatzen da egun; bereiziki, teoriak aspaldikoak direnean, eta gaurkoak, eginak.

Ideologoen igarletzak huts egin du. Profezia haiek ez direla bete kargutu da soziologoa. Gizarte sozialistetan ere alienazioak oraindik bizirik (ondo bizirik!) irauten dutela ikusi da. Erljiozkoa ere! Honetantxe dago (ez erlijioan, baizik bere maisu nagusien dotrina hartzeko maneran) marxisten arteko sokatirarik nagusie-

na, Erlijioari gagozkiola ere berdintsu da. Bi irizkera nabarmen-tzen dira:

—Dogmatikoena, bat. Alienazio horien iraupenak ez du deuse-tako maisuaren teoria aldatzen. Gertatzen dena, beste hau da: oraindik ere soziedade horiek ez direla erabat eta osoki sozialistak. Pasaiaiko momentuan dagoz.

Gizarte komunista agertzearen eta erlijioa desagertzea-tzearen artean kausa-efekto erlazioa dago.

—Bigarren irizkerak teoriaren birpentsaketa oso bat eskatzen eta eskaintzen du. Ikuspuntu desberdinetatik ukitu ohi da gaia: honentzat, erlijioak bere autonomia du; harentzat, gizarte-kondizionamenduak ezin dezakete gertakizun erli-jioa bere osotasunean inolaz ere esplika; hirugarrena- rentzat, erlijioak izan dezakeen dinamikak gizarte sozialista bat eraikitzeke indar apartekoa izan lezake. Etabar luze bat.

Birpentsaketa honetan, aipatzea merezi du, 1963-an, Bergamon Togliatti-k egindako hitzaldiak:

...Kontzientzia erlijiosoaren desarroiloari buruz ez dugu gehiago tesia xoxo eta oker hura onartzen, alegia, gi-zarte-estrukturak birmoldatzen direnean eta gizonak zientziaz jantziago egiten direnean, erlijioa erabat eta sustraitik aldatu dela dioena. XVII mendeko Iluminismo-tik eta XVIII mendeko Materialismotik datorren tesi hau ez da Historian egiztatu. Erroak, izan ere, sakonagoak dira, aldaketak mila erataria burutzen dira, errealidadea askomoduzkoagoa da.

Bestalde, Marko Kersevan marxista slovenoak, erlijioa epi-fenomenua ez dela, atera du ondorio gisa. Gizarte antolamenduaren eta ekonomia moduaren oinarrien ispilutze (reflejo) ez da erlijioa, eta, gainera, bere autonomia erlatibua du, praktika ekonomikora muga-ezina, esan du.

Eta azkenik (amaigabe ez luzatzeko), Ipar Moraviako feno-

menua estudiatu ondoren, eta birpentsaketa giroan sarturik dagoen Erika Kadlecovak-aren galdera aidean uzten dugu:

Erljio-beharra, gizartearen iraulketa oso baten ondoren, iraultza sozialistaren ondoren ere ematen ahal da? Honetaz Estadua liberatu da eta inork, gaurko gizarte-klase berrietan, ez du erlijioa haintzat hartzen.

Baina funtsean, zer adierazten du gertakizun honek? Benetan bizi dugun errealidade bat, ala ez ote gehiago geure pentsaeraren hondakin tradizional bat, gaur egunean bere bizi-justifikazioa aspaldi galdua duena, eta irauten badu ez ote, bada, kontzientziaren atzerape-naz Marxen tesiak ilustratzeko soil soilik irauten?

### **Fedea gizarte berri baten aurrean**

Gaur egun Gizadia historiaren une berri batetan aurkitzen da, aldaketa laister eta sakonen gero eta hedakuntza zabalagoak bereizten duela... Hori dela ta, mintza gaitezke orain, erlijio bizitzan ere eragina duen benetako aldaira sozial eta kulturalaz.

(Kontzilioa, G.S., 5, 2)

Onartu ala kondenatu, aldakuntzaren kontzientzia guziok dugu. Eta giro hau oso seriotan hartu behar dugu, askotan esan denez, gure gariaren ezaugarri bait da; halanola:

- aldaketa demografikoak, hirigintzaren iraultza, komunikabide sozial eta geografikoen hedatzea eta ugaltzea.
- teknikaren aurrerapenak (efikaziaren arduraren ondorio bezala), zientziazko pentsamoldea.
- gizonaren heldutasuna, balioaren eta nortasunaren kontzientzia, politika trebetasuna, humanismo bilaketa, sekulargintza...

Munduaren transformaketa honek erlijioera aldatu egiten duela aldarrikatu du Kontzilioak. Bistan da zergatik. Fededuna, gizon historikoa da. Eta hein handi batetan, historia horrexek taxutzen

eta moldatzen du. Lehengo pentsaera bati loturik nola emanen dugu, bada, gaur fedea? Gizonaren eboluzio-maila bereko fedebiziera bat eskaini beharko genioke, fedeari berari eta gizonari leial bagintzaizkio.

Nola, izan ere, gizon honi, historiaren egiletzat eta izadiaren jauntzat bere burua jotzen duen honi, erakus dakiote gure alferkeriaren zulotapatzaile, gure giza-bildurraren eta ausardiarik ezaren babes eta gerizabide den Jainko bat?

Nola, teknika haroan murgildurik dagoen gizonari, erakus dezaiokegu Jainkoa munduko gorabehera guzien esplikazio eta egile hurbil bezala?, teknika hori, sarri asko, Jainko horren kontra, Prometeoren borrokarekin jaioa, delarik?

*Fededuna, gizon historikoa da.* Eta gizon modernua gaur bizi da, eta ez atzo. Gaurkotasunez jaso beharko du, bada, bere fedea, Erdi Haroko edo XVII mendeko bilaka ez dakion. Gaurko problematika guziarekin. Horregatik hain zuzen, gure arbaso eta gurasoen neurrira egindako fede-molde hori gure gaurko neurritarako desegoki izatea. Haienezako ondo zegoena, guretzako ez duke balio.

Pontu hau zehazki aztertu behar litzake, gaurko “erorketa”, “abandonatze” eta “galera” anitz fede gabeziari edo ahuleziari, besterik gabe, itsasi aurretik. Inmobilismoa finkatzeko, alda-beherra ukatzeko, birpentsaketatik dotore libratzeko atxakia politegia da ta. Fedearen esentzialismoa, fedea denboratik at dagoela, gehiegi azpimarkatzen dutenak, immobilismoan erortzen dira eta immobilismoak fedearen dinamismoa hil egiten du. Ahantzi egiten dute, hizkuntzak, kulturak, gizarteak eta gainontzeko hamaika errealidade kontuan eduki behar direla. Atzo, atzokoak; gaur, gaurkoak.

Fedea beti historia batetan enkarnatzen da, beraz denbora eta leku batean. Egia da. Halere, ez dugu uste historia honek fedearen muina erabat esplikatu lezakeenik. Fedeak, erlijioak, bere autonomia

du, beste ezerk ez inork jango ez diona. Horregatixe ez dio fedeak bildurrik etorkizunari, hiriari, industriagintzari, mundu modernuari (11).

Atzoko ezkontzak, gaurko diborzioak bihurtu zaizkigula? Baina ari dira, ezkontza berriak ari dira sortzen. Henry de Lubac-ek zioena egia delakoan nago: "Gizadiak pentsamolde bat baztertzen duen guztietan, Jainkoa galdu duela *uste izaten du*". Aldaketaren prezioa, agian. Ez ote fedearen garbiketa beharrezkoa?

---

(11) Baserritik hirira aldatzen den gizonaren fedeak daramakien abiadura ikusiaz, ba dira, gainbeheraka horregatik, fedeari bizi-haro laburra eman ohi diotenak. Ni ez nator objezioak askatzera, baina hauzi hau garbitzeko Pin jaunak egindako analisietako ondorioak hautatzen ditut. Ondorioak, oso konkretuki aztertu duenez, asko dira. Bi bakarrik aukeratu ditut:

—Erljio-izpirituaren hiltzailea ez da, berez, hiria, eta bai urira gertugabe joatea eta osoki bertakotu barik han egotea.

—Ez hiria eta ez industriaren arrazoigintza ez zaizkio arlijioari etsai, Jainkoaren eta gizonaren arteko lotura "mundu honetan naturalki" ikusten duen erlijioasun-moduari baino. Industria-aurreko zibilizazio sagaratuan erroturiko erlijioerak, horrek bai hartu behar dituela industrializazioak eta urbanizazioaren eraso bortitzak.

## BIBLIOGRAFIA

- (Lanean aipatuz gainera, erabilitako liburu edo artikulua).
- FABRI, LUIGI: **Los comunistas y la religión**, Edicusa, Madrid, 1968.
- DOMERGUE, RAYMOND: "Una lucha política: la crítica de la religión", in **La fe, fuerza histórica**, Estela, Barcelona, 1971.
- ECHARREN, RAMON: "Transmission de la foi du point de vue des conditions des structures sociales d'aujourd'hui", in **Concilium** 53, Mame, Paris, 1970.
- BRUSSELMANS, CHRISTINE: "Catéchèse adaptée à notre époque et initiation liturgique", in **Concilium** 53, Mame, Paris, 1970.
- AZURMENDI, JOSE: "Gaurko marxismoa erlijioaren aurrean", in **Jakin**, Arantzazu, 1967.
- DOMINGUEZ-CASTAÑEIRAS: **Fe en el mundo de hoy** (polikopiaturik).
- BAMBERGER, J. E.: "La religion est-elle une illusion? Défi de Freud à la Théologie", in **Concilium** 16, Mame, Paris, 1965.
- OGDEN, S.: "Proclamation chrétienne de Dieu aux hommes du soi-disant "Age athée". in **Concilium** 16, ibidem.
- VAHANIAN, G.: "La question de "la fin de l'ère religieuse" dans sa signification théologique", in **Concilium** 16.
- FETSCHER, I.: "Variations de la critique marxiste de la Religion", in **Concilium** 16.

FEDEA, EGINKIZUN  
iñaki bereziartua



Historiak ba ditu bere ostikadaldiak. Eta horietako batean sarturik dagoela uste dut Euskal Herria. Mila arrazoi aipa daitezke kinka honen iturburua argitzeko... Gertakizuna soil-soilik har dezagun: fedeari, kristautasunari dagokio.

## **EGUNGO EGOERAZ**

Orain artean fedea zerbait jakina, emana, hartua izan da, gehientsuenetan behintzat. Egun, fede hau berau epaitua, eta galbaitua ikusten dugu. Eman eta hartua izan dugun fedea ez dugu holakotzat hartu nahi; eman zaiguna, zergatik eman zaigun galdegiten dugu. Eman zaiguna ikusita, besterik zergatik ez zaigu ezkaini: eman zaiguna ote onena, egia, zuzenena... Honelako mila galdera egiten dira egun: gauza bat da fedea emana eta hartua izatea, eta beste gauza bat eskainia eta aukeratua izatea personalki.

Gaurdaino, nekazaritza-giroan bizi izandu geralako, "nor-

malena" sinestea zen. Egun, industri-aldi berri honetan sarturik, "normalena" ez bai gelditzea izanen da, edo ez sinestea, edo fedea uztea... balio ez duen gauza bailitza.

Orain artean, kristauek eskatzen zituzten hitzaldiak holakoak-edo ziren: laikoen betekizuna Elizan, politika eta fedea, heziketa eta fedea... Egun beste batzuk dituzu: Jainkoa eta gizona, eta honen askatasuna; Kristo nor da; erlijioa eraginkorra? ,fedea *balio* ahal du mundugintzarako, Elizak funtsik ba ahal du gizartegintzan?

Hamaika horrelako galderak adierazten digu, nabarmenki adierazi ere, egungo gazteentzat fedea ez dela Herri batek bere Kulturaren daramakien balio bat, hizkuntza bat bezala... norberak egiten duen aukera bat baizik. Ez daude ados eman zaienarekin; emana ber-ikusi behar dute, epaitu, galbaitu... Hartzeko, noski, edo uzteko.

Egun ez da ezbaian jartzen holako edo alako egi zehatz bat: fedearen esanahia, funtsa galdetzen da: fedearen funtsa biritza baten barruan, gizatasunaren heziketan, nortasunaren lantzean. Jainkoa, Kristo, Eliza... Jainkoaren lanaren ondorio ditugu, ala gizonaren premien, bizi-premien fruitu eta betegarri? Egia ahal dugu Jainkoa munduan sartu dela, ala gizonak sartu du Jainkoa munduan? Jainko horrek ba ahal du bere izatenik, ala gizonak eman dio, bere eskasaren betegarri? Galdera hauek ditugu egun mahainean daudenak.

### **Fedea non koka?**

Hauek horrela direlarik, eta egiaz eta benetan kinka interesgarri batetan sarturik gaudela, kristau fedea bizitzeko erari begiratuta, pentsa genezake fedea gaixorik ote dagoen, galtzen ote doan, ahultzen, hazitzen, garbitzen, heldutzen... *Gauzak* sinetsi ditugu, eta orain gauza beroien argibideak gizonarengan aurkitzen

ditugu: gizonak bere arrazoi-indarrez, aurrerapenak bitarteko, ematen die zenbait problemei erabakia, eta fedea ez daduka non koka, aidean bezala gelditu zaigu, oinarririk gabe... Beraz fedea zertarako, zenbait argibide gizonak berarengan aurkitzen baldin baditugu?

Norbaitek esan dezake egungo gizonak adimen ahulagoa dadukatena fedezko arrazoiak konprenitzeko: ahulagoa, "Jainkoa ba dela" froga dezaketen argumentuak onar ditzaten. Horrela pentsatzea iheskeria litzake. Lehengo eta oraingo gizonak berdintsuak ditugu: egungoa, eta hau aitortu beharra dadukagu, fedearazoetan, lehengoa baino zorrotzago dugu: argi gehiago eskatzen du, dogmakeria gutiago, eztabaidarako egokiera gehiago fedez: "eman, emana izan zaigulako bakarrik ez dute onartzen egungoak". Arrazoi bideak, ahal balitz denak, erabili fede-bilatze horretan.

Fedegaltze edo ahultze honen argibide edo esplikabide bezala beste zerau diote: ohiturak okertzen direnean, etika-jokaerak malkurtzen direnean, fedea gaixotuta gelditzen zaigu. Gizonak beren gizatasunean, haragi alderditik edo sentipenaldetik dituzten irritsei jarraitzen baldin badiete —diote—, ez dute holakoek Jainkoaren Hitzarentzat irekitasunik. Jainkoaren deiak eta kontzientziaren hotsak itota gelditu ohi dira irrits horien menpe. Irrits aseak edo ase nahiak mututu egin ohi du barrenaren deia. Fedea, eta honek dituen eskakizunak, ez ditzakete pausoak aurrera eman, kateaturik bait daude.

### **Lehengo eta oraingo**

Hemendik sor daiteke, hainbestetan fededunei aurpegira jaurti izan zaien salaketa: "bizitza, erdibiketa egina duzue: batetik sinesten duzuen, eta bestetik egiten duzuen; fedea eta egintzak, fedea eta bizitza: gizonaren bizitza, bakarra, bi zatitan. Baina

gaitz hau ez da gaurkoa: egun, atzo baino gehiagotan salatzen zaie hau fededunei, fededunak berak eta fedegabeak ere kontzientziagoturik bait daude arazo hontaz. Akatsak ikusteko argi biziagoa dadukagu kopetan eta begietan, esku azkarragoa mina dagoen tokian han jartzeko; horregatik bidezkoa deritzagu salaketa honi. Sarritan esan ohi da "lehenkoa beti hobe": pentsatu ere pentsatu izan dugu Kristautasunaren *urrezko-aroa* Erdi Haroa izan zela: baina, Historia lekuko, ba dakigu orduko ohiturak ez zirela gaurkoak baino moralago; hontaz gainera esan beharra dadukagu garai haretako goimailako eta behemailako apaizeria gaurkoa baino eroriagoa zegoela. Aldi bakoitzak ditu bere aberastasun eta pobretasun, ohituretan eta erakundeetan. Bekoki motza eta hertsia edukiko genuke hemen aldiak zigortzen hasi bagintez.

Lehenko gizonek egungoek baino errazago hartu ohi zituzten egiak, dogmak, espirituzko bizitza, Jainkozko bizitza gudan... gehiegi aztertu gabe. Egungo gizona, erabat bestaldekoa dugu: galbaitzaile zorrotza, azterketarako beti prest. Egia edo dogmak, fedea edo espirituzko gertakizunak, ez eman *goitik behera*, ez ezarri *nahi ta nahi ez*, ez aurkeztu *sinestera behartuz*, eskeini baizik, azterketarako, pisua hartzeko, galbaitzeko... eta gero onar edo ezar dezake, noski. Lehenkoek traba handirik gabe onartzen zituzten misterioak; misterioaren besoetan gelditzen ziren, sinetsiaz: Jainkoaren eskua gertakizunik tipienetan ikusi ohi zuten, eta hau zen normalena. Egungoek, traba handiak eta mendekaitzak ditu misterioak onartzeko. Misterio edo gertakizun baten aurrean, lehenko buru-indarrak jarriko ditu lanean, jakituria erabiliko du eta aurrerapenez baliatuko zaizu harrigarriak argitzeko: gizonaren ahalmenez kanpo beste indar arrotzik ez du hain erraz onartzen. Beharbada iheskeria litzake konpoko *esku* hori sinestea.

Pentsakera honek ez du esan nahi egungo gizonaren jokaera erabat, alderdi guztietatik, okerra denik. Inolaz ere. Ba ditu, noski, bere arriskuak, baina aurrerapena dela aitortu behar dugu.

Jokaera honek *sakratu kutsua* kentzen die gauzei, gertakizunei, pertsonei, legeei, egiturei. Sakratutasuna ukatzera doa egungo gizona: gauzei eta abar, erantsi zaien sakratutasuna, noski: gizonak berak argitu eta azaldu ditzakeelako orain arte misterio sakratu ziren mila gauza. Hau ez da, berez, fedea ukatzea, ez da Jainkoa zokoratzea; gizona jasotzea baizik, gizona heltzea, gizona izadiaz eta bere izkutapenez nausitzen doala baiestea baizik. Jainkoaren asmoak bere tokian jartzea.

### Jainkoa ukatu

Jainkoa ukatzen du egungo gizonak, Jainko zulotapatzailea, gizonari gizontzen galerazten dion Jainkoa. Gizona bere-bere diren *eginkizunetatik bestetaratzen* duen Jainkoa ukatzen da. Jainkoa edo erlijioa edo fedea, dena delarik, baina alienatzailea, giza-alienatzailea, hau ukatzen da egun. Horregatik, Marxek erlijioari egiten dion kritika *erlijioa herriaren logarri* dela esanaz, zuzena da, garai haretako erlijiodunek zituzten erlijio-bizierak era bestetaratzaileak baldin baziren. Erlijioak edo Kristautasunak (ez dira gauza berdinak) gizartera ez bagaramazki, loturik, azpiraturik, mindurik daudenak askatzera eta dagokien giza-maila erosora jasotzera, erlijio *hori*, kristautasun *hori* holakoentzat lo-belarra da, alienaketa. Egia. Gero esanen dugu fedea, berez, ez alienaketa, giza-heldurarako bide dela baizik, iraultzarako bide, gizonetik harreman hestuetan jartzen gaituelako.

Izadigainetik indar bat, jainko bat, Norbait onartzeak ez garamazki halabeharrez izadi eta izadikoak gutiestera, gizadi eta gizadikoak gutiagotzat jotzera. Hau izan daiteke egungo gizonaren arriskua: fedea, mundu zehatz honetatik fantasia edo irudipenezko mundura jasotzen gaituela sinestea, mundu arazotsu honetatik ihes eginik. Erabat bestalde dugu egiazko fedearen eskakizuna: ez iheskeria, gizartearekiko lokera baizik.

Egungo galbaitu beharreko fede-arazo honetan, beste pondu bat. Gizadiaren pulsoa ez dugu orain lehen bezala neurtzen. Gure aurrekoen mundua tipia zen, muga hestukoa, pentsakera bakarrekoa-edo, homojeneitasun handikoa (egungoentzat, homojeneikeria litzake hau). Garai haretan, giroak, gizarte-giroak agintzen zuen. Norberak ez zuen indar handirik, nortasunik, pentsamolde berriak sor zitzen. Pentsamoldeak, gizarteko giroak (eta giro hau bakar batzuk antolatua) ezartzen zizkion gizonari, eta bakoizak, bere adorez bere-bere pentsakera berezia izango baldin bazuen, inguruko mugak, ideia-trabak, gizarteko ohiturak hautsi beharko zituen, iraultzaile izan, alegia: homojeneitasunaren aurka joka. Egun, hau ez daiteke inolaz ere onargarria izan: gizonak dituzten giza-uste sakonenak zauritzea litzake.

Mende honetako gizonak ez dute hain errazki jasaten gizartearen eragin menperakorra, ezkerrekoa nahiz eskubikoa. Menperakorra eta itsua baldin bada, Marxena izan edo Kristorena izan, berdin da, eragin hori ez da ontzat hartzen: ez du egungo gizonak bere burua besteren pentsamoldetan uztartzen. Ikusi egin nahi ditu gauzak, iritziak, eskakizunak, pentsakerak; ikutu, aztertu, alderdi on eta txarrak, alderdikieriarik gabe epaitu, norberak aukera dezan, eta ez gizarteak norberaren orde. Hau dugu nortasunez jokatzeko: nere gizatasunaren helduraren ezaugarri bat. Bestea, hau da, besteen burutik pentsatzea eta iriztea, ume haroko pentsamoldeetatik irtetzeke gelditzea dugu.

Egungo gizonaren barru-giro honetan, ez da erraza *eman izan zaigun* fedea besarkatzea, eta bere araura bizitzea. Ezin ahantz genezake, gainera, kristautasuna *elkarte* tipia dugula beste elkarten ondoan. Kristau giza-taldea urria, tipia, eskasa dugu erlijioetako taldeekin alderatuta. Kristau Historia, berria dugu, Kondaira-mugak gertuan ditugu, 500 mila urte dituen gizonaren Kondairaren ondoan. Begi hauekin ikusten du egungo gizonak. Jakina, ikuskera honek ez du fedea aldatzen, baina kristauta-

sunaren balioak beste balioen ondoan jartzen ditu, galbaituak izan daitezten.

Orain artean, pentsakera bat berdina izan dute gizonek gehien-suenetan, irizpide zehatzak izateko. Ez zegoen iritzi-ugaritasunik beharbada, arazo bat berdina erabaki ahal izateko. Egun, mila modutako pentsamoldeak ditugu arazo konkretu baten aurrean: irizpideak ere ugariak. Iritzi-ugaritasun hau aberasgarria dela baies genezake, era honetara aukeratzeko bideak eta egokierak ba di-tuelako gizonak. Bestela, berriz, gizonak eskubidezkoa duen auke-ramena pentsalari banaka batzuen eskuetan geldituko litzake. Azkenengo hau gertatzen zen aurreko mendeetan guti-asko. Be-harbada, gure zaharrekin ere bai (?). Egungoek ba dakite beren buruaren berri, beren balioen berri, eta ez dadukate beren aukera-mena besteen pentsamoldeetara eta iritzietara saltzeko.

Eta fedea edo kristautasunak ez du ihes egin saltsa hone-tatik. Fedea, beste pentsakera, iritzi, bizikera guzien horien tar-tean dadukagu, *aukeragai*. Horregatik, egungo *lehengo* fededun askok *gainean zeramakitena*, besteek emana eta ezarria, aztertu egin ohi dute, ez baitan jarri, hortaz elkarrizketatu, beste erlijioe-tako pentsakerarekin alderatu, eta lankizun honen xede *aukera personalki* egitea duzu. Horregatik esan ohi da (arrazoiz noski, baina arrazoi osoarekin ez) fedea ere norberak bere bizitzari eman dezaizkioken bideetan edo norabideetan *bat* aukeratzea dela. Arra-zoi dutela esan dut horrela mintzatzen direnek, baina ezin ahantz genezake, horrela, fedea giza-mailatik bakarrik hartuta dagoela. Eta egiazko fedea, ba duela jainko-maila, ba duela jainko-era-gina; eta ba duela, esana dugun bezala, giza-maila eta giza-eragina.



## ATEISMOAZ OHAR BATZU

Fede edo erlijio gorabehera hauetaz heldu zaio heldu ere gure Herriari Historiaren ostikada eta erasoaldi onuragarria (probetxu ateratzen baldin badakigu, noski). Egungo gizonak serioski bota behar omen dio bere buruari galdera hau: *Egungo gizon egizale eta zintzoa, atea ezik, beste zerbait izan ahal daiteke?*, dio Robinson-ek. Eta galdera hau ezarri ondoren, Jainko-ukazioaren hiru arrazoi bezala hiru maila hauek dakazki: *adimenarentzat*, Jainkoa hutsa da, alferrikako; *sentipenarentzat*, zokoraturik utz daitekeen zerbait dugu Jainkoa; *moralarentzat*, eraman ezina dugu Jainkoa.

Ezin uka genezake bat baino gehiago egoera honetara iritxi dela, kristauen artean eta fededunetatik landa ere bai. Eskandalu harturik, deadarka eta harrika hastea lotsagarri eta itxuragabekeria litzake. Gertatzen direnez gero, ez da harritzeko *jainkoa hil dela, edo ihes egin duela, edo gaixotu egin dela, edo hemen ez dagoela* esatea. Ez dezagun pentsa, —eta hau tentaldi lodia dugu— ateo horiek burugabeak direnik. Jainko-ukatzaile horien arrazoiak aztertu behar ditugu, objetibuki eta seriotasunez, bekoki zabalez eta zerbait ikas-lehiaz.

Jainko-ukazio hau era askotara uler genezake, baina bitara bakarrik ihardungo gaituzu oraingo honetan:

**Fededunaren ukapena:** ba du sinestea, sinesten du Jainkoa, baina ez du Jainko horren bidetan bizi nahi. Jainko horren aurka jartzen da. Ez du sineste hori ukatzen, baina Jainko beraren aurka jartzen da (antiteista): jokaera makurrena.

**Fedegabearen ukapena:** Jainkoa ukatzen du, sinestena ukatzen du: ezin onar lezake sineste hori, gizabaliok beheratzea delako hori, asmakeria hutsa, iheskeria, logarria...

Ateismoaz mintzatzerakoan oso gogoan eduki behar ditugu



gizonak berak bere bizitzako joan-etorrietan erakusten dituen mailak, hau da, egintza maila, eta pentsakera maila, praxia eta tesia. Zenbait fededun delako, atea da bere egintzetan, praxian. Beharbada ez da, hertsiki hitzeginda, atea, pentsakeraz, tesi mailan, baina halatsu jokatzeko du, hau da, bost ajola zaio Jainkoa ba dela edo ez dela jakitea bere kolkorako: "Jainkorik ez balitz" bezala jokatzeko bait du. Ateismo zabalduea, ageriena eta nabarmenena hau dugu. Eta maiz epaitzen da besteen bizitza horien haritik.

Ateoak iritzi-alorrean eta ekintzetan: hauek beste maila batekoak ditugu, baina beren jarrera bizitzan, jakinen gainean, pentsaketa baten ondorio bezala hautatua izan da, eta bide honeetatik Jainkoa eta beste erlijioetako sinesteak ukatzeraino iritxi dira. Ukapen hau erabat ontzat hartzen dute: beroiek diotenez, begien eta buru-arrazoien aurretik ikusten eta ikutzen ez dena, hau da, frogaz ez daitekeena, ez da onargarri. Eta Jainkoa eta erlijio-sinesgaiak frogaz ez daitezkeen horien taldean sartzen dira.

Baina bi ateoera hauen tartean ba dira beste mailak ere. Tesi eta praxi bezala ateismoa erabiltzen duten zenbaiten artean, aitortu beharra dadukagu, *gizonak* gorengo toki berezi eta aparta daduka. Jainkoa ukatu eta gizona aitortu. Jainkoa hil, desegin, errealidaderik gabeko zer bat bailitza; eta gizona jainkotu. Hainbestetan, morroituta ikusi izan dugun gizona dagokion mailara jaso. Gizarteak —diotenez— erlijioz kutsaturiko gizarteak gizona *bestetaratua*, alienatua eduki du, lotua. Eta orain, lotura horietatik askatu nahi dute, bere jatorrasunera ekartzeko, bere iturrira itzul dadin. Gizonak gizon behar du, bere buruaren jabe, ez ideia baten ez inoren serbitzuan kateaturik.

### **Ateismoa gizona aipatuz**

Lehentxeago esaten hasita geunden eta jarrai dakiogun hariari. Ateismoaz mintzatzerakoan gehintsubat erabili ohi den ideia hau

dugu *bestetaraketa*, hau da, alienaketa. Holakoek gizona —erlijio giroan— alienatua ikusten dute, haurtzaroan erroturik, heldu gabe, bere esku ez delarik. Gizona ez da bizi dagokion giza-giroan, berea ez den jainko-giroan, beste baten alorrean, bere-bereak ez diren lanetan, besteek ezarritako eskakizunak betetzen, bestetaratua, alienatua baizik. Eta ateismo hau, giza-fede bihurturik, gizona kate horietatik askatzera dator: salbakuntza egin nahi du, ba dakar mesianismo bat, ba ditu mundukoi sakramentu batzuk, ba du zero lurkoi bat: giza-salbakuntza osotu nahi du. Ez noski Jainko baten eskutik; gizona bere buruaz kontzientziaturik baizik. (Kontzientia lantze hau gizonak berak bere barruko argitasunez egingo ote du, edo kanpotik beste batzuk ezarritako bideetatik?). Erlijio-giroan, gizonak ez du salbatu nahi mundua bere lanetik eta ahaleginetatik, Jainkoaren eskutik baizik, Harengan jarrita bait daduka bere ustea. Egungo gizonari kontzientzi lanketa falta zaio helburu hau burutzeko: *bere giza-nortasunaren balioaz jabetu bedi, erlijioak sortu dizkion loturak etenda, eta orduan izanen dugu "hemen gizona": binbitartean, sasi-gizona.*

### **Ateismoa, jakituri mailan**

Ateismo guzien errotan, espirituzko bizitzaren ukazioa nabari zaigu: izadigainetikiko bizitza, sobrenaturalezko bizitza ukatzen da. Izadiari begira, gizarteari eta gizakiei begira jarrita, frogatu daitezkeenak bakarrik dute zerik, baliorik. Frogantza honetatik ihes egiten duen orok ez du zerik: espiritu mailan ezerk ez du iraunkortasunik, giza-arrazoiketa lanaren bidez frogatu ezin bada... Eta erlijioak ematen dituen egiak froga-ezineko alorrean aurkitzen dira. Ez dute, beraz, baliorik. Ez du otoitzak salbatu gizartea go-setetik eta izurritetik, sendakintzan egin diren aurrerapenek baizik.

## Ateismoa, marxismoa

Erlijioa giza-kondairako gertakizuna duzu. Erlijioa ez da, hauentzat, beti eta etengabe eman izan den edo emango den gertakizuna; ez da nahi ta nahiezko barruko joera bat; ez da gizatasun berari itsatsirik dagoen zerbait; ez da giza-maila edo barne-uka-ezineko dimensio bat: gizona ez da izatez eta berez erlijioduna. Erlijio-bizitza giza-kondairako aldi edo garai berezi bat duzu: garai batekoa, konprenigarria gizonaren mina ezagututa, beharbada probetxugarria (minen aringarri, itxaropen iturri...), baina ez izatez eta berez gizatasunari dagokiona. Erlijioa ez da gizonari bere izate-errietatik datorkion eskakizuna. Bere mixeriaren eta eskasaren betegarri eta eusgarritzat gizonak berak bere buruarentzat sortu duen salbabide bat baizik. Horregatik esan ohi dute, *bidegabekeriak sortu du erlijioa*. Iraultza beharrezko dute, bidegaberiak kenduaz gizonaren heldura iristeko mundu honetako zorion-herrian.

Jainkoa sinestea eta Geroa onartzea, ihesbidea da; edo gehieenez, aldi bateko lasaipidea: ezin bait du gizonak hemen eta egun sentitzen duen zamaren astuna menperatu eta zuzendu, ez norbere bizitzan ez eta gizartean ere. Bere askatasuna, bere osotasuna erabat mugatua ikusten du, gizarteko bidegabekeriak bide, eta, ezin-bizi horretan, salbatzailetzat eta arnas bide bezala zerbait edo norbait asmatu du, jainko eta erlijio izenpean. Baina, Historia zehar, joanak joan eta etorriak etor, gizonak bere buruaren jabe izatea, askatasunean eta osotasunean, ardiets ditzanean, orduan, Jainko eta Gero, dena ahaztuko du gizonak.

Hasieran, erlijioa gizonak sortu baldin badu, bere gizatasun jipoituaren eskakizun bezala, geroztik, erlijioa bere lotura bihurtu zaio, logarria, itxitura: bere bizitza eta egiteko jatorretatik ihes eginik itxurazko mundu eta pozetara erakar duelako. Erljioak sasitu egin du gizona.

## Ateismoa, heziketan

Beste pentsalari batzuek ez dute erlijiorik ontzat hartzen, giza heziketa jatorraren ukatzaile delako. Hemen sartu behar izango genituzke sikoanalista ateoak. Ba du gizonak —diote— babes eta beldurraren kontrako ihesbide baten premia. Eta barruko indar horrek eraginda, gizonak *babes* hori idealizatu egin du: Jainkoa. Jainkoa lotura duzu giza-askatasunaren heziketan, eta barrengo lotura honek ezinegon eta gaixotasun sikikoak sortzen dizkio gizonari. Sineste horrek, legepean, moral-lokeretan, eta agindupe uzten du gizona, bere buruari begira, narzisokerian bildurik berekoi: ekintzaile izan eta besteetaz axolaturik bizi beharrean...

### Eta zer pentsa?

Iritzi talde hauetan, denak ateismoak hesirik, noski, pondu bat oso berezia eta aberasgarria nabari dugu: gizona, baina alienaketak okertu eta bihurritua, gutiagotua. Eta behar da gizona askatu gizartean. Ez du jainkozko salbatzaile eta askatzaile beharrik. Berak behar du bere burua gaizkatu, heldu, hezi, osotu, askatu. Erlijioa, Jainkoa, Geroa, bizitzaren garai zehatz bateko frutu dituzu: hori ba doa...

Gizona goi-maila egoki batetan jarri behar dugu. Baina nahi ta nahi ez gizonak beti izanen ditu, ene ustez, isegidurak (dependentziak). Isegidurak eta bestetaraketak ez datoz bat. Isegidurak burutsu onartu behar ditugu; eta *burutsu onartze horretan* datza giza-eziketaren oinarri bat. Isegidura bakoitza gizonaren barrumaila bati itsasten zaio. Gizonaren absolutu egarria isegidura bat dugu: egarri hau mila modutara ager dakiguke: jainko egarrian, iraultza lanketan, fedean, gizarte zuzenago nahian, itxaropenean, askatasunean... Isegidura hori onartzea ez ote dugu hezigarri

eta askatasun bide gizonarentzat? Zenbait ateismo jator, ez ote da jainko bilaketa? Isegidura horrek sortzen duen galderaren erantzuna ez ote, beharbada, ustegabeko jainko bilaketa bat? Sasi-fedeak, alienaketatzat jotzen baldin baditugu: hau ez ote egiazko fede aurkitu-nahi bat? Iraultza-egarria ez ote, ondo-ondoan, zerbait edo norbait zuzenagoaren premi-erakuste bat? Barrengo isegidurak, bultzada hauek sortarazten dizkigu.

Norberaren izakera ere isegidura bat dugu: gure joerak, aiurri, grina, osasun... Batzuk, ustekabeen, bat-batean, sortu zaizkigunak; beste batzuk, lehengoetatik, odolez, datozkigunak. Isegidura hauek ukatzea, umekeria eta itsukeria litzaiguke: ez dira giza heziketarako traba. Berdintsu esan genezake gizonaren gizartekotasunari begira: gizarteak, bere Historiako urratsetan, ezarria daduka zenbait isegidura: kultur aldetik, politikan, ekonomian... Egungo gizona, alde onetan eta txarretan, aurrekoen ondorio dugu. Gure kulturaren erroak lehengo urtetako eta mendetako lurretan daude: ez da erabat gaur aldatutako landarea. Gizarteko egiturak, Historiaren aldabeharrak eraginda sortutakoak ditugu, edo iraultza baten fruitu, edo garai bateko pentsakeraren ondore bat. Ez, noski, erabat guk sortutako egitura. Honekin adierazi nahi dut, alegia, isegidura hauek burutsu hartu behar ditugula, ez, noski, horretan gelditzeko (hemen legoke beharbada alienaketa), hortik aurrera ekiteko baizik.

Egungo gizarteak ematen digun ateismo-bolada hau Historiaren aurrera-pausoetan aberasgarria daiteke, zenbait ideia garbitzera eta jatorragotzera bagaramazki, bizitzaren barruan.

## FEDEA EKINTZARI BEGIRA

“Fedea” eta “sinesmena” hitzak erabili izan direnean, zeresanahi berdina eman zaie gehientsuenetan. Baina ba dirudi sinesmenak ahalmen bat adierazi nahi digula, gizonak barrenean daramakien ahalmen bat, eta ez dut uste honek garbi ematen digunik fedearen giharrea. Horregatik fedea hitza erabiliko dut, ohituagoak bait gaduzka eta orokorra delako.

### Giroa eta fedea

Fedearen esanahia ematerakoan, gertakizunetatik hasi behar baldin badugu, hau da, fedea bizi-edo izan duten horien gertakizunetatik, orduan hitzaren esanahi jatorra eta egiazkoa ez dugu emanen. Holakoentzat fedea, Historia zehar gizarteak sortu izan dizkien balioetan *bat* da: hizkuntza, ègiturak, giza-eskubideen kontzientzia, politika-pentsakera, eta abar... giza-altxorra bailitza eman izan zaigun bezala, halaberean erlijioa eta fedea ere. Kultura-balio bat, hizkuntzaren pareko edo.

Fedea era honetara harturik, hizkuntza eta mila ohitura, tradizio-bideetatik, arbasoengandik guregana eta gurasoengandik seme-alabetara etorri den bezala, halatsu fedea ere. Historiak hamaika balioko gauza gorde digu bere kutxa aberatsean: *bat* kristau fedea. Kondairak gorde eta eskaintzen dizkigun aberaskiekin erakusketa edo antzinate-museo bat egin bageneza, beste aberaskien artean toki bat, toki berezia beharbada, “kristautasunak” eramango luke. Fedea, beraz, kultur-aberaski bat.

Uka ezinekoa dugu, noski, kulturarekin batean eman izan dela sarritan fedea ere, kulturaren aletxo bat bailitza. Kultur-

aberaskiekin eta norberak bere ahaleginez, bizitzan zehar, bildu izan dituen aberaskiekin (ikastolan, etxean, hitzaldietan, liburuetan...), nortasuna osotzen doa, pentsakera berezi bat ernetzen doa lehengo eta egungo kultur-gailuekin. Pentsakera horretan fedeak ba du, noski, bere arrastoa itsatsia. Eta hemendik dator *fedea pentsakera edo ideologia* bat dela uste izatea.. Honezaz gainera, nolabaiteko fede-emate horrekin batean, fedearen azala, hau da mamiari ez dagokiona, kulturatuta gelditu da. Gizona ez da sartu fededun talde hortan, itsu-itsuan esango nuke. Fededun talde hortan jarri dugu gizona, baina "fededun" (!) gizarteak nahitanahiezko eskakizun bat sortu dio: ikastoletan, esate baterako, geografiazko mila berri ematen eta ikasten diren bezala, halaxe fede-alorrean ere: fedeak onartzen dituen egiak, erakutsiak, legeak, aginduak eman izan zaizkio gizonari. Honatx, fededuna, azalez ongi-edo jantzia, eskolatua; eta, mamiz, ahula. Gizon hau, mahomatar gizartean sortu izan balitzaigu, mahomatarra genuke erlijioz, azaletik behintzat. Katoliko gizartean jaio zaigulako, katoliko... Gizartearen eragina, norberaren ahalegina baino biziagoa izan da.

### **Bizitza-mailak eta Fedea**

Gizonak bere bizitzan maila ugari eta desberdinak erakusten dizkigu: familian, guraso izanen da; langintzan, nagusi, langile, bulegoan, burdingintzan, zur-lanean, nekazaritzan; gizartean, politika-alderdi batekoa edo bestekoa, eta erlijioan, hinduista edo kristaua. Fedea, beraz, bizitzako maila bat bezala agertuko litzaziguke: maila bat, alderdi bat, aurpegi bat, bere ohitura, betekizun, agindu eta guzti. Maila batek besteekin zerikusirik izango ez balu bezala. Maila bakoitzak ba ditu bere eskakizun zorrotzak, bere xedeak, bere bideak, bere legeak. Eta horiek betez gero, kito.



Horregatik, ongi uztar daitezke (irizkera hontan) “Elizara joatea —gizartezko fedearen eskakizuna da-ta— eta gizarterako legearen babesean egin daitezkeen bidegabekeriak”. “Itxuraz gizon honoragarria izatea, eta egiazki zuzena ez izatea”. “Politika zapaltzailea eramatea, eta fededun (!) errespetagarria azaltzea”. “Negozio ez hain garbiekin, Eukaristia nahastea”. Horrelako irizkeran beste horrenbesteko ezkontzak.

Pentsakera hau dela-ta, zenbait fededunen bizitzan, erdibiketa nabarmena ikusi ohi da: alderdi batetik bizitza bere gorabeherekin, eta bestetik fede--praktikak, ohiturak, tradizioak. Erdibiketa hau salatu izan zaie kristauei: ez dute ezkontza egiazkorik egin bizitzak eta fedeak: bakoitzak bere bidea hartu du eta eraman, sekula ere bateratu ez daitezkeen bideak (praxian). Bizikera honetan zorioneko bestetaraketa edo alienaketa garbi ikusten da: fedeak bere gela hertsia eta berekoa egin du, eta bizitzak bestea. Elkarren berri ez dute jakin nahi. Fededunak, maiz, ez du eskurik ezar gizarteko arazoetan, politika-ixkanbiletan, Herri mugimendu berrietan, zuzentasunaren eta askatasunaren alde. Hori ez zen bere egitekoa: espiritualismo itxi batetan loturik bizi da fededuna, behetik gora begira, Jainkoari otoizka, bertikaltasunean. Beste egitekoak, besteentzat, edo beharbada, baita norberarentzat ere, baina fede-girotik landa.

Egun, salaketa hau gorri-gorri nabari dugu. Eta salaketa egiazkoa deritzat. Gero esanen dugun bezala, fedeak ez bait du zeresanik, ez bait du funtsik, Jainkoagandik eta gizonengandik at. Bi hauekin harremanak korapilatu behar ditu fedeak, ez bakar batekin. Mailakerian eror gintezke. Fedeak bi mutur ditu, Jainkoa eta gizona, eta bi hauen artean, elkarri esku emanaz, gizon fededuna.



## "Zihur nago"...

Zer da, beraz, fedea ekintzari begira?

Segurtapena, Zihurtasun bat. Norberagandik hartzen badugu (subjelibuki), hau da norberarentzat, segurtapen osoa, betea da. Baina nere fede hau besteentzako ez daiteke jar segurtapen osokoa bezala. Hau da, neretzako bezainbat segurtapen ez da besteentzat: hori, absolutukerian erortzea litzake, fedearen duantasuna, debaldetasuna ukatuaz.

Testamentu Zaharrean fedea *harkaitzaren sendotasuna* adierazten digu. Fededuna zihur dago, segur, sendo, aldakaitz, *harkaitza* bezala. Zihurtapenean nago, ez niregatik, nere baliogatik, labe Jainkoa Harkaitza delako baizik. Jainko hori onartzen duenak segurtapena nabari du, nahiz eta bizitzako erasoaldiak jipoitua izan, nahiz eta minak bizitza ebaki eta goldetu. *Jaunagan dut ene ustea.*

Ez da sentipenezko ustekeria arin bat: arkaitzak daman zihurtapen iraunkorra baizik. Sentipena aipatu dut: fedea ez dugu nahastu behar sentipenarekin: fedea ez dabil sentipenaren arabera, orbela aizera bezala. Baina fedea bizi behar dugu, gure sentipen eta guzti. Ez sentipenaren arabera, baina bai sentipenarekin, nolakoak garen ahanzi gabe.

Fededun izatea, Jaunagan tinkotasuna ukaitea izanen da: Israel fede-galtzen hasten denean, Jaunagan ez baina beste gauzetan jarri nahi du bere ustea. Jauna ez du zimentarri, bai ordea, harat-honat erabil dezakeen *zerbait*; gizonak bere legera eta atseginetara landaturiko *zerbait*.

Argi ikusten da, fedea ez duela bere norabidetzat *zerbait* edo *norbait hilkorra* edo *egia xorta bat*: *Jainko betikoa* baizik.

Baina non dago gertakizun honen iturburua? Ni, egun, gertatzen baldin banaiz, Israel Herria fededun gertatu bazen, non dago gertakizun honen sorburua? Gizon berarengan? Ala gertatze itsu batetan? Jainkoagan? Halabeharrean? Kondairaren indarrean? Gizartearen ohitura eta egituretan? Kulturatan?

Mila horrelako galdera egin ohi dira egun. Galdera hauek, fede-arazo hontan *aurren-pausoa* (iniziatiba) norena eta nondiakoa den jakin nahi dute. Galdera hauen erantzuna *gizonarengan* jar ba-geneza, hau da, gizonarena dela aurren-pausoa, orduan erlijio-mailan aurkitzen gara. Baina, fede-gertakizun honen aurren-pausoa Jainkoarena dela baietsi bageneza, orduan hertsiki *fedez* mintzatzen dihardugu. Hemendik fedearen eta erlijioaren arteko bereizkuntza: erlijioan, gizonarena da aurren-pausoa; kristau fedean, Jainkoarena. Erlijioan, gizonak bilatzen du Jainko bat, Norbait Handi, Indartsu, izadian gertatzen diren mila gertakizunen eta mila misterioen agerbide edo esplikabide; gizonak bere burua Jainko horren mendeko ikusten du.

Kristau fedean, Jainkoa dator gizonaren bila, Jainkoa bide-lagun agertzen zaio gizonari; Jainkoa ez da menderatzaile; Jainkoa *eskaintza* da gizonarentzat. Jainkoa gizartera etorriko da. Bere bizitza misterioetsutik aterako da, oihalak urraturik, eta Historian sartuko da, gizartearen ibiliko da, gizon egina: *Jesus*, nazaretarra.

Kristau fedea, konkretasunean, zehaztasunean ezarria dago. Ez egia batetan edo pentsakeran oinarritua, Norbait biziarengan baizik. Historiak froga dezakeen herri batean jaioa, Jesus hori ez da gizakontzientziak, giza-burutapenak sortutako mito edo mamua. Historia bideetan topa genezakeen norbait zehatza baizik.

Kristau fededuna ez da teista hutsa, ez da erlijiodun hutsa: Jesus nor zehatza (konkretua) hautatu duena baizik, eta Haren arabera bizitzen lehiatzen dena. Kristau fedean, Jainko misterioa

ukitzen da, Jesus Historian ukigarri delako, eta ez irudipen hutsa. Jainko misterioa, bereziki, Jesus da.

Jesus hau bi eratara ikus daiteke: Jesus, Historian errotoa, herri batetan jaioa, hazia eta hezia, gizarte arazotsu batean bizia: Kristo gizalditiarra, Kristo historikoa. Eta beste erara hau izango litzake: Jesus berezi bat, espirituzkoa, erlijio-sentipen batetan mantendua eta mantengarri, betikotasunean izkutatua, desnortasundua, urrutiko mesianismo aizetsuan amestua eta maitatua: ez gizalditiarra.

Egiazko fedean ezin onar genezake bigaren ikuskera hori. Errebelazioko Jainkoa herri zehatz baten Historiako gertakizunetan sartua ikusten dugu, Testamentu Zaharrean. Eta Jesusen bizitza, herri baten bizitzan zertua ikusten dugu, nahiz bere xedeak mugagabeak izan, hau da, herri baten lur-mugetatik kanpora eta mende haietatik kanpora berreiatuak. Jesus hori ikusten dugu herri-estrukturan hazia, eta, hainitz aldiz, egitura horiek sortzen duten pentsakeraren aurka. Bere mezua, gizonei begira, batez ere urkoarenganako maitasun eta serbitzuan mamitua ematen digu. Bere mezua, Jainko Aitari begira, Honenganako leialtasun betea dugu. Esan dudanez, Jesusen mezuaren muina ez dugu aurpegi bakarrekoa (Aita-lagunurkoa), baina mezu horren dinamika bat bakarra dugu: maitasuna, serbitzua, batez ere, era batera edo bestera, azpiraturik dagoen gizonarentzat. Maitasun dinamika horren xedea, beraz, gizona dugu.

Laburki esandako hau, fedearen giharrea dugu: Kondairan, herri konkretu batean sortutako Jesus hori dugu fedearen ardatza, eta Jesus horren mezua, Aitagandik hasi eta gizonarengana doan maitasun-dinamika. Baina hau dena besarka genezake egia zoragarri gisan, ideologia bailitza, pentsakera hutsean geldituz. Oraindik ez dugu federik. Fedearen kultura dugula esango nuke, fedea liburuetan ikasia eta beharbada hitzetan emana: teologo batek

asko jakin dezake fedeaz, eskolatua dagoelako, irakurriaz ikasi egin duelako, baina gerta daiteke oraindik fededun ez izatea. Zubia falta dugu, lokarria: egiazko ideietatik egiazko bizitzara joan gaitezen.

### Fedeak biziera du eskakizuna

Fedea *biziera berezia* dugu. Pertsonalki eta libreki egindako aukera *biziera* berezi horretarako. Jesus bere mezuarekin sartzen da aukera horren muin, giharre eta ardatz: dena osoki hartuaz eta bizitzan mamituaz. Hemen dugu fedearen muina, giza-aldetik, noski. Giza-aldetik diot, fedeak bai bait du beste alde bat, Jainko-alderdia, grazimaila (lehengo kategorietan esateko). Fedean, Jainkoa *emate* eta etengabeko eta neurrigabeko eskaintza dugu, eta gizona, erantzuna eta lokera edo konpromisua. Jainkoa *bila dabilenaren* galdea dugu, eta gizona *bila dabilenari* erantzuna. Baina erantzun horretan gizonak, erantzuleak, ez dezake bere burua bakarrik sar, inguruan dadukan gizakia ere baizik. Fedea, beraz, ez dugu Jainkoari Jesusengan ematen diogun bizitzazko erantzuna bakarrik; Jainkoak Berak Jesusengan azalduta, gizonari fededunak ematen diona ere baizik. Historian zerbait garrantzitsurik baldin bada, gizona dugu.

Hontan datza Kristautasunaren guna, eta zoritxarrez, baina zorionez, kristau ez direnak, ateismoan sarturik daudenak (ez noski, hauek bakarrik) ikusarazi digute gizonaren balioa, ez zerbait berria bezala, zaharra berrituta baizik. Kanpotik etorri dira herrikoek ahazturik zedukatena oroitaraztera: kristauak, beren rito eta guzti, Jainkoagan izkutatu dira (ustez!), eta gizona bere inguru guzietan ahaztu. Zenbait erlijio gaberentzat, fedea (!) gizona askatzea da; gizona sinestu dute, gizon *hura* maite dute. Eta, fededunak, ilargira begira, zerura begira, aldamenean duten gizon problematuaz axolagabeturik bizi!

Fedea *gertaera* berezia da: mundu honetan *gertatzen* naiz, hemen nago, baina *orain eta hemen gertatze berezi* hau ez da burugabea eta funtsik gabekoa, zihurtapenean eraikia baizik. Fedea neratzat zihurtapena da, hau da, nere giza-osotasunera iristeko ametsak betetzeko bide bakarra.

*Gertaera (modo de existir)* horren oinarria norbait dut, Jesus, bere mezua, bere Ebanjelioa, bere eskakizunak. Eta honekin estu-estu loturik, derrigorrean, gizona, bere inguru guziekin: ez bait daitezke bakandu Jesus eta gizona Ebanjeliozko mezuan. Fedemilan, hemendik sortzen da konpromisua, Historian eta gizarte zehatz batean bizi den gizonarekiko lokera. Fedea dinamika da eta eskakizuna, gizonen artean eta gizon bakoitzari begira. Dinamika eta eskakizuna, gizarteari begira, baina gizarte horretan gizon soila ahaztu gabe, gizon soilak elkaturik egiten bait dute gizartea. Gizona ez dugu indibiduoki hartu behar, pertsona osoa bezala baizik. Indibiduoki har bageneza, gizartearen pilolan nortasuna galdurik geldituko litzaiguke, eta horretarako arriskuan behintzat. Fedearen dinamika maitasunaren dinamika dugu, gizon bakoitzari bere inguru guziekin helduta.

Norbaitetik galde dezake ea nola konpreni daitekeen zenbait kristauren jokabidea, itxituran eta bakardadean biziaz, gizonekin ikus eta iku daitezkeen harremanik gabe. Korapilo hau fedearen mailatik bakarrik adi daiteke: *biziera* edo *gertaera* honen argibidea fede-giroan bakarrik aurki genezake. Bestela, ez ote iheskeria?, esanen dute. Kontenplaziozko bizitzak uko egiten ote dio orain artean esan dugunari? Kontenplaziogileak gure pentsakera honetatik at ote? Ba ote dute Historiako eta gizarteko gizonekin zerikusirik? Maiz salaketa garratzak entzun ohi dira bizi-modu hon-taz, mundu honetan *honela gertatzeaz*: horrelako gizon ez iritzi mardula emateko, haien barrura sartu eta haien bizi-arrazoiez jabetu behar genuke lehen.

Bizitza fedekoi hau ez daiteke uler, fede-mailatik ez bada, eta bizitza honen egizkotasuna pipituta dakusgu, gizonengandik eta hauen arazoetatik ihes, ezaxolaturik, baldin badago. Utz dezagun haritxo hau.

Jesusen izatea eta gertatzea *hemen*, Aitarekiko eta gizonekiko harremanetan zertzen da. Jesus ez litzake Jesus izanen, harreman hauek gabe. Haren izatea eta *besteentzat hemen gertatzea*, bestee-kiko harreman *gertaerazko* hauek mamitzen dute. Nik uste hemen aurkitzen dugula, *hemen besteentzat izate* honetan, fededunak ekin-tzarako duen eskakizunaren iturburua: fedea *hemen, herrian, his-torian, munduan* bizi behar da; fedea, *besteentzat* izate horretan haragitu behar da.

Gizakiek eta izadiak, Historia bideetan, elkarrekin dituzten harremanak ekintzaren bitartez lotzen dira. Gizakia eta izakia bi zer desberdinak dituzu; desberdinak, baina batak bestearengan nagusigoa duelarik. Gizonak izadiarengan; gizonak taldearen gai-zer desberdinak dituzu; desberdinak, baina batak bestearengan netik; gizon soilak gizartearen gainetik. Hemendik ikusten dugu, gizonaren ekintzak bi norabide dituela, biak beharrezkoak, biak des-berdinak, biak puntu batera begira. Izadiari begira, argiago esanda, *nor* ez denei begira, gizonak mila ekintza-soro aurkitzen ditu: lur-gintza, burdin-lana, zur-langintza, teknika-aurrerapenak, lur-miake-ta, ortzi-miaketa, zenbait aurrerapen lan-tresnatan. Hau dena, iza-diari begira gizonak aurrera eraman dezakeen ekintza, baina ohar gintezke ekintza honen helburua ekintza bera ez denaz. Ekintza honen xedea ez dugu aurrerapena, zer itsua, norabidegabekoa: aurre-rapena gizonarentzat dugu. Beraz, ekintza horren helburua ere gizona dugu, pertsona.

Goragoko sailetara jotzen badugu, hau da, izpirituzko lanetara, ba dugu beste soro eder bat: arte eta bilaketa-lanak, filosofi-saia-kerak, heziketa-lantzea, politika-kezkak eta lokerak, langileria



hobeagotzea. Hona giza-ekintzaren alorra: zabala, zaila, onuragarria, beharrezkoa.

Fededunak alor honetan burutuko du bere ekintza-lokera edo konpromisua. Baina, gizarte zehatz batean, Herri konkretuan, Estadu berezi batean, hala-holako egituretan, fededunekin eta gabeekin, iritzi desberdinekoekin... Baina *ekintza* hori —politikan, kulturen, langintzan, familietan— ez da *absolutu* bat fededunarentzat: hala balitz, gurkeria bilakatuko litzake. Absolutu bakarra du fededunak bere *beti aurrera jotze horretan*. Absolutu hori Jesusengan argi eta bide bilakatzen da, nortasunez jantzia, gizonaren helbururako bide. Eta Jesus horrekin *barrengo elkaraurkitze* pertsonala izan du fededunak. Egia hau oinarri duela fededunak, ez dezagun pentsa *beti aurrera jotze* eta begiratze honen eskuak lotzen dizkionik fededunari, *geroko gero* bati, eskatologiari begiak luzatuta edukiarren: geroak ematen bait dio egunari bere funtsa.

Egia da: sarritan geroan izkutatu direla egungo zereginetan esku-sartzerik nahi izan ez dutenak. Salagarria. Ez dute konprenitu egungoaren funtsa, geroaren argitan. Edo, adorerik ez dute izan erantzupen zehatz bati heltzeko, egoismoaren luma gozoetan kulunkatuz. Edo, iheskerian murgildu dira, ingurukoez ezaxolaturik —personetaz eta gauzetaz—. Jokabide hauk, ez dira, noski, fededun baten jokabide zuzenak. Fedearen dinamika, Jesus onartzearen eskakizuna, maitasunaren dinamika ez dute konprenitu. Tradiziokerian erori dira; bertikalkerian gelditu. Ez dute konprenitu fedea mundu honetan bizi behar dela, Ebanjelioa mundukoentzat emana izan zaigula, *grazia mundu hontan haragitzen dela, lur honetan gizatzen dela* (Chenu).

Munduan: jakintzan eta politikan, proletargoan eta kapitalgoan, Europan eta Euskal Herrian, Freud-eskolakoekin eta Marx-taldekoekin, askatasunean eta jauntxokerian, gaimditutako-edo kolonizaketakin eta egitura-aldaketakin, ilargira bide harroan eta



gosete lotsagarrian... hemen behar du egon eta hemen behar du izan fededunak. Nahita edo nahi gabe, pozik eta minez, nekatuta eta itxaropenez, baina hemen: erantzupen adoretsuz, edo iheskerian. Hemen.

### **Besteentzakotasuna fededunarengan**

Esana dugu, fededunak ez direla itxiturako gizonak, ez direla bertikaltasun itsuan bizitzeko, gora-luze-zabalean jarduteko baik. Kristok ez duela funtsik, fededunarentzat eta inorentzat, Aita-gandik eta gizonengandik kanpo. *Besteentzako den neurrian da gizona fededun*. Hemendik, Kristo onartu duenak, besteentzako bizi behar du. Bere izatea, bere gizatasun kristaua *besteentzakotasunean* datza. Gizona ez da gizon, ez eta fededun ere, besteentzako maitasun dinamikaren barruan ez bada. Nola bete xede hori? Non, zein lan-sailetan? Ez dago mugarik, eta inori ez diogu mugarik ezar behar.

Arazo honen planteamendua egiterakoan, gertatuak lekuko, irizpide zabalak behar ditugu. Bestela, alderdikeria edo hertsikerian eror gintezke. Bekoki zabalekoak izateak ez du esan nahi ganoragabekeria erorita egon behar dugunik. Ekintzarako bideugaritasuna (pluralismoa) behar dugula baizik. Gertatutakoen jakinen gainean hau baies genezake.

Fededunak bere *besteentzakotasun* hori burutu nahi baldin badu, bere ingurura begiratzen du: gizarte-egiturak, politika-bideak, kulturatze eta heziketa lanak, erlijioera desberdinak, famili-giroa, ekonomi-saltsak, langile-mogimenduak... Hemen bilatu eta aurkitu behar du bere ekintza-bidea, bere barruko balioak, trebetasun eta ahalmenak gogoan daduzkalarik. Norberak aukera egin behar du. Besteek argituta, lagunduta, arnas-emandak, kontzientziatuta, baina ez behartuta, ez ideologia batek, ez talde be-rezi batek, ez inor behartuta.



Egun lau mogimenduera nabarmenenak iker genitzake gizarte honen aurrean:

*Kapitalismoan, aldatzeko gogo gutirekin bizi direnak.* Dagoenarekin pozik daudenak. Situaziokoak.

*Marxismoan, iraultza-irritsetan bizi direnak.* Dena aldatzeko gogotan. Etorkizun paradisuazko baten zai. Horretarako hartu behar diren bideak hartzeko prestu, giza-moraletik landa behar-bada.

*Sozialismoan, iraultza-irritsetan bizi direnak.* Horretarako egin behar direnak egiteko adoretzu, kapitalismoaren atzapar eragintsuaren aurka, giza-moral edo kristau moralarenganako begirunez.

*Piloa, masa, kontzientzigabetuen taldea.*

Borrokarik garratzena kapitalismoaren aurka doa, fededunen eta fedegabeen aldetik: gizarte hau kapitalismoaren altzoan hazi eta koxkortu da, baina oker, banaka batzuen proetxura, besteen eskubidezkoak deseginaz edo azpiratuaz. Fededunak eta gabeak elkarrekin bat egiten badute kapitalismoaren eraginaren aurka borrokatzeko, gizona askatzeko eta salbatzeko bategitea dugu. Kapitalismoaren egiturak beste mogimendu batenak hainbat txarrak izan daitezke. Mogimendu txar batetik irtenda, beste txar batean eror gintezke. Kapitalismotik irten eta marxismoan eror gintezke: egun modako mogimendua marxismoa dugu. Erljio berri bat bezala sortu zaigu: Marx-erlijioa.

Baina ekintza-mailan, mogimuendu hauei begiratu baino lehenago nik uste beste galdera batzuk gure buruei egin behar dizkiegula. Alde bateko nahiz besteko mogimenduan, ideologia honetako edo hartako taldean, eta alderdi bakoitzak eskaintzen dizkigun egituretan: nola gelditzen da *gizona*? Gizonagotzeko abagunerik izango ahal du? Gizonak bere *nor* izatea helduko ahal du? Nortasun ukaezin hori errespetatua izanen ahal da? Heldura egoki batera iritsiko ote? Beste koloretako egituretan, beste modu

batera, beste bideetatik, beste amets batzuk begien aurrean jarriaz, gizona ez ote zaigu berriro alienatuko? Fede aizun batek alienatu egin du gizona. Bai. Kapitalismoak alienatu egin gaitu. Marxismoak alienatu egiten du gizona. Bai. Hau izan daiteke egoerarik itunena: alienaketa batetik irten eta beste batetan erortzea.

Egungo gizonak, fededunak eta fedegabeak, gizarteak eskutan darabilkien *gaiari* begiratu behar dio, gizonari alegia. Gizarteak aurrerapen-bidea daramaki, makinaketak, ikastetxe, denak goitik zuzenduta, goitik behera, kapitalistak nahiz marxistak, demokratikak nahiz sozialistak... azpian dagoen gizona gixontzeraino. Gizonaren burua egoki jantzia eta landua ez baldin badago, bere nortasun osoaren jabe, teknika-bideak nahi duten eran pentsaraziko diote gizonari, eta jokaraziko. Hau dugu egungo alienaketa berria, egungo kolonizaketa lotsagarria, egungo morrontza. Fededuna ekintzari so jartzen denean, hau ezin dezake ahantz.

Horregatik, fededunak behar dio bere eskua erantsi egungo problemadiari, beti gizonari begira. Beharbada bat edo beste, arazo horietan, garrantzitsuagoak izan daitezke; ez diegu denei begirada bat bakarra eta berdina ematen; korapiloen askabideak ugarriak izan daitezke. Lehen esana dugu, bide-ugaritasuna beharrezkoa dugula hainbeste eratako arazoetan.

Gizarte baten onari, herri baten premiei ez genezaieke laguntza eman bide bakar batetik edo jokabide bakar batzuekin. Hau izan daiteke arriskurik handienetakoa: hertsikeria.

Iraultza ongile bat burutzeko, bide eta sistema ugaritasuna ontzat hartu behar dugu. Inork ez du honetan nagusigoa: denok eskua ezar gizarteari, han bizi den gizon soila salba-bidean jar dezagun. Honetan eman behar du fededunak bere testigutza: gizonen alde gizonekin borrokatu, edozein mailatan: politika, kultura, langileria, heziketa, familia. Ez dago soro bat bakarra ere hesiturik fededunarentzat.

## **ELKARTEAN EKINTZALEAK**

Bidezkoa dugu fededunok elkarrekin talde bereziak osatzea, gizarteko beste taldeak eratzen diren bezalatsu. Talde guziak ez ditugu, noski, maila berdinekoak, xede berekoak, eta egitura berdinekoak. Fededunek egiten duten Elkartek, fedean bertan du bere oinarria, eta fedean bere xedea, eta fedean bere dinamika. Ez dut Elkartearen giza-egitura aipatu nahi, hau da Elkartea edo Eliza instituzio bezala, ene asmoa ez delako hori, hemen.

Fededunen Elkartea muga zabalekoa dugu, mundu guzira gure begiak zuzentzen baldin baditugu: Elkarte orokorra, mundu zabaleko fededunek osatua. Baina, ba dira Elkarte zabal horren barrenean, beste elkarte txikiagoak, zelula bizi-biziak, goputz osoaren bizigarri. Beti izan dira horrelakoak, baina batez ere orain sortu zaizkigu Elkarte berri hoiiek kontra-indar bezala. Betiko legea dela uste dut, Elkarte handi batean errazki indarrak malkatzea: orduan, zabarkeria sortu ohi da, utzikeria, erantzukizun gutiago, xedeak lainotu... Eta kontra-indar salbagarri bezala Elkarte txiki hauek sortzen dira: hain zuzen, Elkarte handiaren zuzpergarri.

Fedearen dinamikak ekintza du eskakizun, eta Elkarte berri hauek eman dezaiekete fededun ekintzaleei giro egokia, fedean heltzeko eta ekintzak burutzeko. Jakina, talde berri hauek ez dira nolana sortzen: ba dute beren barru-giro berezia, ba dituzte beren eskakizun apartekoak fedearen eskakizun nagusiaren ondoan.

**Elkartea: azterketa eta pentsaketa leku, Ebanjeliotik ekintzarako**

**Berezko taldeak:** behartu gabe sortuak izan ohi dira; giro eta problemadi zehatz batean eiotuak. Adiskidetasunean bildurik. Kezka eta amets berak dituzte.

**Eliz-Elkarteak:** fededun taldea duzu: ebanjeliozko pentsaketarako eta bizitzaren kritikatzeko, Kristoren mezutik.

**Gizartean jarria:** gizarte-giro konkretuan bizi dira. Gizonaren ondoan. Hemen dago ekintzaren soroa. Fedeak kristau lokeran jartzen ditu gizonen aldeko ekin-tzarako.

*Berezko talde* hauek herrian bertan sor daitezke, edo herri ingurukoekin: baina beharrezko dute homogeneitasuna eta elkarrekin harreman sakonak: anaiarte, edo hobekiago esanda, senidearte osotuaz.

*Eliz-Elkarteak* dira: ebanjelio-eramaile izanen dira, fede, itxaropen eta maitasun indarrean. Oinarriko Elkarte hauek, Elizaren zelula bizienak izanen dira, Ebanjelioa bizi nahi horretan.

*Gizartean jarriak:* ekintza desberdinekin beharbada, baina giza-haziketari begira konprometituko dira; maila guzietan, baina bakoitza berean.

Zabal dezagun pixka bat azken puntu hau.

Elkarte berri hauek ez dute beren ekintza-gogoia eta betekizuna aurrera eramango, dauden tokiko gizonekin eta beren gora-beherekin lokartzen ez baldin badira. Elkarte hauek ghetto bihurtzen baldin badira, kanpotik barrura lan egiteko asmotan, edo goitik behera, toki hartako gizonekin nahastu gabe, paternalismoan erraz eror daitezke. Ez da hori izanen, beren fede-heziketarako eta bizitzarako, itxitura galkor batean gelditzeko baizik.

Lan hau burutzeko, gizartearen pausoak gogoan eduki beharrekoak ditugu nahitaez: gizarte lotu eta ezgizatiar batean bizi delarik gure egungo gizona, ekintzaren lehen pausoa hau izanen da, alegia, gizarte horretan gizona askatzea eta gizatzea. Mila loturetatik askatu (ekonomian, politikan, kulturen) gizona, giza-arte erosoak izan dezagun.

Bigarren pontua: Aldien zantzuak berezitu. Sarritan mila jo-

kabide hartu izan dira kristau-ekintza edo kristu-konpromisoa di-relakoan. Eta ez da erraza jokabide horiek kristau oinarriko egiekin ezkontzea. Behar da beraz, berezketalan zorrotza egitea Elkartean, denen artean, Espirituaren argitan. Alde batetik, aldiak eskaintzen dizkiguten zantzuak eta gertakizunak ondo miatzeko eta aztertzeko; eta bestetik, fedearen argitan, ekintza-bide zuzenak hartzeko.

Hirugarren pontua: lokera edo konpromisu zailetan, elkari laguntza eman eta elkarrentzat babes-izatea. Behin baino gehiagotan, konpromisu latzak eta arriskutsuak besarkatzera eramango du fedeak kristaua, eta honen ondorioak mingarriak izan daitezke. Lehen esan dugun bezala, konpromisu hauek ongi aztertu behar dira, baina behin jokabide bat hartuz gero, Elkarreak babestu egingo ditu taldeko konprometituak.

Elkarte berri hauek abagune egokia eman dezaiekete fededunei, bere ekintza burutzeko. Elkarte bera izanen da bakoitzarentzat fede-eskola, argi eta indar-iturri ekintzarako, azter-leku, eta elkarizketarako bide.

Eta azkenengo puntu bezala, aipa dezagun *elkarrizketa*.

**Elkarrizketa: horretarako baldintzak eta zailtasunak.**  
**Baina derrigorreko**

Teknika-aurrerapenak ba ditu indar galkorrak ere gizonarentzat. Gizona, uste gabe, gehiegi pentsatu gabe, sortzen ari zaigun gizarte berri honetan. desegina gelditu daiteke: neurri edo dimensio bakar bateko gizona bilaka daiteke, eta beharrezko du elkarrizketa, bere itxitura horretan gelditu ez dadin eta besteetatik aberas dadin.

Historiaren ibilia ugarietasunera doakigu: bide ugariak eskaintzen zaizkio gizonari arazo ugarien aurrean. Argia behar du, handik eta hemendik dator argia eta egia, aukera egiteko. Gizarteko

harremanak ere ugaritu egin dira. Eta pentsakerazko eta politikazko harremanak ere ugaritu. Elkarrizketarako bideak idekitzen zaizkigu era honetara.

Arazo nagusien aurrean ez ditugu ikusera berdinak. Egia toki askotara eta pentsakera askotara zabaldurik dago; eta bazter guzietatik bildu behar dugu edo dezakegu zerbait baliogarri. Elkarrizketa, beraz, behar dugu. Bestalde, betiko arriskuan eror gintezke: hertsikeria eta jauntxokerian.

Elkarrizketa, batzuk besteekin aurkitze bat dugu; batzuk eta besteek, bakoitzak bere neurrian duen egia-zatiarekin egia borobilagoa egiteko, denentzat. Elkarrizketa egiarako dugu. Ez nere edo zure egiarako, bion artean osa dezakegun egiarako baizik.

Pentsakera eta ekintza desberdinak ditugu, maila askotan. Hau ontzat hartu behar dugu: denok ez bait dadukagu ikusera berdina, nahiz gauza ber-berari begiratu. Pentsakera bakoitzaren ondoan, denen eusgarri, norbait dadukagu, pertsona. Beraz, elkarrizketarako, nere burua konprenituaz eta besteena konprenituaz jokatzeko hasi behar dut. Ideiak baino gehiago balio du pertsonak: hau onar behar dut lehen, berarekin lan egingo baldin badut egia argiago baten bila, ekintzari begira. Pertsona baino gehiago ideia maite baldin badut, ez daiteke inolaz ere elkarrizketarik.

Horregatik, behar ditugu baldintza batzuk bete, elkarrizketa egiazkoa egin nahi baldin badugu.

- \* Nere hizketa-laguna, bestelakoa dela onartu: ez mailatu, ez gela batean itxi, ez nigandik aldendu.
- \* Entzun: ez hitzen kanpoko hotsa. Ez esan duena, *esan nahi duena* baizik: haren baitan sartuaz.
- \* Nere ustea ez baitan jarri. Nere arrazoizko pentsakera burutsuari eutsi, baina irikitasunean, bestearen arrazoiak aberas nazakeela ikusiz. Nere eta bestearen arrazoiak neurtu eta pisatu, egi borobilagoaren jabe izan gaitezen.

- \* Menderakoitasunik ez agertu, honela bideak itxi egiten bait dira.

Zailtasunak ere ba ditugu, noski, elkarrizketarako. Bat hau dugu: gure hizketa-laguna manejatu nahi izatea: gure tresna bihurtzea, gure gogorako. Bestea menderatzea. Gutiestea, hura edo haren pentsakera edo haren arrazoiketa. Gogorkeria. Baina zailtasun hauen ondoan, elkarrizketaren eskakizunak ere jarri behar ditugu:

Egia maite izatea: ez nere egia, ez nere taldearen egia, ez nere pentsakeraren egia. Argi eta labur azaltzea ene pentsakeraren alderdiak. Fintasuna, bestearen aurka azaltzen naizenean, une egokienak erabiliaz. Gizatasuna, xalotasuna...

Gure Herrian gertatu diren mila gorabehera gogoan edukita, elkarrizketa premia-premiazkoa dugula deritzat. Giza-heldura ego-ki batetara iritxiko baldin bagara, bide hau hartu behar dugula uste dut. Eliz-elkarte barruan, zenbait bide hartu den alderdi batetik eta bestetik: zenbait jokabide desberdin Herri baten onari begiratuta: eta ez gara gai, elkarrizketatzeko; batzuk besteak baztarten ditugu. Ez dakigu elkarren berri, elkarri entzunaz: zeharretik dakizkigu. Mailakerian erori gara: eliz-gizonak mailatuta gaude: konserbadoreak, progresistak, eta ezker-progresistak. Eta ez gatoz egia bila elkarrengana.

Ikastola-arazoan. Jokabide desberdinak ditugu. Bata bestea-gandik ihesi bezala ez ote gabiltz? Pentsakera eta jokaera desberdinen azalpen zuzen eta argitsu bat egin behar litzake, denen aurrean: beharbada ez dira denak bide batera etorriko, noski, baina taldekerian ez ginake ibiliko behintzat. Ez dut uste bakoitzak bere pentsakeraren berri emateko bildur izan behar duenik. Pentsakera lapurtuko ote diguten bildur? Irikitasunik ez dugun bitartean, elkar entzun eta aditzeko, alde batekoak eta besteakoak (denon errua daiteke), ez dugu gizabiderik.



## BIBLIOGRAFIA

Gehienbat erabilitako liburuak ematen ditut:

- ALBERDI, R. **Hacia un cristianismo adulto**. Ed. Estela. Barcelona. 1964
- BARREAU, Jean Claude. **La reconnaissance**. Ed. du Seuil. Itzulpena: "El reconocimiento, o ¿Qué es la Fe?" Ed. STUDIUM, Madrid 1970.
- BESNARD, A. M. **Un certain Jesus**. Ed. du Cerf. Itzulpena: "Un tal Jesús". Ed. Herder. Barcelona. 1970.
- CHENU, M. D. **L'évangile dans le temps**. Ed. du Cerf. Itzulpena: **El evangelio en el tiempo**. Ed. Estela. Barcelona.
- DELESPESE, Marx. **Cette communauté qu'on appelle Eglise**. Centre Catholique. Otawa. 1970. Itzulpena: **Una comunidad llamada Iglesia**. Sociedad de Educación Atenas. Salamanca. 1970.
- DOMERGUE, CARDONNEL, ... **La Foi, force historique**. "Frères du Monde". Itzulpena: **La fe, fuerza histórica**. Ed. Estela. Barcelona. 1971.
- DONDEYNE, Albert: **La foi ecoute le monde**. Ed. Universitaires. Paris. Itzulpena: **La fe y el mundo en diálogo**. Estela. Barcelona. 1965.
- GONZALEZ RUIZ, J. M. **Marxismo y cristianismo frente al hombre nuevo**. Ed. Fontanella. Barcelona. 1969.
- GONZALEZ RUIZ, J. M. **Dios está en la base**. Ed. Estela. Barcelona. 1970.
- MONJARDET, André. **Autre Eglise, autre foi**. Ed. de L'EPI. Itzulpena: **Otra Iglesia, otra Fe**. Ed. Fontanella. Barcelona. 1970.
- RAHNER, K. **¿Crees en Dios?** Ed. TAURUS, Madrid. 1971.
- SUENENS, GONZALEZ RUIZ... **¿Cristianismo sin Cristo?** Ed. Paulinas. 1970.
- VELA, Jesús Andrés. **Las comunidades de Base y una Iglesia nueva**. Ed. Guadalupe. Buenos Aires. 1969.



**historiatik esperantzara**

*Bernard Shaw-ek esana da:*

Etorkizuna ezagutu gabe, ezin inork esan igarora baino hobea izango ez denik. Hauxe da itxaropena.

*Bere baitan duen bizialdiaren jarioak, pentsaraztera eztenkatzen du gizona. Lehena joana, oraina eskas, geroa asmo: bakoitzak du bere gozoa eta larria, bizitza arian-arian doala.*

*Honera artean kultura eta fedea ikusi ditugu, gizartegintzari edo ekiten. Baina gizarte hau ez da orainaldian gelditzen. Ez du nahi. Etorkizuna ere bereganatu nahi luke. Giro berriago batez jabetu behar du gizonak, asekaitza bait du barnea.*

*Giza-izaldia historiak betetzen du, eta historia, berriz, izanaren egintzak eta izankizunaren*

*itxaropenak. Gizonak itxaropen historikoak ditu, "hemendikaldeko" esperantza eta itxarokizunak ere bai.*

*Geroa —diotenez— historian burutzen da. Edota historiaren "handikaldean". Metahistoria hontaz ari da fedea hitzegiten. Fededunetatik hainitzek, hala ere, ez du bere fededuntasunean histori barneko itxaropenkizunik galdu nahi. Fedeak ere —diotenez— historia maite du, eta historian nahi du lanegin. Ekintza beharko luke, beraz, fededunaren itxaropen jator batek.*

*Hortik datoz galderak: zer egin behar du fedeak historian?, zer eta nola?, zein da fedearen azken eskakizun historikoa? Non da kristau itxaropenaren eta giza-itxaropen historikoaren lotura? Iraultza, fedearen eskakizun?*

*"Handikalde" urrun hura orainen premiasun gorrian landa ote daiteke? Eta nola?*

*José María Diez-Alegriaren lan bat aukeratu dugu, galdera hauk argi ditzan. Idazleak —klinikak batetik— gogoz eman digu itzulpenerako baimena. Gaztelaniaz, Sígueme argitaldaria eman da.*

J. I.

KRISTAU ITXAROPENA  
ETA ITXAROPEN HISTORIKOA  
jose m. diez-alegría

Klase-burruka, iraultza, biolentzia: arazoak. Arazo hauek aztertzeko bi ikuspegi desberdin jar genitzake; bi tokitatik begira genezake korapilo hau: itxaropenetik edo etsipenetik.

Kontsumozko gizartean, eragin zapalkorra bere frutu bezala izan arren, klase-burrukak aurrera egiteko eta klasegabeko gizarte bilakatzeko, itxaropenik ba ahal da?

Gizadi zuzenagoa eta gizatiarragoa ardiets dezakeen iraultzarako ba ahal da itxaropenik?

Kristau fedea zerbait eman ahal dezaioke fede historikoari?

Bidezkoa ahal dugu itxaropen historikorik gabeko kristau fedea?

Gure munduan —inguratzen nauen honetan zehazki— itxaropena uztera bultzatzen gaitu denak.

Kapitalaren jabegoak ematen duen ekonomi-indarragatik, eta teknokrazi-ahalagatik, goi-mailakoen klaseak sinestarazi nahi digute alperrikakoa dela klase-burruka. Gaur ez funtsezkoa hori.

Iraultza —diote— ustekeria duzue. Edozein iraultza gogor, beste gogorkeria batekin mastrakatu behar den eraiketa duzue.

Eliza katoliko osoa, gure mundu honetako bidegabekeriak gero eta gehiago salatu eta hobe-beharrezko aldaketen premia azalduarren, oraindik klase-burrukaren eta iraultzaren kontra jartzen da. Era honetara, mundua elkartuagoa izan dadinaren aldeko bere erakutsiak itxaropen historiko jatorrez ongi kutsatu gabe nabari dira.

### Itxaropen historikoa

Itxaropen historikoaren gaia sakonki erabili izan du Erich Fromm-ek.

Itxaropen historiko jatorra, desitxaropena eta etsipena nahasian gorde dezaketen itxurazko itxaropen faltsoei kontrajartzen zaie. *Itxaropen faltso mota bat, hau izan daiteke*: eskuak-lot, berez etorriko den erabaki baten zai gelditzea. Itxaropen loti hau *gerokoa* gurtzera doa: etorkizunaren idolatria. Guk gaur erabaki ezin genezakeena edo erabaki bidean jartzen ez duguna, *geroak*, bere indar hutsez, *gerokoa* delako, erabaki ahal baleza bezala. Itxaropen faltso hau desitxaropenaren estalgarri da. Dena geroaren esku uztea, egunetik ezer itxaro ez dugunean, mito berri bat sortzea da, funtsik eta mamirik gabea, indar sortzailerik gabe. *Itxaropen faltsoaren beste mota bat, hau duzu*: burugabeko ekinza baten abenturan arinkeriaz sartzea (arbitrarioki). Egiazki ez du itxaropenik onartzen, ez eta desitxaropenik ere. Idolatriazko geroaren mitoa ere ezin har daiteke. Orduan, gizakumeak, itxaropenik gabe ere, ekintzara jotzen du; itxaropenik gabeko ekintzara. Ekintzara ekintza hutsagatik. Ekintza hau gogorkeriazkoa bilakatzeko bidean doa, desitxaropenak hortaratzen duelako.

Itxaropenik gabeko ekintza unkigarriena suizidioa dugu, norberak bere burua hiltzea, alegia. Mundu honetako bidegabekeria

ezin jasanagatik eta gauzak aldatzeko barneko ezina sentitzen delako. Batzutan, holako suizidioetan ba da itxaropenik: kontzientzien eta iritzien esnabide emankorra izan daitekeela pentsatzea, alegia. Baina, bestetan, arbuiatze hutsa bezala ageri ohi da suizidioa, inolaz ere bizi ez daitekeen irtenbiderik gabeko egoera baten aurrean, bere burua ezertan ezin kokaturik.

Desitxaropen edo etsipen mota hauen aintzinean, Erich Fromm-ek itxaropen jatorra jartzen du, historiaren barnekoa.

Itxaropen hau, ekintzailea dugu (itxarote geldiauren aurka) eta ahalkorra (zerik gabeko abenturakeriaren kontrara). *Lehenoinarritzat* ba du itxaropen honek halako giza-fede adimenkor bat. Honako fede hau ez dugu nahas behar erlijioazko kristau fedearekin. Ongi bereiz ditzagun giza-fede eta kristau fede, fede historikoa eta fede erligioso. Fromm mintzatu zaigunez, giza-fede hau zabaldu nahian, “fede, egiazko ahalaren ezagumendua” da, eta “zihurtapenik-ezaren zihurtapena”. Zera esan nahi du: gertakizun historiko eta gizatiarrak ez daitezke bil zientziatzko itxituran, dena gerta aurrez ikusiaz eta orain lehena bakarrik berremanaz. Hala balitz, hemen ez legoke aberastasunik ezta bizitzarik ere: historia zerbait itxia litzake, lehena orain berriro ematen zaigularik. Baina gizartea eta historia, eta, oinarrian gizatasuna, erro-errotik irekia da. Geroari begira, ba da zerbait berriaren ahalik. Baina zerbait *berria, egungotik*. Lehengo ahaztutzeke, egungotik zerbait berria atera daiteke, geroari begira. Irekitasuna. Horregatik, egiaz *ahalgarri* direnetaz dihardu Fromm.

Erich Fromm-ek “zihurtapen-ezaren zihurtapena” aipa duenean, “beste gauza bat ahalgarri denaren zihurtapena” dela aitortu nahi du. Ez da egia aldaketa ahalgaitza denik. *Zihur naiz ez dela zihur*. Ez gaude egoismo eta zapalketen jira-biran, irtenbiderako ahalik gabe, derrigortuta bizitzera.

Erich Fromm-ek hontan ezartzen du *fede adimenkorren* oinarria, “benetako ahalgarrien ezagumenduan” eta “zihurtapenik-

ezaren zihurtapenean” alegia. *Fedea da*: gerorako zerbait eraikitzen saiatzen delako, zapalketarik gabeko mundu elkartua jaso nahiaz, nahizta egiteko hori ongi burutuko den zientziatzko zihurtapen garbirik ez izan. Baina, arrazoizkoa dugu, fede *adimenkorra* dugu, benetan ahalgarri direnak bilatzen saiatzen delako, abenturakerian erortzetik kontu hartuz, baina historiako arriskurik saiesteke. Era honetara, *fede adimenkorra* indar kreatzailea dugu.

### **Fedea eta itxaropen historikoa**

Nolako harremanetan jar genezake kristau fedea eta kristau itxaropena, beste fede adimenkorrekin eta itxaropen historikoa-rekin (Erich Fromm)?

Kristau fedea eta itxaropena oker aditzen direnean, oker eriste honek eraman dezake bat *munduan eta historian* itxarote geldia jarrerara. Hobeki esanda, gizartean kontserbadore den kristautasunak ez du itxaropen historiko jatorrik, eta egungo mundua geldi hartuaz (eskuak lot), pasiboki, bizi da: Fromm-ek dakarren bezala, geroari buruz itxarote geldia duenaren antzera. Baina honelako kristautasunarentzat, geldi itxaroten den geroak ez du zerikusirik historiarekin eta honengandik askatuta, etenda dago (historiatik etenda, noski). Holakoentzat geroa, gizonak berekoizki lortzen duen *ikuskizuna* (Jainkoa ikusi) eta *doinu zerutarra* (Jainkoari abestu) da: gizadiaren egiteko historikoarekin zerikusirik gabe.

Kristau itxaropena bizitzeko era hau, onargarria ahal dugu?

### **Itxaropen eskatologikoa bakarrik?**

Egungo kristau aurrerakoiak, progresistak, (gizartean ez-kontserbadore dira, kristau fedea bestetara konprenitzen bait dute), kristau itxaropena itxaropen historikotik erabat at aditzea, fal-



tsoa dela pentsatzen dute (pentsatzen dugu), kristau ikuspegi ja-torretik begiratuta.

Baina zenbait zehaztasun egin dezagun.

Gizarteko arazoekiko kontserbadore diren kristauak erabat eta erro-errotik aldentzen dute beren kristau itxaropena itxaropen his-torikotik. Ez dute itxaropen historikorik, eta kristau itxaropenaz duten iritziak beren desitxaropen historikoa segurtatzen du. Ho-rregatik, gizarteko arazoekiko beren kontserbadura eta kristautasunari dagokion beren iritzia, bi hauek *elkarrekin* bat datoz eta ekintzetan ados, gauza konkretuetan gutxienez. Horrela aditu eta bititako kristautasuna, *herriaren logarri* duzu. Kristautasunaz era horretara irizteari faltsoa derizkiogu.

Pentsakera honek ez ote du zimendarririk arkituko, munduko errealdadeari so, Jesusen eta lehen kristau-elkartearen jokaeran?

Egia da: lehen kristautasuneko eskatologismoa bat-bateko itxarote apokaliptikoan jartzen da. Dogmatikoki eta hertsiki ezin esango da azkena gertu-gertu dagoenik, baina Testamentu berriko esanak, oso urbil dagoen azkenaren ikuspegian (ustean) jarri-rik daduzkagula, bai. Egiazki, Testamentu berrian, Ebanjelioko me-zuan, gizartearen egitura-aldaketa, eskakizun bezala, zuzenean eta urbiletik planteatu ez baldin bada, aipatu dugun arrazoi horregatik izan da.

Baina, honek ez du esan nahi, lehen kristau eskatologiak, histo-riaz-gainetiko itxaropen eskatologikoak eta gizarte-konserbadurak egina duen sinbiosis edo bizikidetasun hori legetu duenik.

Lehen kristautasuneko itxaropen eskatologikoa, historian bar-na itxarote geldiaren egoerarekin ez zen uztartzen: ez zen itxaropen geldia, historia barruan dagoen problemadiarekin zerikusirik gabe. Itxaropen eginkorra zen, eskatologitasuna eta eginkortasuna uztar-turik; nahiz ekintza hau ez jarri egituren aldaketaren politika-

mailan, norberaren gogozko iraultzaren mailan baizik, delako ekin-tza hori gizarteko egiturentzat eztenkor bilakatu da.

Hari hontan, Lukas-ek aipatu (19, 1-9) Zakeoren gertakizuna, eredugarri dugu. Zakeoren onbideratzea (bihurketa) pertsonala da, eta Jesus-ek "Abraham-en seme deitzeko" ez dio aukera politiko iraultzailerik beharresten, eskatzen. Baina, bere bihurketa pertsonala, gizarteko egoeraren sustraietaraino doa, ekinkortasun izugarriarekin: sustrai ekonomikoetaraino, alegia:

"Nere ondasunen erdia, Jauna, behartsuei emanen diet; eta inor ezertan iruzurtu baldin badut, lau-halako bihurtuko diot".

Pertsonaren bihurketa era honetara planteatzen jarrai izan balu geroko kristautasunak, gizarte arazoetan kristautasun kontserbakorrik ez zen izango, eta, *aldietako zantzuek*, iraultza ahalgarri delaren ardua seinalatu bezain laister, kristauek, beren kristau fedearen indarrez, prest egongo ziren gizarteko egituren barrerako aldaketarako.

## KRISTAUA, ITXAROPEN HISTORIKORA IREKITA?

Baina, gizarteko arazoetarako *kristautasun kontserbakor* hitz-joku nahasi hau alde batera utzirik, gelditzen zaizkigu oraindik beste gai batzuk argitzeko.

Sozialki konserbakor diren kristauek, bere kristau itxaropena, erro-errotik eta positiboki, itxaropen historikotik aldendu egiten dute. Esana dugu. Baina ezetsi ere egin dugu. Baina ez ahal dugu kristau itxaropena itxaropen historikotik aldendu benar, nolabait esateko, *negatiboki*? Hots, kristau itxaropenak ezertan trabatzen ahal du itxaropen historikoa?

Ager dezadan hau. Itxaropen historikoa ez dago kristau itxaropenetik at. Areago, kristau maitasunak —hau gabe fedea hila bait da eta itxaropena oinarririk gabea— itxaropen historikorako bide-bilatzeraz bultzatzen gaitu. Baina, kristau itxaropena, positiboki, segurtapen eta eusgarri ahal da, itxaropen historikoari irekia egon dagoenarentzat? Edota, itxaropen historikoa izatea edo ez izatea, kristau itxaropenarekin zerikusirik ez duen arazoa dela esan behar ote?

Bese hitzetan: kristau itxaropenak itxaropen historikoa ez duela aldentzen, eta kristautasuna kontserbadurarekin bizikide izateak kristautasuna faltotzen duela ezarrita, pausorik gehiago eman ahal genezake? Kristau itxaropenak, itxaropen historikoari so, erro-errotiko eta hutsezineko jokaera irekia beharresten duela baias ahal dezakegu?

Ba dirudi, lehen begi-joaldian, Girardi-k, kristau itxaropenaren eta historikoaren artean, bizikidetasun edo sinbiosis bat ez duela onartzen (bere liburu “Amor cristiano y violencia revolucionaria”-ren azken esaldietan).

Batzutan entzun ohi da —idazten du Girardi-k— Jainko-ardura eta munduko itxaropena beharrezko loturatan ezarri behar direla. Nolatan —diote— ontzat har lezake Jainkoak hainbeste oker historian betikotzea, eta Berak gizonei eman dien zereginean hauek hutsegitea? Gure aldetik honela erantzungo dugu: “orain artean bezalatsu, guretzat konprenigaitz diren arrazoi berberetatik onar lezake”. Ez da legezkoa, Jainko-ardurago edo probidentzialismo kontserbakorretik aurreratzailerara pasatzea, eskubitarren integristatik ezkertiarrenganako. Bi erabaki hauek hondoan duten errua, bera da: “Jainkoak, alegia, guri utzi dizkigun arazoaren askabidea Berarengandik itxarotea, eman gogo ez duen laguntza eta babesa Jaunagan bilatzea”.

Ene ustez, pondu hau sakon dezakegu.

Arazoiz baztarten du Girardi-k “teodicea” batean oinarritutako itxaropen historikoa (teodizea, Leibniz-en teodizearen esanahi jatorrean), Jainkoak gogo dezakeena edo ez dezakeena, giza-adimenak mugatu ahal izango bailu. Gizonak ez dezake Jainkoa muga. Giza-adimenak ez dezake Jainkoaren gogoia edo asmoa muga. Jainkoak ez dezakeela geroan gogo-izan lehen nahi izan zuena, esatea, lehen aipatu itxaropen-era faltsoan berrerortzea da, hots, geroaren itxarote geldian, geroaren mitologian erortzea noski.

Kristau itxaropena ez da erabakitzen, ez da zertzen, ez jainko-ardurago edo probidentzialismo kontserbakor batean, ez-eta jainko-ardurago aurrerakoian ere. Historiaren mailan, ez digu (kristau itxaropenak) historiaren arazoaren askabiderik ematen. Askabide edo argibide horren bilatzea gure egitekoa dugu, historia-bideetan aurrera pauso-ematen doan gizadiaren lana dugu.

Itxaropen historikoa honela planteatu eta honela bizi behar

da: etorkizunari begira, gaur ahagarri diren eginahalak zertzen saiatuz, alegia. Egoera hau ekintzaile eta indartsua da, dogmatikoi baiespene batean ez baino gaur ahal delakoaren ezagumenduan oinarritua (egun, geroari so), eta "bilatzea utzi egin behar dela" gezurraren zihurtapenean errotua.

Hemendik, —Girardi-k ongi dioen bezala— dator errua, "Jainkoak guri eman dizkigun korapiloen askabidea Jainkoagandik itxarotea"-ren errua.

Baina itxaropen historikoa, etorkizun historikoaren eraketari buruzko fede dogmatiko baten oinarrian planteatu ezin daitekeela onetsita (dogmakoikeria hau kristaua nahiz marxista delarik), jainko-hitzagan sustraituta, kristau itxaropenak, itxaropen historikoaren aurrean dadukagun egoerarako, elementu baliagarririk eman dezaigukeela uka ahal daiteke?

## MUNDUAREN BILA

Egungo ikusmoldetan, bat-bateko eta apokaliptiko eskatologismoaren ispilukeria gaudituta, kristau itxaropen eskatologikoa ez da nahasten itxaropen historikoarekin (hots, egiaz egin daitekeenarengan arrazoizko fedea izatea), eta ez da honen ordezkoa ere. Baina, itxaropen historikoarekin bideratzen da, pondu bereizi baitean. Kristauak, kristau denez, jakin ba daki "gizona lurraren gainetik dagoena, eta itxaropena, heriotza baino bortitzago dena", eta "maitasunak sekulan ere ez duela hutsik, frakasorik, ezta alperrik galtzekorik ere". Hori baino gehiago. Kristauak ba du utzezinako irekitasuna itxaropen historikoarentzat, kristau itxaropenaren indarrez: prestutasuna daduka kristauak itxaropen historikoarentzat, eta indarra itxaropen historikoa uzteko tentaldiaren aurrean.

Hau dena, jakina, baldin bere itxaropena jatorra bada eta sakonetik Jainko-hitzarekin egokitua.

Honetan analisisa egin dezagun.

Lehenengo kristauak Jesus-en Pizteaz zuten fedearen testigantza antzinakoena, Paulo-k korintotarrei egindako eskutitzean, 15garren kapituloan dago. 55 urte aldera idatzita dago. Testigantza honek zera gordetzen du: lehenik, *Jesus-en Pizte*-gertakizun hontaz fede-testigantza, eta, honezaz gainera, kristauen fede honen esanahiaren testigantza, alegia, heriotzaren gain Kristoren garaipena eta historiaren gain Kristoren jauntasuna, sinesten zutela. Kristoren Piztea sinesten duenak, Jesus heriotzaren gainetik eta historiaren gainetik jaun dela sinesten du.

Korintotarrei idazten die Paulok, eta, heriotzaren mugatik harantz pizte-ikuspeirik ba ote dagoen galderak, kezkatu zedu-

kan zenbait korintotar, Grezitarrek ez zuten eragozpen handirik animaren hilezkortasuna onirizteko, baina materiari buruz zuten iritzi ezkorrak trabatzen zien piztuera onartzeko bidea: hau da, heriotzaz bestaldeko gizonaren berreraikitzea (gorputzez eta animaz) kostatzen zitzaien onartzea.

Pauloren erantzuna hauentzat doa, hots, alde batetik Jesus-en Piztea onartzen duten kristauentzat, eta bestetik, *gure* piztea ukatzen edo zalantzatzen dutenentzat. Eta haren erantzuna erabatekoa dugu: guretzat pizterik ez baldin badugu, Kristo ere ez zen piztu. Eta Kristo piztu ez baldin baten, *gure* erlijio guzia gezurrezkoa da. Bortitza da Paulo, hau behin eta berriro baiesterrakoan. Edo Kristo piztu egin zen eta gu ere piztu egingo gera, edo baldin gu piztuko ez bagera, Kristo ere ez zen piztu, eta *gure* kristau fede guzia ustekeria hutsa da.

Egungo sortaldeko gizonarentzat, Pauloren planteamendu hau ez da logikoa. Baina Pauloren baietzaren oinarria ez da arrazoiketa logikoa. Beste arrazoiketa da: fedezkoa. Fedezko dialektikan dihardu, eta ez logikoan. Gertatu den Jesus-en piztearen (*gure* fedekizuna) eta gertatuko den *gure* piztearen (itxaropenkizuna) artean, *ba da lotura* bat, kristautasunaren erraietaraino doan lotura: *elkarkidetasuna*: *Jesus guretzat* jaio, bizi, hil eta piztu egin zen: Jesus-guretzat, Jesus-gu. Eta fededunarentzat, pentsa ere ezineko sakontasun eta egitasunean ematen da elkarkidetasun hau.

Baina guretzat pizterik ez baldin badago, Jesus-entzat ere ezin zitekeela izan baietsi eta berresan ondoren, Paulok, bortizki, aldarrikatzen du Jesus piztu egin zela: “Baina ez, Kristo piztu zen hilen artetik, lo-harturik zeudenetatik hasikin bezala”. Honen ondoren, Paulok azaltzen du hau, alegia, Jesus-en piztearen egunetik —Pazko irugarrengoan— *gure* pizte-egunera arte —Jesus-en Parusia orduan—, giza-historia osoa igarotzen doala. Pauloren-

tzat, historia hau, txarraren eta heriotzaren gain garaipena iritxi duen Jesus-en Piztearen baitan dago (hots, Jesus-en Piztea, txarraren eta heriotzaren gain, garaipena bilakatzen da gizonaren baitan, honen ahaleaginean eta Jainkoaren indarrean): “denak berbiziko dira Kristogan. Baina, bakoitza bere mailan: lehenen, Kristo, hasikin bezala; gero, Kristorenak, bere etorreran. Gero, azkena dator, nagusigo, mendera-indar eta ahal guziak desegin ondoren, Jesus-ek Jainko Aitari erresuma eman dezaionean. Berak behar bait du agindu, bere etsai guziak oinazpiratu arteraino. Desegin beharreko azken etsaia heriotza izango bait da”, (I Kor. 15, 22-26).



## GARAIPEN BIDETIK GOAZ

Hitz hauen esanahia?

Paulok diguna hau da: hil eta piztu den Jesus-ek kargu bat, erresuma bat hartzen duela, baina dinamikaz jantzitako kargu eta erresuma. Kristo piztua izan *jauna* da, jauntasuna daduka, historian zehar txarraren ahalak azpiratzelana burutu dadin. Jarduketa hau pixkanakakoa eta garailea da, eta Jesus-en etorrera-egunean, heriotzaren gain betirako garaipena izanen da: honatx, gure piztearen garaia. Txarraren kontrako burrukan jardutea, heriotzaren gain izanen den garaipenean burutzea da.

Paulok aipatzen dituen txarraren ahalak, egoismo, zapalketa, indarkeria, bidegabekeria eta maitasun-eza bezala agertzen zaizkigu. Hau dena garaitu behar da, pausoka-pausoka, historian zehar... Kristo misteriotsua, Jesus, hila eta piztua, Aitaren baitan egonaz gordeta, Jesus hau *garantia* da, gure burruka honi funtsa eta historiari ere bere funtsa emateraino. Honek esan nahi du, burruka honek ba duela bere sentidua, ez bakarrik maitasunez bidegabekeriaren aurka lokartu edo konprometitu denaren bizitzan, baizik historian bertan eta historia honen ibilean ere bai. Egoismoaren, bidegabekeriaren eta indarkeriaren aurkako burruka ez da baztertuko historian. Azkenera begira, dinamika da burruka hau, Jesus-en etorreraruntz, orduan burutuko bait da betirako garaipena.

San Paulok dinamika hau ezartzen du bere hitzetan eta bizitzan: 1. Kristo piztu da; 2. burruka ibilean doa (garaipenera deitua) txarraren ahalein aurka; 3. burruka eta dinamika garaile honekin loturik, gure piztuera dadukagu, burrukaren gailur.

Paulok doi-doi esaten du: egiatzko fedez ezin daiteke sines

Jesus-en piztea, baldin gure piztea itxaroten ez badugu. Baina, Jesus-en piztearen eta gurearen harreman dinamikoa azaltzen digunean (Paulok), Historiaren haria sartzen du, Kristori so, txarraren ahale aurkako burruka bezala. Historiaren haria, burruka haria dugu. "Desegin beharreko azkenengo etsaia, heriotza izanen da". Beraz, historian zehar, garaipenerako pausotan, eramaten den burruka, baldin senitartearen, askatasunaren, egiazko maitasunaren eta zuzenbidearen etsaien aurkako burruka ez bada, azkenean heriotza desegina izango dela ameskeria da.

Orain zehaz genezake osoki Pauloren ikuskera: txarraren ahale aurkako burruka garailerik, historian barna, ez badago, ez dugu gure pizterik izanen. Gure pizterik ez baldin bada, ez dago, ez da izan Jesus-en Pizterik ere, eta kristautasuna mamua da.

Ez daiteke, beraz, pizteaz fede jatorra izan, historiarekin harremanak dituen itxaropen eskatologikoa izan gabe. Itxaropen historikoa uztea, ezkongaitza dugu jatorki kristau den itxaropen eskatologikoaren biziarekin.

Baina, itxaropen eskatologikoa ez dugu *berez* itxaropen historikoa: hura, izadigainetik (adimen gainetik) fede eta ikuspegi profetikoaren mailan planteatzen bait da; eta, hau, hots itxaropen historikoa, arrazoi-fedearen mailan, historiako gertakizunen harian arki daitekeen *ahagarrien* ezagumenduan oinarritua. Ezagumendu hau, bilatze bat dugu: burruka hortan ahal diren, posible diren bideak bilatzea, zuzenaren serbitzuan, historiaren erraietan.

## AZKEN HITZ

Bukatzeko.

Kristau itxaropenak esaten digu, itxaropen historikoari eus-teak ba duela bere funtsa: itxaropen historikoa utziezina dugu. Baina, ez digu esaten nolakoa den eta nola eratzen den itxaropen historiko hori. Fededunak mundugintzan sartu behar du bere es-kua, fedegabe baten antzera, eta tresna berekin, bide hortatik itxaropen historiko batean alkarrekin gizartea hobetuz.

Paulok esaten digu, heriotzaren gainetik garaipena iristea (piztea), txarraren ahalen aurkako garaipenaren burutzea dela. Heriotza, azken etsaia da. Baina, ez dakigu, Pauloren *lehenago* eta *gero* hitz hauek hertsiki gertakizun-garai honi ote dagozkion.

Itxaropen eskatologikoak gure esku, gure arriskura eta bila- ketara uzten ditu itxaropen historikoaren asmoak eta ekintzak: baina itxaropen honek behar du ahalegin kreatzaile izan, sorketa lantsua izan, egiazko itxaropen izango baldin bada. Itxaropen geldia, ez da itxaropen...

Kristoren jauntasun eginkor eta garailea, historia gain, ez dugu gertakizun neurgarria. Zuzenki esan genezake ez dela jaun- tasun historikoa. Ez gaitzke balia datu honetaz etorkizunerako di- tugun ahalgarriak neurtzerakoan, kalkulatzekoan. Baina bes- talde, jauntasun hau, fededunak bere fedetik baiesten duen eran, historiatic at ez dago.

Jesus-en piztearen ekintza ez da zertzen mundu honetan era- gin apokaliptikoekin. Santioren zaldi zuririk ez dugu... Jainkoa- ren probidentzia historian, mugagabea da.

Jesus-en ekintza eta eragina, giza-biotzaren misterioan zer-

tzen da. Jainkoaren eragina barnekoa da. Hemen behar du irekitasuna gizonak, (jainko-dohaiei irekia egon) ekintzak historian burutu ahal izateko. Baina, historian ekintzaile gizona da, eta gizona bakarrik.

Horregatik, historian zehar, itxaropen kreatzailez burrukatzen direnekin bat behar du izan kristau jatorrak. Jesus hil eta piztuarekin harreman estuz fede giroan eta itxaropenean, (lehen kristauen fede eta itxaropen-kide), kristauak izango du bihotz eta buru, arriskuan eta ilunean, itxaropena izan daitekeela eta izan behar dugula aitortzeko.

**euskeratzaile: iñaki bereziartua**

## BILDUMETATIK KANPO

### 1. **Elkar-lanean: EUROPA**

Europak aspalditxotik kezkatu du euskal gazteria, eta liburu honek kezka horren berri ematen du: zer da Europa? Non dira minoriak? Nola elkar daiteke? Horiei erantzuten diete E. Salaberry, G. Ansola, Kanpanaga, Tx. Izagirre, R. Arregi-k. 230 horr., 55 pta.

### 2. **Elkar-lanean: FILOSOFIAREN KONDAIRA (I)**

Euskeraz eman den lehenen kondaira. Greziako Sokrate aurreko filosofia, lehen Eskolastika, Baruch Espinoza, H. Bergson. Historia horren azterketariak, Paulo Iztueta, E. Muxika, M. Ajuria eta, berezikiago, E. Salaberry Bergson-i buruzko lan sakon eta zoli batean. 143 horr., 55 pta.

### 3. **L. Villasante: KRISTAU FEDEAREN SUSTRAIAK: JAINKOA**

Idazle ezagun honek bere irakaskintzan darabilzkien gaiak aztertzen ditu euskeraz hemen. Antropologia jakin batetik hasita federaino nola hel daitekeen erakutsi nahi du liburuak. Hizkuntzaren aldetik balio berezia du gure ondorengo euskal lanetarako. 208 horr., 50 pta.

### 4. **J. Goitia, P. Mendizabal: LAU EBANJELIOAK**

Gaurko esegesiari dagokionez egina da edizio hau. Ohar zabalak ditu, eta aurkibide zehatzak. Honegatik talde lanetarako-eta oso baliozko gerta daiteke. 591 horr. 50 pta.

**5. J. Intxausti: EUSKAL-ADITZA. LAS 7 LECCIONES DEL "EUSKAL-ADITZA"**

Orain artean hainbat taldek erabili izan duen liburu hau, baliozkoa da batez ere honen ikasgaien bidez metodo egoki eta labur bat idoro daitekeelako. Aditza bere osotasunean ulertzeko aproposa. 2. liburuki. 100 pta.

**6. B. Gandiaga: ELORRI**

Poema liburua. "Joseba Andoni Agirre" Saria eman zitzaion, 1960-1964 urteetako libururik onenentzat joaz. XX mendeko euskal poesiaren hildo jakin batetik eman zaigun gailurrik ezagunenetako bat. 228 horr.; erdal itzulpenak: 136 horr. Bi liburukiak: 65 pta.

**7. I. Omaetxebarria: EUSKERA. GRAMATICA Y MORFOLOGIA DEL VERBO VASCO**

Gutitan, oso gutitan, aztertu izan da hain sakonetik gure aditza. Agian, azken urteetako azterketarik zientifikoena da. Aita Villasante-k eraturia, antologia aberats bat dakar —historia eta hiztegiak lagunduaz— 36 idazleren atalekin. 320 horr., 75 pta.

**JAKIN SORTA**

**1. Elkar-lanean: IPAR EUSKAL HERRIA (Aitua)**

Frantziarekin harremanak. Ekonomia eta demografiak. Pentsamoldeak eta gizartea. Nekazaritzaren etorkizuna. Aitua da obra hau.

**2. Elkar-lanean: SALBATORE MITXELENA**

Euskal belaunaldi ezagun baten mugarri izan zen Salbatore. Gerra osteko lehenen literatur aldiarena, alegia. Poeta eta saialari zen. Ongi hurbiletik ezagutu zutenek hitzegiten dute liburuan: N. Etxaniz, E. Agirretxe, M. Lekuona, Lucien Schwob, L. Villasante. Eta gazteagoek: J. M. Torrealday, J. San Martín, J. Azurmendi. 140 horr., 70 pta.

**3. Elkar-lanean: RIKARDO ARREGI**

“Jakin” aldizkarian barreatutako lanak biltzen dira liburuan. Eta hiru ekinalditan emandako hitzaldi bat: “Euskaldunen gizagintza”. Lan bildumaren aurretik, Alfabatatze Batzordeak, Torrealday-k eta J. Arregi-k ematen dute idazlearen berri. 204 horr., 100 pta.

**4. Elkar-lanean: KULTURA ETA FEDEA**

Gaurko kinka gordinean, biak ditugu hauzitan, kultura eta fedea. Bion kontzeptuak argitu beharra dugu: zer da kultura, zer da fedea? Eztabaidaren gakoa hor egotea baliteke. Agirrebalzategi, Zabaleta, Bereziartua, Sagarra, Torrealday eta Díez-Alegríak idazten dute. 172 horr., 100 pta.

**5. Elkar-lanean: ERLIJIOA HAUZIPEAN. Inprimategian.**

Gaurko kristau pentsalari askoren iturburuetara jo dute hemen JAKINen lankideek: Barth, Bultmann, Bonhoeffer eta Tillich protestanteen berri ematen da. Baina beste nonbaitetik ere kritikatzeko da erlijioa, marxismo ofizialetik esate baterako: zer dio gaur sobietar kritikak? Eta zer diote Euskal Herrian? 100 pta.

**6. Elkar-lanean: GURE IKASTOLAK. Inprimategirako.**

Liburu honek hiru mailatan argitu nahi du ikastolen arazoa: historia egingo da lehenik; gaurko hauzirik premiazkoenak aztertuko ditu (hizkuntza, erlijioa, etab.); etorkizuneko pentsabide batzu eskainiko ditu.

**JAKIN LIBURU SORTA**

**1. F. Zabala: EUSKAL HERRIAREN HISTORIA. 1. Lur Ekonomia.**

Hiruzpalau liburuki izango ditu historia osoak. Lehenengo honetan XIII menderaino iristen da liburua. Gizarte eta instituzioei begira egin da, batez ere. JAKINen Zuzendaritzapean egin da itzulpena, eta JAKINek eta ETORek elkarturik egin dute koedizioa. 248 horr., 130 pta.

2. **J. Hiriart-Urruty: MINTZAIRA, AURPEGIA: GIZON!**

Hiriart-Urruty euskeraren klasiko bat da; orain artean ezezaguna. Berak eskolatu zituen gehienbat ipar Euskal Herriko idazleak XX mendearen haseratik. Piarres Lafitteren sarrera luze eta argigarria du liburuak, eta kapitulu bakoitzak bere oharburu historikoa. 120 pta.

3. **J. Intxausti, J. Hiriart-Urruty: ZEZENAK ERREPUBLIKAN. Inprimategian.**

Bi parte ditu: analisi historiko bat eta **Euskalduna** asterotik jasotako periodismo lanak. Lehen parteak garaiko (1870-1914) giroa agertzen du: Errepublikaren politika, burgesia, elizgizonak, ikastola, etab. Bigarrenak, garaiko euskal testigantzarik indartsuena ematen digu, Hiriart-Urrutyk zuzendu bait zuen euskal jendearen iritzi politikoa. 120 pta.



bonhoeffer

tillich

jainko

marx

euskaldun

ideologia

ekintza

gizarte

erlijio

barth

eliza

freud

gizon

*kultura*

barth

freud

erlijio

tillich

ideologia

eta

fededun

*fedea*

marx

euskaldun

jainko

fededun

eliza

gizarte

erlijio

barth

bonhoeffer

ekintza

gizon

ideologia

p. agirrebalzategi

p. m. zabaleta

a. sagarna

j. m. torrealday

i. bereziartua

j. m. díez-alegría

# JAKIN sorta

Zuzendari: Joseba Intxausti

ELKAR LANEAN

## gure ikastolak

Ikastolak dira gaur euskal herritasunaren kezka eta itxaropen. Giroaren jakin nahiri erantzun gogoz prestatu da liburu hau zenbait lankideen artean. Bertan ikus daitezke euskal ikastolen azken urteotako historia eta izan dituzten arazoek berriak. Ikastolagintzan dihardutenen lumaetik datorkigu lana: Jose M. Satrustegi, Arantxa Allur, Imanol Laspiur, Anjel Lertxundi, E. Osa, Sabino Aiestaran, L. Haranburu-Altuna, eta bestek aztertzen dute ikastola. Bilinguismoa, artea, erlijioa, gurasoak, irakasle eta andereñoak, etab. dira liburuak aztertzen dituen ikuspegi jakingarrienak.